# III. Lanbide Heziketako Euskal Plana

*LH berria, herri-marka*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Consejo Vasco de Formación Profesional
Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua

Nekazaritza • Itsasoa eta Arrantza • Elikagaien industria • Kimika • Irudi pertsonala • Osasuna • Segurtasuna eta Ingurumena • Fabrikazio mekanikoa • Instalazioa eta Mantentzea • Garraioa eta Ibilgailuen Mantentzea • Eraikuntza eta Obra Zibila • Erauzketa-industriak • Beira eta Zeramika • Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa • Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza • Arte grafikoak • Irudia eta Soinua • Informatika eta Komunikazioak • Gizarte eta Kultura Zerbitzuak • Ostalaritza eta Turismoa • Gorputz eta Kirol Ekintzak • Arteak eta Eskulangintzak • Elektrizitatea eta Elektronika • Energia eta Ura • Merkataritza eta Marketina • Administrazioa eta Kudeaketa

# III. Lanbide Heziketako Euskal Plana

*LH berria, herri-marka*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Consejo Vasco de Formación Profesional
Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua

**III. Lanbide Heziketako  Euskal Plana. LH berria, herri-marka**

© Eusko Jaurlaritza

Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

E-mail: huisfpro1@ej-gv.es

Lan hau osorik edo zati bat erreproduzitzeko baimena ematen da, baldin eta jatorria osorik eta bere helbide elektronikoa aipatzen badira.

Edizio digitala edo e-book: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-805/eu/

D. L.: BI-2362/2011

ISBN: 978-84-694-7555-3

Diseinua eta inprimatzea: Gráficas Lizaso. www.graficaslizaso.com

Sinboloen azalpenak:

➔ Ikono honen bitartez aipatutako web orri, pdf dokumentu eta abarretan sar gaitezke. Dokumentu horiek deskarga daitezke.

# Aurkibidea

Aurkezpena .......................................... 7
Hitzaurrea.......................................... 8
Sarrera ............................................ 10

## I. multzoa

1. **Erreferentziazko testuingurua** .......... 14
   - 1.1. Ekonomiaren globalizazioa .......... 14
   - 1.2. Enpresen internazionalizazioa .......... 15
   - 1.3. Ekonomia- eta finantza-krisialdia .......... 15
   - 1.4. Energia-krisialdia .......... 16
   - 1.5. Demografia .......... 18
2. **Beste eskakizun batzuk** .......... 24
   - 2.1. Kultura-aldaketa .......... 24
   - 2.2. Aldaketen abiadurara egokitzea .......... 25
   - 2.3. Bikaintasuna .......... 29
   - 2.4. Erreferenteen beharra .......... 31
   - 2.5. Kualifikazioen egitura .......... 34
   - 2.6. Bizialdi osoko ikaskuntza .......... 41
3. **Estrategia komuna** .......... 43
   - 3.1. Europa 2020 .......... 43
4. **Ekonomia iraunkorra** .......... 44
   - 4.1. Produkzio-ereduaren aldaketa .......... 44
   - 4.2. Produktibitatea .......... 46
   - 4.3. Finantza publikoak: pentsioak .......... 48

## II. multzoa

1. **Arauzko esparrua** .......... 52
2. **LH berriaren panorama** .......... 54
   - 2.1. Abiapuntuko egoera .......... 54
   - 2.2. Datuak eta adierazleak .......... 55
   - 2.3. LHren egitekoa .......... 90
   - 2.4. Sistema integratua .......... 91

## III. multzoa

1. **LHren modernizazioa** .......... 94
   - 1.1. Kualifikazio-sistemak erabiltzea .......... 98
   - 1.2. Lanbide Heziketaren irudia eta erakargarritasuna hobetzea .......... 101
   - 1.3. Lanbide-heziketako informazio, aholkularitza eta orientazioko sistema integratua .......... 102
   - 1.4. Irakasleen eta hezitzaileen profesionalizazio handiagoa .......... 104
2. **Lanbide Heziketaren estrategia** (ET 2020) .......... 106
3. **Jardun-ildo adierazgarri propioak** .......... 109
4. **Neurriak** .......... 114

## IV. multzoa

1. **III. LHko Euskal Planaren tresnak Diseinatzea, lantzea eta hedatzea.**
   **Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko eredua** .......... 136
2. **Kronograma** .......... 140
3. **Aginte-taula** .......... 144

## V. multzoa

1. **Memoria ekonomikoa** .......... 148

1. eranskina
Prozesuan parte hartu duten pertsonak .......... 151








Euskal Kontseilua
Lanbide Heziketako III. Euskal Plana 2011-2013
III Plan Vasco de Formación Profesional 2011-2013
LH berria, herri-marka
La nueva FP, marca de País
Lanbide Heziketako III. Euskal Plana 2011-2013
III Plan Vasco de Formación Profesional 2011-2013
LH berria, herri-marka

# Aurkezpena



**Isabel Celaá**
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua



**Gemma Zabaleta**
Lan eta Gizarte Gaietako sailburua

Krisi ekonomikoa gainditu eta enplegua suspertzeko, etorkizuneko erronkei arrakastaz ekiteko eta Euskadi Europako eskualde garatuenen artean kokatzeko, pertsona prestatuak eta kualifikazioen egitura orekatua behar da; azken batean, ekimena, profesionaltasuna eta gauzak ondo egiteagatik ezagutu behar gaituzte mundu osoan. Helburu horiek lortzeko, Hezkuntza eta Enplegu Sailek, gizarte-eragileek eta LH publiko eta pribatutako ikastetxeetako ordezkariek ondoren aurkeztuko dugun III. LHEP landu dugu.

III. Lanbide Heziketako Euskal Plan honen bitartez Eusko Legebiltzarrean, LHko Euskal Kontseiluaren aurrean eta herritarren aurrean hartu genuen konpromisoa betetzen dugu, eta ondo bete gainera. Planari esker datozen hiru urteetan garatu beharreko lana planifikatuta dugu, oinarri sendoekin eta aho batez hartutako erabakiei esker. Eta hori guztia elkarrekin egindako lan eredugarriaren ondorio da. Bidaia-orri egokia dugu eta hori jarraitzeko erabakia hartu dugu. Gure ingurune hurbilenean LH eredugarria genuen eta orain Europan eredugarri izatea nahi dugu, gure esfortzuari, sormenari eta herri-handinahiari esker. Europako eskualde garatuenekin erronka komunak ditugu, kalitate-enplegua, aldaketa demografikoak, lehiakortasuna, klima-aldaketa, segurtasuna, eta abar. Horregatik konpromisoak partekatu ditugu eta datorren hamarkadarako helburu komunak finkatu ditugu. Gainera, hezkuntza eta prestakuntzako europar estrategia lantzen agente aktiboak izan gara eta izaten jarraituko dugu.

III. Lanbide Heziketako Euskal Plan hau lantzean ondo frogatutako gertakaria izan dugu kontuan: lanbide-heziketa egokia da gero eta gehiago aldatzen ari den eta zorrotzago bihurtzen ari den lan-merkatuan sartzeko, mantentzeko eta berriz laneratzeko modu aproposena. Horrela etengabeko prestakuntza aldi berean beharra eta aukera-iturri ere bada. Hala ere, horretarako ekintza eta politika publikoak koordinatu eta bateratu behar dira prestakuntzaren eta enpleguaren arteko mugak kentzeko, bien arteko zubia indartuz. Gainera, guztien laguntzarekin lanbide heziketako benetako sistema integratua eraiki behar da: hots, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Enplegu Sailen, gizarte-eragileen eta lanbide-heziketako ikastetxe eta entitateen laguntzarekin.

Lanbide-heziketan esku hartzen duten agenteen arteko lankidetza-printzipioaz gain, Eusko Jaurlaritzaren plan honetan haren edukia betetzen duten indarrean dauden beste hiru printzipio eta ideia antzematen dira. Jakin badakigu inbertsio errentagarriena herritarren hezkuntzan eta prestakuntzan egindakoa dela; prestakuntzak bizitza osoa iraun behar duela, segur aski gure laneko bizitzan aurre egin beharko dizkiegun aldaketei aurre egiteko; eta badakigu horretarako lanbide heziketako sistema integratua behar dugula.

Horregatik, inplikatu guztien artean komunikatzeko funtzionamendua osatu dugu lantokiak prestakuntza-leku izateko. Aldi berean, lanbide-heziketako ikastetxeak enplegurako leku bihurtzen diren bitartean, enpresaburuen eta langileen parte-hartzea antolatu dugu, ekonomia lehiakorra eta kalitatezko enplegua lortzeko produkzio-sistemaren zein bertako giza kapitalaren eskaerak eta beharrak kontuan hartzeko.

Horrek duen garrantziaz jabetuta, garai berri eta ilusioz betea hasten dugu. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Enplegu eta Gizarte Gaien Sailak orain arte ez zituzten inoiz euren indarrak orain bezala bateratu, lankidetza adimentsuan eta arduratsuan oinarritutako egiteko modu berri baten oinarriak ezarriko dituen lanbide-heziketako plana euskal gizartearen esku jartzeko.

Plan honekin etorkizunari aurrea hartzen diogu etorkizuna orainaldi bihurtzean guztia prest edukitzeko. Agian ez da bide samurra izango, baina badakizkigun zailtasunak gainditzeko ezagutza eta gaitasuna ditugu. Halaber, bidean aurkituko ditugun zailtasunak ere gainditzeko prest egongo gara.

Era berean, euskal Lanbide Heziketaren modernizazioan aurrera egiten dugu. Modernizazio honek gure produkzio-ehunaren modernizazioaren parean joan behar du, Euskadi Europako eta nazioarteko ekonomiaren kontzertuaren muturrean ipintzeko eta, horrela, gizarte integratuagoa, iraunkorragoa eta solidarioagoa eraiki ahal izateko.

Azkenik, gure erantzukizuna kontuan hartuta, herri gisa herritarrei –batez ere gazteei– etorkizunean garapen pertsonala eta profesionala izango dutenaren konfiantza eta itxaropena itzultzeko dugun beharra azpimarratu nahi dugu.

Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu plan hau aurrera ateratzen ahalbidetu duten pertsona eta erakunde guztiei, III. Lanbide Heziketako Euskal Plan honek Euskadi prestakuntzaren abangoardian jartzeko grina duelako, hori baita guztien lanarekin herriaren alde egiteko modu egokiena.

**Isabel Celaá - Gemma Zabaleta**

# Hitzaurrea

2009ko urrian, LHko Euskal Kontseiluaren lehendakaritzak jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritzak III. LHko Euskal Plana abian jartzeko asmoa zuela. Orduz geroztik, eta plana bera lantzen hasi aurretik, bidezko gogoeta-aldiari eman zitzaion hasieran. 2010eko maiatzean hasi ziren II. LHko Euskal Planaren balantzea egiteko lan-saioak (2007an amaitu zen plan horren indarraldia). Halaber, plan berriaren egitura finkatu zen, eta lan-metodoa eta dagokion kronograma adostu zen. Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluko kide guztiek eta ordezkatuta dauden organismoetako kide guztiek egindako lanaren emaitza da III. Lanbide Heziketako Euskal Plana.

Aditzera eman behar da III. Lanbide Heziketako Euskal Planak gauzatu egin dituela Hezkuntza Sailak eta Lan eta Gizarte Gaietako Sailak lanbide-heziketaren arloan dituzten ildo estrategiko eta jardun-ildo nagusiak, eta plana bat datorrela Eusko Jaurlaritzaren gainerako planekin eta Eusko Jaurlaritzaren estrategiarekin berarekin.

Dokumentu honen edukiak eskema klasiko bati jarraitzen dio, eta, dokumentu erabilgarria den aldetik, **dokumentu bizi** baten formatua hartzen du, landu zenean aintzat hartu ziren beharren araberakoa.

Dokumentura hurbilduko den pertsona oro dokumentua modurik erabilgarrienean irakurtzeko gauza izatea lortu nahi dugu. Hasieratik amaierara arte irakurtzeko diseinatu dugu dokumentua, baina norberaren interesguneen edo arduren araberako irakurketa hautakorra egin ahal izateko moduan ere egituratu dugu.

Beste askok bezalaxe, dokumentu honek askotariko materialen laguntza du; txostenak, dokumentuak, azterlanak eta abar ez ezik, atarietarako edo web-orrietarako estekak ere erabili dira. Material horiei guztiei esker, pertsonen, entitateen eta antolakundeen ekarpenak eskaintzen zaizkie orri hauetan bildu diren argudioei. Azken eranskinerako utzi beharrean, erreferentzia horiek dokumentuaren barruan topatu ahal izatearen aldeko hauta egin da. Horrela, zenbait alderditan gehiago sakondu ahal izango da, interesen eta beharren arabera.

**Lehen multzoan**, Euskadiko ekonomia-jardueraren datozen urteetarako testuingurua finkatzen duten eta, haien munta kontuan izanik, jarraitu beharreko ibilbidea zehazten duten **elementurik adierazgarrienei** buruzko aurretiazko irizpideak bildu dira.

**Bigarren zatian**, Lanbide Heziketa berriaren **gaur egungo panorama** aztertu da.

Gauzak horrela, lortu den ikuspegiarekin eta aurrean ditugun erronkak argi kokatuta, **hirugarren multzoak lanbide-heziketarako diseinatutako estrategia jaso du**, baita helburuak lortzeko abian jarriko diren neurri nagusiak ere.

Azken bi multzoak, berriz, **planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko metodoari eta plana eusten duen aurrekontuari** zuzenduko zaizkie.

Argitasuna bilatu nahi izan da, eta, horrenbestez, dokumentuan azaleko elementuak egotea saihestu da. Laburra eta apaindurarik gabea egiten saiatu da. Plana osatzen duten elementu guztiek funtzio bat betetzen dute, eta txirikordatuta daude, osotasunak koherentzia handia izan dezan. Beste modu batean esanda, badakigu zer, nola eta zergatik egin behar den, eta badakigu zer bitarteko baliatu behar dugun behar bezala gauzatzeko.

Hortaz, lehen multzoarekin hasteko, multzo horretako alderdiak baliagarritasun urriko beharrezko sarreratzat ez jotzea proposatzen da. Aitzitik, egoera konplexuaren ezaugarriak eta datuak bildu dira, baita egoera horri aurre egiteko diseinatu diren estrategiak ere. Diagnostikoa osatzen duten atal guztiak dira garrantzizkoak eta ezinbestekoa da oso kontuan hartzea. Guztiek dute eragina lanbide-heziketan eta erreferentzia izan dira Eusko Jaurlaritzak arlo horretan finkatutako jardun-ildoak lantzeko garaian.

**Dokumentu bizia** da etengabe eguneratzen den dokumentua eta, hala, dagokion kontzeptuan gertatzen diren aldaketak islatuko dituena. Oro har, bilakaeran dagoen sistema konplexua deskribatzen duten dokumentuak dira, eta, sistema ulertzeko beharrezkoak direnez gero, nahitaez izan beharko dira eguneratuta.



Ildo horretan, egindako analisiaren eta gogoetaren ondoren, nabarmendu behar da Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluko kide guztiak bat datozela: **egoera zail batean** gaude eta egongo gara. Azken bi urte hauetan agerian geratu dira aldaketa sakon batzuen ondorioak, eta horrek erantzun egokia ematea eskatzen du. Beste erantzun batzuk eman beharko dira. Xedea ez da ez da aurreko egoerara itzultzea, planteatutako erronkei arrakastaz aurre egiteko beste baldintza batzuk sortzea baizik. Horrenbestez, krisialdiaren aurkako borrokan Eusko Jaurlaritzaren eta euskal erakundeen politika **indartzen lagunduko du plan honek. Hiritarren bizimodua hobetzeko herrialde lehiakorra eratzen lagunduko du**.

Arauzko esparruari eta lanbide-heziketa berriaren panoramari dagokion multzoa ere laburtu nahi izan da. Aditzera eman daiteke Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak kezka handia duela arlo horretan, azken urteotan **oso aldaketa handiak gertatu baitira lanbide-heziketan eta, hala ere, aldaketa horiek oraindik oso ezezagunak baitira, oro har.** Esparru berri horrek eta lanbide-heziketak izan duen garapenak berak eskaintzen dituen aukerak ahulduta daude jada gaindituta dauden eskemak irautearen ondorioz. Lanbide-heziketa berriak hasierako prestakuntza eta lanerako prestakuntza hartzen du barnean, lanbide-kualifikazioak ditu erreferente komun gisa, eta eskakizun berriekin bat datozen irakasleak behar ditu: ez dago batxilergoekin edo unibertsitatearekin lehian, horiekin osatzen da; pertsonak birkualifikatzeko beharra, enpresen prestakuntza-beharra eta abar asetzearen alde egiten du.

Hirugarren multzoa trinkoa da, eduki handikoa baina ondo egituratua. Estrategia eta ekintza egituratzen duen ikuspegiak baditu berrikuntzak. Batetik, lanbide-heziketa modernizatzeko ardatzak hartzen ditu kontuan eta Europako estrategiaren arabera antolatzen da. Bestetik, neurri horietako bakoitza eta neurri horiekin lotzen diren jardun-ildoak lotzen ditu. Horrela, ohiko arazo bat gainditzen da: neurrien arteko loturaren eta koherentziaren gabezia; izatez, jardun-ildo bat baino gehiago garatzen dituzten arren, jardun-ildo bakar batekin lotuta landu izan dira. Hori dela eta, bide paraleloak sortu dira, askotan disfuntzioak eta kontraesanak eragin dituztenak.

Azken bi multzoak ezinbestekoak dira planaren edukia modu garden eta ebaluagarrian gauzatzeko, eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak aurreko jardunetan adierazitako arazoak zuzentzen ditu.

Azken finean, III. Lanbide Heziketako Euskal Plan honi esker, **lanbide-heziketa modernizatzea eta gizartearen eskakizunetara egokitzea sustatuko dugu**. Lan kolektibo luze baten emaitza bada ere, eta, hemendik aurrera, funtsezko erronka jardutea bada ere, arlo horretan agintea eta iritzia duten organismoekin eta pertsonekin batera gogoeta egiten jarraituko dugu –organismo eta pertsona horiek edonongoak direlarik ere–. Jakina, gure gogoetari ere jarraipena emango diogu, eta gure iritziak eta gure hurbileko ingurunean bertan sortzen diren iritziak trukatuko ditugu. Badakigu zer nahi dugun, badakigu zer norabide hartu behar dugun eta zer bitarteko behar dugun hori lortzeko. Gainera, erakunde eta gizarte-eragile guztiekin partekatu eta elkarlanean jardun nahi dugu egitekoa gauzatzeko. **III. Lanbide Heziketako Euskal Plana funtsezkoa izatea eta lanbide-heziketa berria herrialdeko marka adierazgarria izatea** espero dugu.

Consejo Vasco de
Formación Profesional

Lanbide Heziketako
Euskal Kontseilua

III. Lanbide Heziketako Euskal Plan honi esker, lanbide-heziketa modernizatzea eta gizartearen eskakizunetara egokitzea sustatuko dugu.

# Sarrera

Duela bi hamarkadatik hona, lanbide-heziketa zenbait aldaketa-prozesutan dago murgilduta. Haatik, 2002. urtean kualifikazioen eta lanbide -heziketaren Lege Organikoa argitara eman zenez geroztik, "lanbide-heziketa berriaren" oinarriak finkatu direla esan daiteke. Lege horretan, lanbide-kualifikazioaren kontzeptua jasotzen da, eta Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionala sortzen da. Dokumentu honetan aditzera emango diren zenbait aldaketa handiren artean, Lanbide Heziketak herrialdearen lehiakortasunaren faktore kritiko gisa duen garrantzia onartu da, eta, horrenbestez, Lanbide Heziketak bete duen egitekoan aurrerako jauzia egiteko beharra hartu da aintzat. Denbora luzez, Lanbide Heziketa lan-merkatuaren nolabaiteko berehalako beharrei erantzuteaz arduratu da, eta askotan egoeraren joan-etorrien mende izan da. Mendearen aldaketarekin batera, gobernu-politiken plangintza estrategikoaren parte izan behar duela egiaztatu da. Ez dago enpresa-jarduera, planifikatutako ekintzak edo garrantzizko proiektuak garatzerik, baldin eta ez badago horretarako kualifikatutako giza baliabiderik. Know How terminoak lanbide-heziketan du zentzu osoa, esparruren batean baldin badu.

1994. urtean Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua eratu zen, eta 1997. urtean I. Lanbide Heziketako Euskal Plana onartu zen. Bertan, lanbide-heziketak jarraitu beharreko ildo nagusiak zirriborratu ziren. Eusko Jaurlaritzako hiru Sailek hartu zuten parte.

II. Lanbide Heziketako Euskal Planak 2004 eta 2007 arteko aldia hartu zuen.

Planean finkatu ziren helburuen izaera orokorraren ondorioz, eta lortu nahi ziren emaitzak behar bezala finkatu ez izanaren eraginez, oso zaila izan zen planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.



***Mª José Madariaga Rola***
*Lanbide Heziketako zuzendaria*



***J. Carlos Crespo Velasco***
*Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea*

Dokumentu honetan, berriz, labur-labur aditzera emango dira eta iruzkinduko dira III. Lanbide Heziketako Euskal Plan honen erreferentziako testuingurua ezaugarritzen duten zenbait alderdi. Haien garrantziagatik erabakigarriak direnak hautatu dira, baita, sektorialagoak diren arren, Euskadiko lanbide-heziketaren plangintzan zuzeneko eragina dutenak ere.

Era berean, hainbat datu objektibo aztertuko dira, eta haien zorroztasunagatik eta gaurkotasunagatik interesgarriak diren hainbat txosten izango dira aintzat III. Lanbide Heziketako Euskal Plana eutsiko duten oinarriak finkatzeko. Planak subjektibotasunak eta bat-batekotasunak saihestu nahi ditu, eta, positiboan, Eusko Jaurlaritzaren Euskadi 2013 Estrategiari ekarpen adierazgarria egin nahi dio.

Plana osatzen duten elementu guztietatik, elementu asko aurretik garatzen ziren jardun-ildoen eguneratzea eta jarraipena baino ez dira; alabaina, beste batzuk norabidea aldatzea ekarriko dute, batzuetan beste erronka batzuei erantzun ahal izateko, eta, beste batzuetan, III. Lanbide Heziketako Euskal Planaren aurreko planen eta politiken balantzearen emaitza gisa.

2013an III. Lanbide Heziketako Euskal Planaren ebaluazioa egitean, abiarazitako bidea egiaztatu ahal izango da, eta proposatutako jardunak funtsean eta forman zuzenak izan diren ebaluatu ahal izango da.

Jakin badakigu Europar Batasunaren osotasunak joan den hamarkadan esparru sendoa ezarri zuela hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko elkarlanerako, eta lanbide-heziketa berria eraikitzeko prozesuan murgilduta dago (Kopenhage 2002 prozesua). Eredu moderno bat ari da diseinatzen, eta horretarako garrantzitsua da erreferentziak hautatzeko eta erabakiak hartzeko garaian asmatzea. Euskadiko Lanbide Heziketak berak erreferente izaten jarraitu nahi du, bere jardunbide onari esker.

Kopenhageko prozesuaren bilakaera bi urtetik behin berraztertu da: Maastrichten (2004), Helsinkin (2006), Bordelen (2008) eta, azkenik, Brujasen (2010). Bilkura bakoitzean, lanbide-heziketan eskumena duten ministerioetako arduradunek babestu egin zituzten hurrengo fasean jarraitu beharreko lehentasunak finkatzen zituzten idatzi estrategikoak. Azken bilkura horretan, ordura arte lortutako aurrerapenak aztertu ziren, epe luzerako helburuak ezarri ziren eta epe laburrerako (2014. urterako) emaitzak lortzeko beharra erabaki zen.

Erabilgarria izango da Europar Batasunaren osotasunean eta, zehazki, gurean azken urte hauetan izandako aurrerapenek espero zen gogobetetze-maila duten egiaztatzea. Horrez gain, aldi horretan bertan Bizialdi Osoko Ikaskuntzaren Legea eta Enpleguaren Euskal Legea jarri dira abian. Azken lege horren xedea da euskal erakunde publikoetako enpleguaren arloko ekintzak antolatzea eta enplegu-politikak planifikatzeko, gauzatzeko eta koordinatzeko beharrezko tresnak definitzea.

Bestalde, Bizialdi Osoko Ikaskuntzaren Legeak ikaskuntza hori euskal hiritarren eskubide gisa jasotzen du, eta eskubide hori gauzatu ahal izateko tresnak ezartzen ditu.

Amaitzeko, nabarmendu behar da III. Lanbide Heziketako Euskal Planak erronka propioak eta erronka partekatuak dituela, eta, haien indarraldia 2013an amaitzen bada ere, hurrengo hamarkadaren osotasunera ere begiratzen duela. III. Lanbide Heziketako Euskal Plana orainari aurre egiteko eta etorkizuneko estrategian laguntzeko diseinatu da. Inplikatutako eragile guztien arteko adostasun zabal eta elkarlan estua abiapuntu egokia izan daiteke arrakasta komuna lortzen ahalegintzeko.

Lanbide-heziketako sistema integratua osatzea eta finkatzea da III. Lanbide Heziketako Euskal Plan honen xedeetako bat.



III. Lanbide Heziketako Euskal Plana

*LH berria, herri-marka*

# I. multzoa

I. multzoa

1. Erreferentziazko testuingurua ................ 14
2. Beste eskakizun batzuk ........................... 24
3. Estrategia komuna .................................. 43
4. Ekonomia iraunkorra ............................... 44

# 1. Erreferentziako testuingurua. Elementu adierazgarriak

## 1.1. Ekonomiaren globalizazioa

Globalitatearen aroan konfiguratzen da benetako mundu-mailako gizartea.

"Internazionalizazioa", "globalizazioa", "mundializazioa", beraz, ekonomiaren mugak gainditzen dituen prozesu zahar baten estadio berria izendatzeko erabiltzen ditugun kontzeptuak dira: munduko eskualdeen arteko eta horien emaitza desberdinen arteko topaketa historikoa.

XIX. mendetik (edo lehenagotik) gaur egunera arte internazionalizazio-prozesuetan jarraipen-elementuak hauteman badaitezke ere, gaur egun eten historiko handi baten lekuko gara: laurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik soilik bizi dugu "benetako ekonomia globala, denbora errealean eta mundu-mailan unitate baten gisara funtzionatzeko ahalmena izango duena". Dena den, praktikan, ekonomia global hori finantza-merkatuei dagokienez soilik da posible, eta, oraingoz, ez da inola ere posible lan, ondasun eta zerbitzuen merkatuan edo zientziarekin eta teknologiarekin lotzen diren alderdietan. Esparru horietan berehalakotasun hori ez izanagatik, fenomeno horrek geldiezina ematen du.




Historian lehen aldiz, informazioaren teknologia berrien garapenak lehen sakabanatuta zeuden edo gaizki komunikatuta zeuden udaletako, probintzietako, eskualdeetako eta nazioetako ekonomiak ozeano ekonomiko global bakarrean lotzeko aukera ematen ari dira.

Eskerrik zintzoenak Imanol Zuberori, bere argitarapenetako batzuk erabiltzeko baimena emateagatik.



## 1.2. Enpresen internazionalizazioa

Barne-merkatuen osatze-etaparen bereizgarria den eskala nazionaleko kapital-metaketa gainditu duen agertoki bihurtu da munduko ekonomia kapitalista. Mundu-mailako metatze horrek eragileen artean harreman modu jakin bat garatzea dakar, eta enpresa transnazionalen jarduna eragin du –horien jardunaren inguruan internazionalizatzen da ekonomia–. Internazionalizazioak ageriko eragina du nazioarteko merkataritzan, kapitalen esportazioan, atzerriko zuzeneko inbertsioaren hedapenean –herrialdeen arteko moneta- eta finantza -lotura handi batekin batera–, eta produkzio-kapitalaren zikloan –kapital-errentagarritasun handiagoak bilatzera begira, produkzio-prozesuak zatikatzeko aukeran oinarritzen da ziklo hori–.

Informazioaren teknologiaren bidez lotuta daude tokiko espazio ekonomiko guztiak espazio global handi baten inguruan. Enpresa transnazionalak dira elkarrekiko lotura horren eragile nagusiak. Oso enpresa mugikorrak dira, sare-itxurako egitura dutenak. Munduko hainbat herrialdetan eta eskualdetan barreiatuta dituzten lantokiez osatuta daude, eta lantoki horiek guztiak elkarren artean artikulatuta daude, errentagarritasuneko eta produktibitateko irizpideei erantzuteko.

Espazio sozial transnazionalek ezabatu egiten dute ekonomia-jardueraren eta espazio nazionalaren arteko lotura, "lanik gabeko kapitalismoa gehi zergarik gabeko kapitalismoa". Globalizazio-prozesuak eskaintzen dituen aukeren artean dago lanpostuak esportatzekoa, hau da, lan-kostuak eta zerga-kargak txikiagoak diren tokietara eramatea lanpostuak.

## 1.3. Ekonomia- eta finantza-krisialdia

2007an hasi zen ekonomia- eta finantza-krisialdiak gogor jo zuen hurrengo urtean. Krisialdi horrek areagotu egin du munduko ekonomiaren etorkizunaren gaineko ziurgabetasuna. Hori dela eta, enplegu asko galdu da, eta balizko produkzioak nabarmen egin du behera. Horrek, arras narriatu ditu finantza publikoak, eta modu gordinean utzi ditu agerian hainbat gabezia. Egoeraren araberako izaera duten batzuk leheneratzen ari direla ematen du, baina nolabaiteko urrakortasuneko zantzuekin. Dena dela, egiturazko gabezietan zuzenketak ezartzea egiteko zaila da –"hondoko" neurriak hartzea eskatuko du–, eta denborarik galdu gabe ekin beharko zaio egiteko horri.

Adierazle ekonomikorik klasikoenek ematen dizkiguten datuak oso adierazgarriak dira, krisialdi luze eta sakona da. Haatik, krisialdi horren kausen azterketak egiaztatu du aldaketa sakonak egin behar direla hainbat esparrutan. Aldaketa horiek arrakastaz gauzatzea da ekonomia iraunkorraren erronka; izatez, ekonomia iraunkorraren helburua da ekonomiaren garapen eta hazkunde iraunkorragoko eredu baterako oinarriak finkatzea. Haren diseinuan eta gauzatzeko lanetan asmatzearen mende egongo da krisialditik irtetea.

2007ko egoera berriro sortzea ondorio kalkulaezineko errorea litzateke.

## 1.4. Energia-krisialdia

Energia krisialdiak egiturazko izaera du, eta honako hauek dira krisialdi horren eragile nagusiak: munduan gero eta handiagoa den energiaren eskaera; erregai fosilen erabilera orokortuaren mugak eta arazoak (klima-aldaketa, hirugarren batzuekiko mendetasuna...); eta energia berriztagarrien garapen teknologiko urria.

Europar Batasuneko Batzordeak 2010eko azaroan energia lehiakor, iraunkor eta segururako estrategia berria aurkeztu zuen. 'Energia 2020' deritzan komunikazioak finkatu zituen hurrengo hamar urteetarako energiaren arloko lehentasunak eta datozkigun erronkei aurre egiteko egin beharreko jardunak. Erronka horien artean daude: energia aurreztea, prezio lehiakorrak eskainiko dituen merkatua lortzea, eta, aldi berean, gidaritza teknologikoa sustatzea.

Euskadin energia primarioaren sorrera energia berriztagarrietan datza. 2009. urtean 399 ktep izan ziren, hau da, energia-eskariaren % 5,5. Euskadik, beraz, kanpoko energiaren % 94,5eko mendetasun energetikoa du.

Gure energia-sistemari orientabide iraunkorragoa eta seguruagoa eman beharko zaio, eta horrek denbora luzea eska dezake. Nolanahi ere, orain asmo handiko erabakiak hartu beharko dira. Günther Oettinger Europako Batzordeko energia-komisarioaren arabera, ekonomia eraginkorra, lehiakorra eta karbono-emisio txikikoa lortuko bada, Europar Batasunaren jardunak garrantzizko lehentasun kopuru txiki batean oinarritu beharko du:

**4 a) Energia aurreztea**

Batzordeak energia aurrezteko aukera gehien ematen duten bi sektoreetan oinarritu nahi ditu ekimenak: garraioan eta eraikinetan. Batzordeak inbertsiorako pizgarriak eta finantza -tresna berritzaileak proposatuko ditu, 2011ko erdira arte, etxebizitzetako jabeei eta tokiko erakundeei berritze-lanak finantzatzen laguntzeko eta energia aurreztera zuzentzen diren neurriak hartzen laguntzeko. Sektore publikoak energia-eraginkortasuna hartu beharko du aintzat obrak esleitzeko garaian edo zerbitzuak edo produktuak eskuratzeko garaian. Industria-sektorean, energia eraginkortasuneko ziurtagiriak pizgarria izan daitezke, enpresek teknologian inbertitzeko eta energia gutxiago kontsumitzeko.

**4 b) Energiaren merkatu paneuroparra, integratua eta azpiegiturekin hornitua**

Batzordeak energiaren barne-merkatua gauzatzeko mugaeguna finkatu du. 2015era bitartean, Batasuneko kide den Estatu orok egon beharko du barnean. Datozen hamar urteetan, bilioi bat euro inguruko inbertsio globalak egingo ditu Europar Batasunak energia-azpiegituretan. Europar Batasuneko proiektu estrategiko nagusiak arintzeko, Batzordeak obra-lizentzien emakida sinpleagotu eta arindu egin nahi du, eta gehieneko epea ezarri du Europar Batasunaren azken baimenerako eta finantzaketarako.

**4 c) 27 Estatuetako energia-politikaren koordinazioa**

Europar Batasunak energia-politika hirugarren herrialde batzuekin eta, batez ere, bere bazkiderik garrantzitsuenekin koordinatzea proposatzen da. Europako auzotasun-politikaren esparruan, Batzordeak Energiaren Erkidegoaren Ituna zabaltzea eta sakontzea proposatzen du, Europar Batasunaren energiaren merkatuan parte hartu nahi duten herrialdeak are gehiago barnean hartzeko. Halaber, Afrikarekiko lankidetza areagotzea aurreikusi da, kontinente horretako hiritar guztiei energia iraunkorra hornitzeko asmoz.

**4d) Europaren lidergoa energia-teknologiaren eta -berrikuntzaren arloan**

Munta handiko lau proiektu jarriko dira abian Europaren lehiakortasunerako garrantzizkoak diren sektoreetan, hala nola elektrizitatea biltegiratzeko eta sare adimendunetarako teknologia berriak, bigarren belaunaldiko biokarburanteei buruzko ikerketa eta hiri adimendunen elkarketa, hiri-zonetan energiaren aurrezpena sustatzeko.

**4 e) Energia segurua eta eskuragarria, kontsumitzaile aktiboen bitartez**

Batzordeak beste neurri batzuk proposatu ditu prezioak alderatzearen, hornitzailea aldatzearen eta fakturazio argia eta gardena egitearen arloan.




2011_energy2020_en.pdf


World's Liquid Fuels Supply
Million Barrels per Day
0
10
20
30
40
50
60
70
80
90
100
110
2008
2010
2012
2014
2016
2018
2020
2022
2024
2026
2028
2030
Unidentified Projects
43
Non-Petroleum Unconventional Liquids
Non-OPEC Unconventional Petroleum Projects
Non-OPEC Unconventional Petroleum Liquids
OPEC Unconventional Petroleum Liquids
Non-OPEC Conventional Projects
OPEC Conventional Projects
Non-OPEC Existing Conventional
OPEC Existing Conventional
AEO2009 Reference Total Consumption
Source EIA, AEO2009



S. Wright - Rain Dance

## 1.5. Demografia

**EUSTATen demografia-proiekzioak**

EUSTATek egindako eta 2009ko martxoan argitara emandako demografia-proiekzioaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria 69.156 pertsonatan gehituko da 2008 eta 2020 artean (% 3,2). Gehikuntza hori batez ere migrazio-saldoaren ondoriozkoa izango da.

EUSTATek landutako 2020rako proiekzio demografikoen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak 2020. urtean 2.232,1 mila biztanle izango ditu, eta horietatik 1.089,1 mila gizonezkoak izango dira (% 48,8) eta, gainerakoa, 1.143 mila emakumezkoak izango dira (% 51,2). Hazkundea lehen urteetan metatuko da, eta epe ertainera begira hazkundea moteldu egingo da. Proiektatutako aldiaren amaieran, ordea, biztanleriaren hazkunde nulua gertatuko da.

i

Eustat

→ http://eu.eustat.es/ci_ci/estadisticas/tema_47/opt_1/tipo_1/ti_Demografi_proiekzioak/temas.html#axzz1VM80alEL

*1. grafikoa.* **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren piramideak, 2005-2020**




*1. taula.* **Biztanleriaren urtez urteko bilakaera, lurralde historikoen eta sexuaren arabera**

| Urteak | Euskal Autonomia Erkidegoa | | | Araba | | | Bizkaia | | | Gipuzkoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Gizonez. | Emaku. | Guztira | Gizonez. | Emaku. | Guztira | Gizonez. | Emaku. | Guztira | Gizonez. | Emaku. |
| 1975 | 2.071,8 | 1.026,7 | 1.045,1 | 237,4 | 119,2 | 118,2 | 1.154,8 | 570,0 | 584,7 | 679,7 | 337,5 | 342,2 |
| 1980 | 2.141,4 | 1.061,6 | 1.079,8 | 257,3 | 129,2 | 128,1 | 1.189,2 | 587,6 | 601,6 | 694,9 | 344,8 | 350,1 |
| 1985 | 2.142,0 | 1.056,9 | 1.085,1 | 268,3 | 134,2 | 134,1 | 1.182,4 | 581,7 | 600,7 | 691,3 | 341,0 | 350,3 |
| 1990 | 2.104,8 | 1.034,5 | 1.070,4 | 272,4 | 135,6 | 136,8 | 1.156,0 | 566,0 | 590,0 | 676,4 | 332,8 | 343,6 |
| 1995 | 2099,1 | 1.027,5 | 1.071,6 | 281,3 | 139,6 | 141,7 | 1.141,3 | 555,9 | 585,4 | 676,5 | 331,9 | 344,5 |
| 2000 | 2.079,2 | 1.016,0 | 1.063,2 | 284,6 | 141,1 | 143,5 | 1.122,2 | 545,2 | 577,0 | 672,4 | 329,7 | 342,7 |
| 2005 | 2.115,4 | 1.033,4 | 1.082,0 | 301,8 | 150,2 | 151,6 | 1.127,3 | 546,3 | 581,0 | 686,3 | 336,9 | 349,4 |
| 2010 | 2.194,1 | 1.071,7 | 1.122,4 | 323,7 | 161,7 | 162,0 | 1.168,4 | 564,7 | 603,7 | 701,9 | 345,3 | 356,6 |
| 2015 | 2.225,5 | 1.086,3 | 1.139,2 | 335,9 | 167,7 | 168,2 | 1.181,1 | 569,6 | 611,5 | 708,5 | 349,1 | 359,5 |
| 2020 | 2.232,1 | 1.089,1 | 1.143,0 | 343,1 | 171,0 | 172,1 | 1.181,5 | 569,1 | 612,5 | 707,5 | 349,0 | 358,5 |

Lurraldeei erreparatuta, Arabak soilik eutsiko die hazkunde positiboko tasei proiekzioaren aldi osoan. Bestalde, Bizkaiko eta Gipuzkoako biztanleriek ere gora egingo dute, baina askoz ere erritmo txikiagoarekin. Haatik, adierazgarriena da azken bi herrialde horietan hazkundea negatiboa izango dela azken urteetan.

2. taula. **Biztanleriaren urtez urteko bilakaera (mila pertsonatan), adin-talde handien arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa 1975-2020**

**Biztanleriaren zahartze-prozesuak jarraitzen du**

20 urtetik beherako biztanleria Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria osoaren % 16,4 zen 2005. urtean, eta % 18,3 izango da 2020an. Hori dela eta, 2020. urtean 2005. urtean baino ia 61.000 gazte gehiago izango dira. Hortaz, hautsi egiten da biztanleriaren segmentu horren etengabeko beherakadako aurreko joera.

Dena dela, aldi horretan bertan nabarmen gehituko da 65 urteko edo urte gehiagoko biztanleria: 110.000 pertsona gehiago izango dira. Hori dela eta, adin-tarte horrek guztizko populazioan duen pisua areagotu egingo da, 2005ean % 18,5 zen eta 2020an % 22,5 izango da. Alabaina, gehikuntzarik handiena 85 urte edo urte gehiagoko pertsonen proportzioan gertatuko da, 2005ean guztizko biztanleriaren % 2 zen eta 2020an % 4,1 izango da, oso adin handiko biztanleria-segmentuaren hazkunde-erritmo handiagoaren ondorioz (urtean + % 5,31), betiere adineko biztanleriaren osotasunarekin alderatuta (urtean + % 1,66). Erritmo horrek 85 urte edo urte gehiagoko 50.000 pertsona baino gehiagoko gehikuntza absolutua dakar, hau da, 42.800 pertsonatik ia 93.000 pertsonara pasatzea 15 urtetan.

| Urteak | 0-19 | | 20-64 | | ≥65 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Abs. | % | Abs. | % | Abs. | % |
| 1975 | 754,1 | 36,4 | 1.146,6 | 55,3 | 171,2 | 8,3 |
| 1980 | 733,7 | 34,3 | 1.210,5 | 56,5 | 197,1 | 9,2 |
| 1985 | 646,0 | 30,2 | 1.274,4 | 59,5 | 221,7 | 10,3 |
| 1990 | 540,5 | 25,7 | 1.300,8 | 61,8 | 263,5 | 12,5 |
| 1995 | 439,2 | 20,9 | 1.342,2 | 63,9 | 317,8 | 15,1 |
| 2000 | 361,2 | 17,4 | 1.352,3 | 65,0 | 365,6 | 17,6 |
| 2005 | 346,6 | 16,4 | 1.377,3 | 65,1 | 391,5 | 18,5 |
| 2010 | 377,8 | 17,2 | 1.390,4 | 63,4 | 425,9 | 19,4 |
| 2015 | 401,1 | 18,0 | 1.357,9 | 61,0 | 466,5 | 21,0 |
| 2020 | 407,4 | 18,3 | 1.323,3 | 59,3 | 501,5 | 22,5 |

Bestalde, biztanleria "heldua", hots, 20 eta 64 urte artekoa, 54.000 pertsonatan murriztuko da 2005-2020 aldian. Adin-tarte horrek ehuneko ia 6 puntuko pisua galduko du denbora-tarte horretan (% 65,1etik % 59,3ra).

2. grafikoa. **Bizi-itxaropenaren bilakaera, sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa 1975-2020**




**Bizi-itxaropenak gora egiten jarraitzen du**

2020. urtean bizi-itxaropena 81,2 urtekoa izango da gizonezkoen kasuan eta 87,3 urtekoa emakumezkoen kasuan, eta 2005ean 77,1 urtekoa eta 84,6 urtekoa zen, hurrenez hurren.

**Ugalkortasuna leheneratuko da, jaiotzeen kopurua murriztuko da**

Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoen kopurua arras murriztuko da mendeko bigarren hamarkadatik aurrera. Murrizketa horren arrazoia da 25 eta 39 urte arteko emakumeen kopuruak behera egin izana. Izatez, adin horietan metatzen da guztizko ugalkortasunaren % 90, eta, hortaz, ugalkortasuna % 27 baino gehiago jaitsiko da: 2006. urtean 251.000 ziren eta 2020. urtean 181.000 izango dira, nahiz eta inmigrazioaren bitartez adin horietako biztanleria ere gaineratuko den.

*3. taula.* **Migrazio-saldoaren urtez urteko bilakaera, lurralde historikoen arabera. 1998-2020**

| Urteak | Euskal Auton. Erkidegoa | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| 1988 | -10.400 | 100 | -6.600 | -3.900 |
| 1990 | -4.900 | 700 | -4.000 | -1.600 |
| 1995 | -4.800 | 700 | -4.000 | -1.500 |
| 2000 | 2.500 | 1.500 | 800 | 200 |
| 2005 | 13.300 | 3.000 | 7. 700 | 2.600 |
| 2010 | 10.000 | 2.600 | 5.600 | 1.800 |
| 2015 | 4.800 | 1.400 | 2.700 | 700 |
| 2020 | 4 .100 | 1.200 | 2.300 | 600 |

**Migrazio-saldoa izango da biztanleriaren hazkunde-faktore nagusia**

Proiekzioaren aldian izango den biztanleriaren hazkundea migrazio-saldoaren ondoriozkoa izango da, batik bat. Izatez, hazkunde begetatiboa negatiboa izango da 2013. urteaz geroztik. Migrazio-saldoa, beti positiboa bada ere, gero eta txikiagoa izango da: 2007an 18.000 migratzaile baino gehiago eta 2020an 4.000 migratzaile baino gehixeago.

***Iturria: EUSTAT***

***Informazio gehiago nahi izanez gero:***

Euskal Estatistika-Erakundea
Donostia-San Sebastian kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Tlf:+34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01
E-mail: eustat@eustat.es
Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández
Tlf:+34-945-01 75 49 Fax:+34-945-01 75 01
Interneteko prentsa-oharrak: www.eustat.es



*3. grafikoa.* **2020KO DEMOGRAFIA PROIEKZIOAK**




Eremu urdina gehi grisa **2020**ko "piramidea" izango da

Eremu gorria gehi grisa **2006**ko "piramidea" izango da

Horrenbestez, eremu gorriak 2006ko datuekiko 2020ko defizita irudikatzen du, eta urdinak superabita.

*Iturria: EUSTAT.*

4. grafikoa. **2020KO DEMOGRAFIA PROIEKZIOAK**




Eremu gorriak 2006ko datuekiko 2020ko defizita irudikatzen du, eta urdinak superabita.

Biztanleria-piramidea terminoa modu teknikoan erabiltzen da, ez dator bat adinaren araberako biztanleria-egituraren formarekin. Bestalde, nabarmendu behar da piramidearen forma eredu gisa aldatzearen eta beste eredu baterantz jotzearen garrantzia. Beste eredu horretan biztanleriaren kopuruak egonkorragoak izango dira, eta bat etorriko dira eskura dauden baliabideen mugekin.

Eremu urdina gehi grisa **2020**ko "piramidea" izango da

Eremu gorria gehi grisa **2006**ko "piramidea" izango da

*Iturria: EUSTAT.*

# 2. Beste eskakizun batzuk

## 2.1. Kultura-aldaketa

Egoera aldakor horretarako erantzun arrakastatsuak artikulatzeko, ez da nahikoa gizarte-sektore ilustratu eta kontziente bat ingurunean gertatu diren aldaketara "egokitzea", benetako aldaketa behar da gizartearen sektore guztietan. Horrek guztiak zentzurik gabe uzten ditu iraganean mantendu diren jarreretako batzuk. Gizartearen sektore zabalen ustez, munduan dugun kokalekuak edo Europar Batasunaren parte izateak ematen digu munduko ekonomiaren barruan dugun lehiakortasuna eta, hortaz, ematen dizkigu ongizatea mantentzeko eta sendotzeko baliabideak. Edonola ere, jakin badakigu, gizarte bateko kide guztiek eta kide horietako bakoitzak haien jarduerari zer balio erantsi ematen dioten planteatzen duten kasuetan soilik, egongo direla gizarte horiek ondo prestatuta etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

Haatik, kultura-aldaketak honako alderdi hauek behar ditu:

**a)** Beste erreferente zehatz batzuk sortu beharko ditu, ibilbidea markatuko duten gida gisa.

**b)** Aldaketa-behar horren eredu izango diren neurriak.

**c)** Posible egingo duten bitartekoak.

Kasu batzuetan gertakarien errealitatea bera izango da egoera berrirako transmisio-bidea. Esate baterako, pertsona gazte eta kualifikatu gabeak prekarietate-etorkizuna izango du. Edo, era berean, ekintzailetza-programak garatu ahala eta enpresak eratzeko izapideak aldatu ahala, izpiritu ekintzailea eta sortzailea sustatuko da. Edo, zenbait gizarte-laguntza berariazko prestakuntza-programa jakin batzuekin lotzen badira, agerian geratuko da etengabeko prestakuntzaren beharra eta kontu publiko iraunkorren beharra.

*"Klima-aldaketa, lehen laguntza"*



*EL PAIS egunkariak argitaratua. 2009ko abenduaren 13a*

*elroto.elpais@gmail.com*

Hala ere, karbono-emisio gutxiago sortuko duen ekonomia desmaterializatuago baterantz egiteak, aldaketak ekarriko ditu maila askotan (legerian, produktuaren bizi-zikloaren diseinuan, material eta produkzio-prozesu berrietan, jardueraren arrastoaren ezagutzan...). Askotariko erreferente zehatzak behar izango dira, eta horietan herri-administrazioen inguruan sortzen den jarduerak ereduzkoa eta eredugarria izan beharko du. Beste horrenbeste gerta daiteke etxebizitza egokituetan mendeko pertsonen edo gaixo kronikoen arretarekin, pertsona monitorizatuen zaintzarekin...

III. Lanbide Heziketako Euskal Plan honen indarraldian zenbait prozesu abiaraziko dira: kontratazio publiko berdea, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko euskal legea, enplegurako euskal legea, bizialdi osoko ikaskuntzako legea... Prozesu horiek guztiak oso lagungarriak izango dira beharrezko kultura-aldaketa gertatzeko.

Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak "Karbonorik gabeko energiaren gizarte baterako hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko beharrak" gaiaren inguruan emandako irizpenak prestakuntzatik egin daitekeen ekarpena eman du aditzera.



Comité Económico y Social Europeo

**TEN/364**
**Necesidades en materia de educación y formación para una sociedad de la energía sin carbono**

Bruselas, 13 de mayo de 2009

**DICTAMEN**
del Comité Económico y Social Europeo
sobre el tema
**"Necesidades en materia de educación y formación para una sociedad de la energía sin carbono"**
(Dictamen exploratorio)

Ponente: **Edgardo Maria IOZIA**

TEN/364 - CESE 867/2009 IT/EN-EUS/JAS/MP/sz/cf/sz
Rue Belliard 99 - B-1040 Bruselas - Tel. +32 (0)2 546 90 11 - Fax +32 (0)2 513 48 93 - Internet http://www.eesc.europa.eu

ES



→ Hezkuntza eta Energia ebazpena.pdf




## 2.2. Aldaketen abiadurara egokitzea

Aldaketa handiak izateaz gain, orain arte ezagutu gabeko erritmo bizian gertatzen ari direla nabarmendu behar da. Hortaz, ematen du aldaketen bizitasuna izango dela bereizgarria.

Egoera horrek inplikazioak izango ditu, batetik, prestakuntza-eskaintzaren diseinuan, plangintzan eta malgutasunean, eta, bestetik, gizabanakoen eta enpresen prestakuntza-ibilbideen aukeraketan eta, jakina, pertsonek aldaketei erantzuteko izango duten ahalmenean.

Aldaketen abiaduraren ondorioen adibideetako bat ondoren aztertuko diren enpleagarritasunari buruzko datuek islatzen dute.

**Euskal Autonomia Erkidegoaren** esparruan, eta lanbide-arloen arabera, lan-munduratzeak behera egin zuen nabarmen 2008. urtetik aurrera.

*4. taula.* **Lanbide-arloko okupazio-tasa. 1999-2008ko LHko promozioak**

| | Okupazio-tasa | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **LANBIDE ARLOA** | 2008 | 2007 | 2006 | 2005 | 2004 | 2003 | 2002 | 2001 | 2000 | 1999 |
| NEKAZARITZA | % 64,7 | % 83,9 | % 75,8 | % 73,2 | % 79,7 | % 72,9 | % 62,5 | % 76,9 | % 77,0 | % 88,4 |
| ITSASOA ETA ARRANTZA | % 80,0 | % 71,4 | % 66,7 | % 71,4 | % 72,2 | % 100,0 | % 100,0 | | | |
| JARDUERA FISIKOAK - KIROLAK | % 82,1 | % 87,8 | % 84,8 | % 86,7 | % 85,4 | % 88,6 | % 90,4 | % 85,1 | % 72,0 | |
| ADMINISTRAZIOA | % 74,9 | % 86,6 | % 81,5 | % 83,9 | % 82,5 | % 75,5 | % 76,6 | % 74,7 | % 71,1 | % 68,9 |
| ARTE GRAFIKOAK | % 66,7 | % 84,9 | % 82,0 | % 77,1 | % 78,3 | % 78,5 | % 70,6 | % 75,5 | % 64,9 | % 68,6 |
| MERKATARITZA ETA MARKETINA | % 65,6 | % 86,4 | % 81,6 | % 82,5 | % 82,6 | % 76,5 | % 73,4 | % 77,6 | % 72,6 | % 75,5 |
| KOMUNIKAZIOA, IRUDIA ETA SOINUA | % 58,8 | % 81,1 | % 73,4 | % 70,8 | % 75,8 | % 64,0 | % 64,4 | % 73,6 | % 71,3 | % 65,9 |
| ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA | % 78,6 | % 94,0 | % 83,4 | % 85,7 | % 85,1 | % 82,2 | % 87,9 | % 86,5 | % 85,4 | % 94,1 |
| ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA | % 66,1 | % 90,9 | % 85,3 | % 85,7 | % 86,3 | % 83,4 | % 81,1 | % 88,4 | % 89,6 | % 84,3 |
| FABRIKAZIO MEKANIKOA | % 63,9 | % 92,8 | % 90,1 | % 86,2 | % 90,2 | % 87,4 | % 88,4 | % 91,8 | % 94,5 | % 90,5 |
| OSTALARITZA | % 68,2 | % 85,6 | % 89,1 | % 81,8 | % 87,1 | % 82,9 | % 86,2 | % 86,5 | % 83,9 | % 78,4 |
| TURISMOA | % 68,6 | % 89,3 | % 81,3 | % 82,2 | % 88,4 | % 82,5 | % 73,0 | % 76,4 | % 71,8 | % 57,1 |
| IRUDI PERTSONALA | % 74,6 | % 84,5 | % 85,6 | % 85,8 | % 86,9 | % 87,6 | % 84,6 | % 78,6 | % 73,4 | % 82,4 |
| ELIKAGAIEN INDUSTRIAK | % 66,7 | % 100,0 | % 100,0 | % 81,8 | % 90,9 | % 68,8 | % 80,8 | % 85,7 | % 66,7 | % 88,9 |
| INFORMATIKA | % 70,4 | % 83,1 | % 77,6 | % 70,6 | % 77,7 | % 72,8 | % 72,4 | % 82,0 | % 81,8 | % 75,0 |
| ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA | % 64,6 | % 83,8 | % 68,8 | % 82,7 | % 90,2 | % 75,0 | % 83,6 | % 83,1 | % 87,2 | % 82,7 |
| IBILGAILUAK MANTENTZEA | % 67,1 | % 87,7 | % 85,5 | % 85,2 | % 87,2 | % 88,7 | % 87,9 | % 90,4 | % 91,0 | % 93,8 |
| PRODUKZIO ZERB. MANTENTZEA | % 66,3 | % 91,7 | % 88,4 | % 87,0 | % 91,5 | % 86,4 | % 87,6 | % 92,0 | % 91,6 | % 93,0 |
| KIMIKA | % 66,7 | % 82,4 | % 74,8 | % 77,2 | % 76,6 | % 73,5 | % 75,4 | % 70,2 | % 66,2 | % 64,7 |
| OSASUNA | % 70,7 | % 80,7 | % 75,5 | % 72,1 | % 78,3 | % 78,6 | % 69,4 | % 70,8 | % 66,1 | % 55,8 |
| GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK | % 83,1 | % 88,2 | % 81,0 | % 80,2 | % 84,3 | % 82,4 | % 81,3 | % 75,0 | % 73,8 | % 70,6 |
| EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUG. | % 69,2 | % 72,7 | % 93,8 | % 80,0 | % 90,9 | % 53,8 | % 72,7 | % 68,8 | % 80,0 | % 66,7 |
| **PROMOZIOA GUZTIRA** | % 70,2 | % 87,6 | % 83,1 | % 81,7 | % 84,4 | % 80,8 | % 80,0 | % 82,7 | % 81,0 | % 79,0 |

Urtero xede horretarako egiten den inkestari erantzuten dioten pertsonen kopurua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta fidagarriagoa izango da emaitzazko datua. Datu gehiago eta erabilitako metodologia orri honetan kontsulta daiteke: **www.lanbide.net**

*Iturria: LHko lan-munduratzearen jarraipenari buruzko inkesta.*

*Nork egina: lan-merkatuaren behategia, Lanbide*

i

→ **www.lanbide.net**

5. grafikoa. **Enpleguaren pisua, lanbide arloen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa.**




| | 2008 | 2007 |
|---|---|---|
| FABRIKAZIO MEKANIKOA | % 83 | % 84 |
| NEKAZARITZA | % 83 | %73 |
| OSTALARITZA | % 82 | % 86 |
| IRUDI PERTSONALA | %81 | %81 |
| ELEKTRIZ. ETA ELEKTRONIKA | %81 | %81 |
| ADMINISTRAZIOA | % 81 | % 81 |
| GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK | % 80 | % 76 |
| PRODUKZIORAKO ZERB. MANT. | % 78 | % 80 |
| JARDUERA FISK. ETA KIROLA | %78 | % 69 |
| GUZTIRA | % 78 | % 77 |
| INFORMATIKA | % 76 | % 77 |
| MERKATAR. ETA MARKETINA | % 76 | % 78 |
| IBILGAILUAK MANTENTZEA | %75 | % 76 |
| OSASUNA | % 74 | % 64 |
| ARTE GRAFIKOAK | % 72 | % 62 |
| ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA | % 70 | % 90 |
| ZURGINTZA ETA ALTZ. | % 67 | % 77 |
| ELIKAGAIEN INDUSTRIA | % 67 | %50 |
| KOMU., IRUDIA ETA SOINUA | % 65 | % 69 |
| ITSASOA ETA ARRANTZA | % 63 | % 54 |
| EHUNG., JANTZIG. LARRUG. | % 60 | % 60 |
| TURISMOA | % 60 | % 71 |
| KIMIKA | % 57 | % 59 |

2008ko hasierako lanbide-prestakuntzako promozioan, emakumeen okupazio-tasa % 74,3koa izan zen eta gizonen okupazio-tasa % 66,6koa.

Aldaketa-prozesuaren barruan, aurreikus daiteke deskribatzen den egoera etengabe aldatzen joango dela datozen urteetan. Kontuan izan behar da, aldaketa prozesu horretan, beste lanbide-kualifikazio eta titulazio batzuk ari direla diseinatzen eta zenbait produkzio-sektore birmoldatze-prozesu handitan daudela murgilduta.

Erabilitako "enplegu adierazgarria"ren definizioa iturriari dagokiona da (ETEFIL-05): astean 20 ordu edo gehiagoko lana eta gutxienez 6 hilabetez.

*6. grafikoa.* **Autonomia Erkidego guztien osotasunean etorkizunik oparoena duten lanbideak.**

**TodoFP.es** atarian aditzera ematen denez, grafikak adierazten dituenak dira **autonomia-erkidego guztien** osotasunean etorkizunik oparoena duten lanbideak.




LANBIDE ARLOAK

| | |
|---|---|
| **FME:** | Fabrikazio mekanikoa |
| **EJL:** | Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza |
| **INF:** | Informatika |
| **PZM:** | Produkzio-zerbitzua eta mantentzea |
| **NEK:** | Nekazaritza |
| **ELE:** | Elektrizitatea eta elektronika |
| **AGA:** | Arte grafikoak |
| **IBM:** | Ibilgailuak mantentzea |
| **ADK:** | Administrazioa eta kudeaketa |
| **EOZ:** | Eraikuntza eta obra zibila |

| | |
|---|---|
| **MER:** | Merkataritza eta marketina |
| **IRP:** | Irudi pertsonala |
| **KIM:** | Kimika |
| **OST:** | Ostalaritza eta turismoa |
| **OSA:** | Osasuna |
| **KIS:** | Komunikazioa, irudia eta soinua |
| **GKZ:** | Gizarte- eta kultura-zerbitzuak |
| **JFK:** | Jarduera fisikoak eta kirola |
| **ELI:** | Elikagaien industriak |

*i*

Honako helbide honetan Lanbide Heziketako titulazioaren araberako enplegu-joerak kontsulta daitezke: redtrabaj@
www.redtrabaja.es

## 2.3. Bikaintasuna

Europak ahalegin handia egin beharko du produktibitatean eta ikerketa eta berrikuntzan. Langabeziak berriro atzera egin dezan lortzeko beharrezko hazkunde-gaitasunez zuzkitu beharko da berriro, orain dela gutxira arte garatzeko bidean ziren herrialdeen (Brasil, India, Txina) hazkunde handiarekin lehiatu ahal izateko edo Ameriketako Estatu Batuen hazkunde neurrizkoago baina iraunkorrarekin lehiatu ahal izateko. Alabaina, hori guztia iraunkortasunaren parametro berrien mende egin beharko du. Krisialditik ateratzeko eta gerta daitezkeen beste krisialdiei aurre egiteko edo gaur egungo krisialdiaren berrerortzeari aurre egiteko zutoinak eraikitzera zuzentzen den prozesu korapilatsu horretan, beste elementu bat ere hartu beharko da aintzat: bikaintasuna unibertsalizatzea.

Termino horri aplikatu ohi zaizkion interpretazio anitzen artean, interesgarria izan daiteke Adela Cortinak, Valentziako unibertsitateko etika eta filosofia politikoko katedradunak, proposatzen duena jasotzea: "Izatez, "bikaintasun" terminoa Homeroren poemetako Grezian sortu zen, mendebaldeko kulturari dagokionez bederen. Iliada edo Odisea irakurtzea oso gomendagarria da hautemateko bikaina edo bertutetsua den oro trebetasun jakin bat garatzeagatik nabarmentzen dela batez bestekoaren gainetik". Eta jarraitzen du: "bikaintasunak, jakina, esanahi konparatzailea du, zerbaitekiko izaten da bikaina. Dena dela, Homeroren garaian batez bestekoaren gainetik kokatzeak garrantzia zuen arren, gizarte demokratikoetako arrakastaren sekretua nork bere buruarekin lehiatzean datza, ez konformatzean, egunetik egunera norberaren gaitasunetatik onena ateratzean.

Horrek ahalegin handia eskatzen du –edozein biziproiekturen nahitaezko osagaia–. Norberaren onurarako ez ezik, norberarekin bizi direnen edo haiei esker bizi garenen onurarako ere egitean datza arrakastaren sekretua".

Amaitzeko, aditzera ematen du: "Bazterketarekiko alergikoa den hezkuntzak *(prestakuntzak gaineratzen dugu guk)* ezin du erdipurdikoen kopurua gehitu; aitzitik, bikaintasuna unibertsalizatu behar du".

Norbere buruarekin eta gainerakoekin alderatu ahal izateko, eta iparrorratzean bikaintasuna finkatuta, garrantzi handikoa da erreferentziako adierazleak ondo aukeratzea.

Ekonomiaren eta gizartearen arloko beste adierazle batzuk ikertzeko zeregina egiten duen lehena ez izan arren, **Stiglitz-en** (eta beste batzuen) **txostena** da Europar Batasunak nabarmendu duen erreferentzietako bat. Emaitza ekonomikoen eta gizarte-aurrerapenaren adierazle gisa barne-produktu gordinaren mugak finkatzeko egitekoa esleitu zitzaion, baita neurketaren inguruko arazoak berraztertzeko, gizarte-aurrerapenaren adierazle egokiak lortzeko beharrezkoak izan daitezkeen datu osagarriak identifikatzeko, neurketa-tresna berrien bideragarritasuna ebaluatzeko eta estatistika-datuen aurkezpen egokiaz eztabaidatzeko egitekoa ere.

2010eko maiatzean ikusmin handia eragin duen beste ekimen bat aurkeztu zen; Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen **gizarteen aurrerapena neurtzeari** buruzko nazioarteko proiektua.

Proiektu horretatik Europar Batasuna osatzen duten gizarteen moduko gizarte konplexuetarako baliagarriak izango diren ondorioak ateratzea espero da.

Adierazle klasikoen artean, balio erantsi gordina lanbide-heziketarako baliagarria dela onartzearen inguruan adostasun osoa dago Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen artean.





Informe de la Comisión sobre la Medición del Desarrollo Económico y del Progreso Social

Profesor Joseph E. Stiglitz, Presidente de la Comisión, Columbia University

Profesor Amartya Sen, Consejero de la Comisión, Harvard University

Profesor Jean-Paul Fitoussi, Coordinador de la Comisión, IEP

Comisión Stiglitz

www.stiglitz-sen-fitoussi.fr

Commission_Stiglitz_ES.pdf

Eskerrik zintzoenak Adela Cortinari, bere argitarapenetako batzuk erabiltzeko baimena emateagatik.

**www.progresosociedades.es**



**Modu globalean pentsatu, toki mailan jardun...**
**... eta tarteko mailetan,**
**eta Europako esparruetan,...**

## 2.4. Erreferenteen beharra

Deskribatzen denaren moduko paradigma-aldaketako egoera batean, garrantzi handikoa da erreferente argiak eta koherenteak izatea, nahiz eta batzuetan egoera konplexuagoak sortzen eta islatzen dituztelako konplexuagoak izan.

Erreferente berrien hautaketan asmatzeko erronka garrantzi handikoa da etorkizuneko erronkarako. Izatez, aldaketa sakoneko garai honetan ere, erreferente horiek sortzeko aukera dago; erreferente bihurtzeko aukera dago hobeto prestatuta dagoen esparruetan, edo etorkizunean hobeto prestatuta egongo den esparruetan, edo herrialde, produkzio-sektore eta abarretako behar estrategikoekin bat datozenetan.

Lanbide-heziketari dagokionez, CEDEFOP gisako organismoak daude edo Europar Batasuneko Eskualdeetako Lantaldea gisako erakundeak daude. Horien inguruan ari dira eratzen erreferentzia berriak eta ari dira politika berriak koordinatzen.

Eusko Jaurlaritzak modu aktiboan hartzen du parte eta egiten ditu ekarpenak organismo eta erakunde horietan. Hala gertatu zen, esate baterako, 2010eko abenduan Brujasen, hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan datorren hamarkadarako 45 ebazpen politikoak finkatu zituen dokumentuan.

### Balio erantsi gordina eta barne produktu gordina

Produkzio-unitate bati eskainitako unitate oso batek sortutako balioa edo balio erantsia da sistemaren saldorik garrantzitsuenetako bat. Produkzioaren eta tarteko kontsumoen artean dagoen alde gisa kalkulatzen da. Maila makroekonomikoan, herrialde bateko enpresa guztiek gaineratutako balioaren baturak sortzen du magnitudea.

Enpresa-ekonomian, enpresa baten balio erantsia enpresaren salmenten zenbatekoaren eta beste enpresa batzuei egindako erosketen arteko aldean datza –aldi horretan kapital finkoaren depreziazioa barnean hartu gabe–.

Adierazle horren erabilera oso hedatuta dago gure ingurunean, eta, horri esker, udalerrien, sektoreen edo autonomia-erkidegoen arteko konparazioak ere egin daitezke.

Oharra: balio erantsia kapital finkoko kontsumoa barnean hartuta edo barnean hartu gabe kalkula daiteke, hau da, gordina edo garbia. Produkzioa oinarrizko prezioetan kalkulatzen denez gero, eta tarteko kontsumoak eroste-prezioan baloratzen direnez gero, balio erantsiak ez ditu barnean hartzen zergak ken produktuen gaineko diru-laguntzak.

Energiaren sektorean aldaketa handiak ari dira gertatzen, eta, aldaketa horien eraginez, aukera handiak eta beste kualifikazio-behar batzuk ari dira sortzen.

Europar Batasunaren Batzordearen **"Gaitasun berriak, enplegu berrietarako"** dokumentua erreferentzia argia da.

Beste kualifikazio eta titulu batzuk diseinatzean aldaketa horiek hartu dira kontuan.


COMISIÓN DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS

Bruselas, 16.12.2008
COM(2008) 868 final

COMUNICACIÓN DE LA COMISIÓN AL PARLAMENTO EUROPEO, AL CONSEJO, AL COMITÉ ECONÓMICO Y SOCIAL EUROPEO Y AL COMITÉ DE LAS REGIONES

Nuevas Capacidades para Nuevos Empleos
Previsión de las capacidades necesarias y su adecuación a las exigencias del mercado laboral

{SEC(2008) 3058}

ES ES

com2008_0868es01.pdf


CEDEFOP

El empleo en Europa exigirá más conocimientos y competencias

*7. grafikoa.* **Eskualde bakoitzeko enplegu-tasa, NUTS 2, 2008 (1) ,%.**




*(1) Kroazia, Islandia eta Suitza, 2007*

*Iturria: EUROSTAT (tgs00007).*

**Eskualdeetako Lantaldea**

Eskualdeetako Lantaldea kontsulta-organismo bat da, Europako eskualde eta tokiko ordezkariek osatutakoa. Lantaldeari kontsultatu beharko zaio Europar Batasunak tokiko eta eskualdeetako gobernuari dagozkion gaietan erabakiak hartu aurretik –adibidez, eskualde-politikan, ingurugiroan, hezkuntzan eta garraioan–.

344 kidek osatzen dute lantaldea eta Europako 271 eskualde daude ordezkatuta. Eskualdeetako Lantaldearen egitekoa da tokiko eta eskualdeetako ikuspegia aurkeztea Europar Batasuneko legerian. Batzordearen proposamen gaineko irizpenen bitartez egiten du hori.


ES

DICTAMEN
del Comité de las Regiones
sobre la
COOPERACIÓN EUROPEA EN EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL PARA APOYAR LA ESTRATEGIA EUROPA 2020



Eskualdeetako lantaldea 231 2010. pdf

8. grafikoa. **Eskualde bakoitzeko hezkuntza-maila NUTS 2, 2008 (1) (goi-mailako heziketa duten 25 eta 64 urte bitarteko herritarren %a).**




*(1) Itsasoz bestaldeko departamentuak (FR9), ez dugu daturik; Corse (FR83), datuak ez dira fidagarriak lagina txikia delako; Portugal eta Suedia: Aurretiazko datuak.*
*Iturria: Eurostat (edat_lfse11).*




→ 2010eko EUROSTAT urtekaria.pdf

Dokumentu honek aldian behin adierazle komunen eta beste adierazle batzuen inguruko datu gehiago gaineratzeko aukera ematen du –Europako esparrukoak zein estatu, eskualde eta tokiko esparrukoak–. Gauzak horrela, esparru bakoitzerako, produkzio-sektore bakoitzerako, lanbide-arlo bakoitzerako eta abar zehazten diren erreferenteekiko konparazioak etengabe eguneratuta egongo dira, eta une oro indarrean egongo den diagnostiko baliagarria izango da eskura.

**Euskal Autonomia Erkidegoa**



→ http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-udalmap/eu/contenidos/informacion/udalmap/eu_udalmap/udalmap.html

## 2.5. Kualifikazioen egitura

**Aldaketa sakona eta etengabea. Lanbide Heziketa, guztiz ezezaguna**



Europar Batasuneko estatu kide guztiek jakin badakite globalizazioak eta jakintzaren gizarteak langileen beste kualifikazio-eskakizun batzuk eragiten dituztela. Hori dela eta, aldaketa handiko prozesu batean sartu da lanbide heziketa.

Lanbide-kualifikazioen eta lan-merkatuko beharren arteko korrespondentzia desiragarria bermatu nahi da; lanbide-heziketako eskaintzen sistema integratua osatu nahi da; batasunaz, koherentziaz eta eragimenez hornitu nahi da errealitate horren plangintza, antolamendua eta administrazioa; eta lanbide-konpetentziak eta -kualifikazioak egiaztatzeko eta ziurtatzeko moduen integrazioa erraztu nahi da, lan-esperientzia bidez eta/edo ikaskuntza ez-formalen bidez eskuratutakoak barne.

Horretarako, hain zuzen ere, sortu zen Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionala (gaur egun berraztertzen ari da Europako esparruarekin bat egiteko)

*9. grafikoa.* **Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionala**

## Kualifikazioa lortzeko bideak




**Kualifikazioen eta lanbide heziketaren sistema nazionalaren tresnak eta ekintzak**

**Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala**

Produkzio-sistemaren kualifikaziorik adierazgarrienak biltzen ditu.

Lanbide Heziketako tituluak zein profesionaltasun-ziurtagiriak diseinatzeko oinarria dira.

- Lanbide Kualifikazioak ezagutzeko, ebaluatzeko, **egiaztatzeko** eta erregistratzeko prozedura.
- Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionalaren beraren kalitatearen ebaluazioa eta hobekuntza.
- Lanbide-heziketaren eta enpleguaren arloko informazioa eta orientazioa.

Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionalaren **helburuak** dira:

- Heziketa kualifikazio-eskarietara orientatzea.
- Lan-merkatuko eskariaren eta eskaintzaren arteko egokitzapena erraztea.
- Bizialdi osoko prestakuntza ohiko hezkuntza-aldiaz harantzago zabaltzea.
- Langileen zirkulazio librea sustatzea. Hori dela eta, funtsezko egitekoa betetzen du lan-esparruan eta prestakuntza-esparruan.

**Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioak lanbide-arloetan eta mailen arabera antolatuta daude**
(lehen hiruak Lanbide Heziketari dagozkio)

**26 lanbide-arlo**

| | |
|---|---|
| **1.** | Nekazaritza |
| **2.** | Itsasoa eta arrantza |
| **3.** | Elikagaien industriak |
| **4.** | Kimika |
| **5.** | Irudi pertsonala |
| **6.** | Osasuna |
| **7.** | Segurtasuna eta ingurumena |
| **8.** | Fabrikazio mekanikoa |
| **9.** | Instalatze- eta mantentze-lanak |
| **10.** | Elektrizitatea eta elektronika. |
| **11.** | Energia eta ura |
| **12.** | Garraioa eta ibilgailuen mantentze -lanak |
| **13.** | Erauzketa-industriak |

| | |
|---|---|
| **14.** | Eraikuntza eta obra zibila |
| **15.** | Beira eta zeramika |
| **16.** | Zurgintza, altzarigintza eta kortxoa |
| **17.** | Ehungintza, jantzigintza, larrug. |
| **18.** | Arte grafikoak |
| **19.** | Irudia eta soinua |
| **20.** | Informatika eta komunikazioak |
| **21.** | Administrazioa eta kudeaketa |
| **22.** | Merkataritza eta marketina |
| **23.** | Gizarte- eta kultura-zerbitzuak |
| **24.** | Ostalaritza eta turismoa |
| **25.** | Gorputz-jarduerak eta kirolak |
| **26.** | Arteak eta eskulangintzak |

*10. grafikoa.* **Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala**



*11. grafikoa.* **Zenbait adibide. Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalean bildutako profesionaltasun-ziurtagirien eta lanbide-heziketako titulazioen adibideak**



## Biztanleriaren kualifikazioak hobetzeko prestakuntza

Herritarrentzako ongizate-indize handiak dituen herrialde lehiakor batek produkzio-ehun anitza eta modernoa behar du, eta, horretarako, baldintzarik garrantzitsuenetako bat da erronka berrien araberako maila izango duen biztanleriaren kualifikazio-egitura konpentsatua eta orekatua edukitzea.

*12. grafikoa.* **27ko Europar Batasunak (Suitza eta Norvegiarekin) datorren hamarkadan beharko duen kualifikazioen EREDUA oso urrun egongo da EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGUNGO BIZTANLERIA LANDUNAREN kualifikazio-egiturari dagokionez.**




*Iturria: CEDEFOP*

Titulazio txikiko biztanleria-tartea handia da, baita, hein txikiagoan bada ere, 25 eta 29 urte arteko biztanleriaren kasuan.

Kualifikazio txikiko mailen barruan, Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko 2. mailako (INSN-2) **emakume gazteen** ehunekoa gizonen ehunekoa baino handiagoa da

Agerikoa da kualifikazio txikien ehunekoa murrizteak eta tarteko kualifikazioen maila gehitzeak duela lehentasuna. **Lanbide-heziketako sistema sendoak eta modernoak** funtsezko zeregina du egiteko horretan.

Lan-esperientzia bidez eta/edo bide ez-formalen bidez lortutako konpetentziak egiaztatzeko plangintzak oso kontuan izango ditu ondasunen edo zerbitzuen **produkzio-sektore** bakoitzeko beharrak.

*i*

Ikus glosarioan titulazioen eta kualifikazioen erreferentzia.

*i*

Prestakuntza-eskaintza berriak eta konpetentziak egiaztatzeko programak 25 eta 64 urte arteko biztanleria-tarte osoa hartzen du kontuan, baina interesgarria da arreta berezia jartzea lan-bizitza osoa aurretik duen kualifikazio txikiko 25 eta 29 urte arteko biztanleria gazteari.

Berariazko erreskate-plana lantzea oso egokia da egoera horretan dauden pertsonentzat.

*13. grafikoa.*

## Euskal Autonomia Erkidegoa

## 2010. urtea. Guztizko biztanleria eta biztanleria landuna, Irakask. Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko mailaren arabera

**25-64 urte**

| INSN | Biztanl. guztira | Biztanl. landuna |
|---|---|---|
| 5-6 | % 43,7 | % 51,1 |
| 3 | % 18,9 | % 19,8 |
| 2 | % 7,8 | % 6,5 |
| 0-1 | % 29,7 | % 22,5 |

Kualifikazio txikiak (INSN 0-2) askoz handiagoak dira tartekoak baino (INSN 3)

**25-29 urte**

| INSN | Biztanl. guztira | Biztanl. landuna |
|---|---|---|
| 5-6 | % 53,9 | % 55,4 |
| 3 | % 26,3 | % 28,2 |
| 2 | % 13 | % 11,5 |
| 0-1 | % 6,9 | % 4,9 |

Biztanleria gaztearen artean kualifikazio txikien (INSN 0-2) ehunekoak handiegia izaten jarraitzen du.

## Okupazio-tasaren bilakaera INSNren arabera (Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua)

**25-64 urte**




Kualifikazio handietako okupazio-tasa beti da handiena eta, gainera, 2005. urtetik gora egiten du, krisialdiaren gainetik.

**25-29 urte**




Pertsona gazteen artean kualifikazio txikietako okupazio-tasa oso txikia da, eta nabarmen murriztu egiten da 2005. urtetik aurrera.

**Kualifikazio txikien eskaria urria da eta txikiagoa izango da etorkizunean**

Oharra: datu horiek gutxi gorabeherakoak dira, bi arrazoi daude: inkesta batetik ateratakoak dira, eta aurreko titulazioen INSN mailekiko baliokidetasunak egin behar izan dira.

**!**

**Belaunaldien errelebu sinplea ez da nahikoa.**
**Herrialde lehiakorra izateko, kualifikazio txikiena duten biztanleen prestakuntzari jarri beharko zaio arreta**



## 2.6. Bizialdi osoko ikaskuntza

Jakintzaren gizartean aurrera egiteko beharra azken urte hauetan agerikoagoa egin bada ere, muntazko erakundeen arlo horretako lehen definizioak duela hamarkada bat baino lehenagokoak dira.

**Lehena Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearena da (1997)**
*"Bizialdi osoko ikaskuntza pertsona helduei hezkuntza eta trebakuntzako bigarren aukera bat ematea baino askoz ere zabalagoa da. Pertsona bakoitzak bizialdi osoan ikasteko gauza izan beharko du, motibatuta egon beharko du eta ikasteko konpromiso argia izan beharko du. Ikaskuntzaren ikuspuntu horrek edozein agertokian garatu beharreko orotariko garapen pertsonala eta soziala hartzen du barnean: modu formalean eskoletan, lanbide-heziketako ikastetxeetan, hirugarren sektorekoan edo helduentzakoan; eta modu informalean etxean, lantokian eta erkidegoan".*

**Bigarren definizioa Europako Batzordearena da (1995)**
*Bizialdi osoko ikaskuntza giza ahalmena etengabeko ikas-prozesu baten bitartez garatzean datza, prozesu horretan norbanakoak estimulatu eta gaituko dira bizialdi osoan behar izango dituzten jakintzak, balioak, trebetasunak eta ulermena eskuratzeko eta horiek konfiantzaz, sormenez eta gozamenez aplikatzeko rol, zirkunstantzia eta ingurune guztietan.*
*90eko hamarkadaz geroztik, muntazko aldaketak gertatu dira, definizio horiek eguneratzea eta bizialdi osoko ikaskuntza ahalbidetuko duten tresnak sortzea gomendatzen dutenak.*

Eusko Jaurlaritzak, beste herri-administrazio batzuekin eta hezkuntza, gizarte eta ekonomiaren arloko eragileekin koordinatuta, **bizialdi osoko ikaskuntza lege** lerrunarekin sustatuko du, norberaren sustapena, enpleagarritasuna eta gizarte-kohesioa ziurtatzeko modu gisa.
Legean jasotzen denez, pertsona batek esparru formaletan, ez-formaletan eta informaletan haren ezagutzak, konpetentziak eta gaitasunak ikuspegi pertsonaletik, profesionaletik, zibikotik edo sozialetik hobetzeko helburuarekin egiten duen ikaskuntza osoa hartzen da bizialdi osoko ikaskuntzatzat.

Bizialdi osoko ikaskuntza euskal hiritarren eskubide gisa ezartzen du, eta prestakuntza-eskaintza zabal baten bitartez ahalbidetuko du hori; era berean, urruneko ikaskuntza sustatzen du –batez ere informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez– prestakuntza-eskaintza hiritarrei malgutasunez eskaini ahal izateko eta, hala, prestakuntza eta beste jarduera pertsonalak, familiarrak, sozialak edo lanekoak bateragarri egin ahal izateko. Halaber, lan-esperientziaren bidez edo bide ez-formalen edo informalen bidez lortutako ikaskuntzak onartzeko mekanismoa finkatu du. Izatez, lanbide-konpetentziak onartzeko, ebaluatzeko eta egiaztatzeko gailua jarri du abian.

Biztanleria guztiak ulertu eta bere egin behar du bizialdi osoko ikaskuntzaren beharra, batez ere gazteenek.

Oso garrantzitsua da kualifikazio txikia duten eta lan-bizitza osoa aurretik duten 25 eta 29 urte artekoak kualifikazio maila ertainean eta handian hastea eta ikaskuntza-prozesuak amaierarik ez duela bere egitea.



## 14. grafikoa. Bizialdi osoko ikaskuntzarako eskualdeko eta tokiko agintaritzen Europako elkartea.

EARLALL da bizialdi osoko ikaskuntzarako eskualdeko eta tokiko agintaritzen Europako elkartearen izena.

Bruselan eratu zen 2001eko urriaren 11n, eta bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko politiken esparruan ekintza zientifikoak eta pedagogikoak egitea du helburu.

EARLALL irabazi asmorik gabeko nazioarteko elkarte bat da, egoitza Belgikan duena eta 1919ko urriaren 23ko Belgikako legeak eraentzen duena –1954ko abenduaren 6ko legeak aldatua–.

Elkartearen xede nagusia da haren kideen arteko elkarlana garatzea etengabeko ikaskuntzarekin lotzen diren politiken esparruan, betiere politika horien tokiko eta eskualdeko dimentsionamenduan laguntzeko.

Era berean, elkarlan estua mantendu nahi du Europar Batasuneko erakundeekin eta etengabeko ikaskuntzan muntazkoak diren nazioarteko organismoekin eta erakunde publikoekin.




Honako tokiko eta eskualdeko agintaritza hauek hartzen dute parte elkartean:

- Baden-Württemberg, Alemania
- Rheinland-Pfalz, Alemania
- Bretagne, Frantzia
- Kataluniako Autonomia Erkidegoa
- Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa
- Euskal Autonomia Erkidegoa
- Andaluziako Autonomia Erkidegoa
- Jämtland County Council, Suedia
- Östsam Regional Development Council, Suedia
- Region Västra Götaland, Suedia
- Provincia Autonoma di Trento, Italia
- Regione Lazio, Italia
- Regione Marche, Italia
- Regione Piemonte, Italia
- Regione Toscana, Italia
- Scottish Government, Erresuma Batua
- Welsh Assembly Government, Erresuma Batua
- Region of Southern, Danimarka

www.earlall.org

# 3. Estrategia komuna

## 3.1. Europa 2020

Europar Batasuneko organismoak aurretik adierazitako testuinguruko elementurik garrantzizkoenen jarraipena ari dira egiten, eta elementu horiei estrategia komun baten arabera aurre egitea erabaki dute. Horrela, Europar Batasuneko produktibitatea eta lehiakortasuna gehitzeko beharra onartzean oinarritu zen –2000. urtean abian jarri zen Lisboako Estrategia; halaber, mundu-mailako lehiaren aurrean, aldaketa teknologikoren aurrean eta biztanleria zahartzearen aurrean gizarte-kohesioa hobetzeko beharra aintzat hartu zuen. Lisboako Estrategia 2005. urtean berrabiarazi zen. Tartean, hazkundean eta kalitate handiagoko enplegu gehiagoren bilaketan are gehiago zentratu zuen ebaluazio egin zen.

Datorren hamarkadarako estrategiaren, hots, Europa 2020 Estrategiaren helburua da Europar Batasuna krisialditik sendoago irtetea eta haren ekonomia hazkunde adimentsu, iraunkor eta barne hartzaileagorantz orientatzea.

**Hazkunde adimentsua** da jakintzak eta berrikuntzak bultzatzen dutena. Aldaketa horrekin gertatu beharreko erreformek hezkuntzaren kalitatea hobetu beharko dute, eta hezkuntza guztion eskura egongo dela bermatu beharko dute; halaber, enpresa-jarduera eta ikerketaren emaitzak finkatu beharko dituzte, Europar Batasun osoan jakintzaren transferentzia eta berrikuntza sustatzearren. Izpiritu ekintzailea sustatu beharko dute, eta ideia sortzaileak produktu, zerbitzu eta prozesu bihurtzen lagundu beharko dute. Gauzak horrela, produktu, zerbitzu eta prozesu horiek hazkundea, kalitatezko enpleguak eta lurralde, ekonomia eta gizarte mailako kohesioa eragin ahal izan beharko dute, eta Europako eta Munduko gizarte-aldaketen ondoriozko erronkak modu eraginkorragoan aurre egiteko aukera eman ahal izan beharko dute. Testuinguru horretan, funtsezkoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ahalik eta gehien baliatzea.

**Hazkunde iraunkorra** da hazkunde ekonomikoa eta baliabideen erabilera bereiztea, baliabideak eraginkortasunez baliatuko dituen ekonomia bideragarria eta lehiakorra eraikitzea, kostuak eta etekinak zuzen banatuko dituena eta prozesu eta teknologia berriak –teknologia berdeak barne– garatzeko lasterketan Europak duen lidergoa baliatuko duena. Europar Batasuneko kide diren Estatuek beharrezko erreformak egin beharko dituzte negutegi-efektua eragiten duten gasen emisioak murrizteko eta baliabideak eragimenez erabiltzeko. Era berean, enpresa-inguruneak ere hobetu beharko dituzte, eta enplegu "berdearen" sorrera sustatu eta industria-oinarriak modernizatu beharko dituzte.

**Hazkunde barne hartzailea** da gizarte kohesionatua eraikitzea, pertsonak aldaketa aurreikusteko eta kudeatzeko gaituko dituena, pertsona horiek gizartean eta ekonomian parte hartze aktiboa izan dezaten. Horrenbestez, hiritar guztiek bizialdi osoan sarrera eta aukerak izango dituztela bermatu beharko dute Europar Batasuneko estatuetan aplikatutako erreformek. Beraz, Europar Batasuneko estatuetako erreforma-programen funtsezko elementuak izango dira, besteak beste, lan-merkatuaren funtzionamendu egokia bermatzea –trantsizioek arrakasta izan dezaten beharrezko inbertsioak eginez– eta gaitasun egokiak garatzea.




→ Europa 2020.pdf

# 4. Ekonomia iraunkorra




➔ Energia berriztagarrien prospekzio-azterlana.pdf

Ekonomian aldaketa sakonak egin beharra gero eta gutxiago jartzen da auzian. Mugarik gabeko hazkundea ezinezkoa da mundu mugatu batean, batez ere munduaren mugak xehetasun handi samarrekin ezagutzen ditugunean. Hazkunde ekonomikoa baliabideen kontsumoaz eta, jakina, energiaren kontsumoaz bereizi behar da. Ekonomia eta herrialde iraunkor eta lehiakor baten aldeko belaunaldien arteko konpromisoa izan beharko du, pertsona guztioi zuzendutako aberastasuna eta aurrerapen kolektiboa izan dadin.

Garapen iraunkorrerako oinarriak finkatzeak norabidea arras aldatzea ekarriko du. Izan ere, lehiakortasuna eta produktibitatea sustatu beharko da, finantza-gainbegiratua indartu beharko da –hori kontrolatzeko neurriak ere ezarri beharko dira–, sozietate kotizatuen ordainsarietan gardentasuna gaineratu beharko da, eta kontratazio publiko-pribatua erraztu beharko da. Era berean, Lanbide Heziketaren erreforma eta berrikuntza sustatu beharko da, eta, horrez gain, energia aurrezpen eta eragimeneko irizpideak eta mugikortasun iraunkorreko irizpideak sartu beharko dira.

Hori guztia dela eta: a) produkzio-eredua aldatuko da; b) epe ertain eta luzera bideragarriak izango dira finantza publikoak eta pentsioak, zergabilketa eta kudeaketa hobetuz, betiere ongizatea bermatzeko eta sakontzeko; eta c) produktibitatea hobetuko da, teknologiaren arloan eta biztanleriaren kualifikazioaren arloan inbertsioak eginez.

## 4.1. Produkzio-ereduaren aldaketa

*15. grafikoa.* **2020KO DEMOGRAFIA PROIEKZIOAK**




Gaur egungo produkzio-ereduak –agian zuzenagoa izango da gaur egungo produkzio-egituraz mintzatzea– agerian utzi ditu bere mugak.

Iraunkortasunik ez duenez gero, gaur egungo produkzio-egoera aldatu egin beharko da.

Hortaz, beste produkzio-jarduerako sektore batzuk osatu beharko dira eta sektore klasikoenetako asko berritu egin beharko dira.

Zenbait **adibide adierazgarri** aipa daitezke; energia sortzea eta banatzea, energia-eragin-kortasuneko neurriak ezartzearekin batera; ibilgailu hibridoa eta elektrikoa, automozioaren sektorean aldaketak eragingo dituena; paisaiaren eta baliabide naturalen kudeaketa eta zaintza.

2020. urterako demografia-proiekzioetatik ondoriozta daitezke etorkizun hurbilera begira izango diren jarduera-beharrak.

Aktibo egon daitekeen biztanleriaren ahalik eta zatirik handiena biztanleria landun bihur dadin sustatzeko beharrak –batez ere 20 eta 43 urte arteko adin-tartean– elkarri lotuta dauden hiru jarduera-sektore handitan, gutxienez, du eragina: haurrentzako eta gazteentzako arreta; adinekoentzako arreta, batez ere mendetasunik badute; eta, adin guztietarako komuna, etxebizitza funtzionalagoen baldintzen hobekuntza, erosotasuna areagotzeko eta etxeko lanak eta horien eraginkortasuna errazteko, hau da, eraikuntzaren sektorea birgaitzerantz orientatzeko, eragimen handiko instalazioak ezartzeko eta diseinuan konplexuak diren eta azkar gauzatzen diren prozedurekin eraikitzeko.

Prestakuntza da funtsezko enplegu-politika. Hezkuntza da krisialditik irteteko eta gure herrialderako beste ekonomia- eta produkzio-eredu bat osatzeko funtsezko elementu estrategikoa.

Eusko Jaurlaritzak, enplegu-politika aktiboen barruan, funtsezko egitekoa ematen dio prestakuntzari. Jakin badaki ezin dela epe laburrerako ikuspuntutik egin; izatez, langabezia-tasak murrizteko premia handia badago ere, egoera horretan dauden pertsonei arreta eman beharko zaie, eta enplegu bat aurkitzeko prestatu egin beharko dira. Krisialdiaren ondoriorik larrienen ondoren datorren etorkizunera begira, langileak prestatzeko politikak diseinatu behar dira. Sortu diren aldaketen dimentsioa kontuan izanik, hartu beharreko ekimenek jarraitasun -bokazioa izango dute, ibilbide luze baten lehen urratsak izango dira.

Azpiegitura handien eta balio erantsi txikiagoko zerbitzuen eraikuntzarekiko (eta ez birgaitzearekiko) mendetasun handiegia duen produkzio-egitura bat, egitura hauskorra da.

Hezkuntza-maila txikia duen lan-indar bat ez dago kanpoko lehiarekiko oso irekita, nahiz eta hobeto egokitzen den batez beste produkzio ertaina edo txikia duten produkzio-sektoreetara. Herrialde garatu bateko 16 eta 64 urte arteko biztanleria langilearen hezkuntza- eta prestakuntza-mailaren egiturak zehazten du herrialde horren lehiakortasuna. Zenbat eta pertsona gehiago egon maila altu eta ertainetan, orduan eta handiagoa izango da herrialde horrek jakiteko, ikertzeko, berritzeko, sortzeko, ekiteko eta modu globalean lehiatzeko izango duen ahalmena.

Batez besteko heziketa- eta kualifikazio-maila handiak lortzea ez da hain kostu handikoa, ez da ematen duena bezain zaila; alabaina, epe luzerako proiektu bat da, eta emaitzak epe ertain/luzera hautemango dira. Gainera, adostasun handia eskatzen du eta gizartearen osotasuna sartu beharko du tartean.

Edozein produktu (ondasun eta zerbitzu) egitean, garrantzizkoa da katea osatzen duten urratsetako bakoitza behar bezala garatzea. Produktuaren bizi-zikloa eta inplikatutako jarduerak hartu beharko dira kontuan. Lanbide-heziketatik datozen pertsonak esku hartzen duten faseak kritikoak dira azken emaitzarako (mailaren arabera, landu egin beharko da, instalatu beharko da, arreta eman beharko da, gainbegiratu beharko da, programatu beharko da, bezeroarekin edo erabiltzailearekin zuzenean tratatu beharko da,...), are gehiago kontuan hartzen bada egunez egun gero eta prozesu konplexu eta hauskorragoetan esku hartzen dela, eta horietan azken kalitatea ezinbestekoa dela.



## 4.2. Produktibitatea

Oro har, produkzio- edo zerbitzu-sistema baten bidez lortutako produkzioaren eta horretarako erabilitako baliabideen arteko erlazio gisa ulertzen da produktibitatea.

Produktibitatearen hobekuntzaren funtsa **modu adimentsuagoan lan egitean** datza, eta **ez intentsitate handiagoz** lan egitean. Produktibitatea hainbat faktoreren mende badago ere, langileen kualifikazioaren faktorea da alderdi nagusietako bat. Berrikuntza teknologikoa eta lanaren produkzio- eta kudeaketa-sistemak gisako beste alderdi batzuk ere funtsezkoak dira.

Nahiko erraza da produktibitatea oro har neurtzea, baina zailagoa da faktore bakoitzaren berariazko ekarpena dimentsionatzea. Azken finean, askotan ez da erraza izaten produktibitateari balio bat esleitzea, baina ezinbestekoa da lehiakortasunari dagokionez. Baliabideak modu adimentsuan erabiltzea gaurkotasun handiko erronka da, eta etorkizunean hala izaten jarraituko du.

Edonola ere, prestakuntzaren egitekoa garrantzi handikoa da produkzioa gehitzeko benetako estrategia orotan, eta horretan adostasun-maila erabatekoa da.



*5. taula.* **Lanaren produktibitatea langile, herrialde eta urteen arabera (EU 27=100).1998-2009**

| | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EU 27 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Alemania | 112,6 | 111,8 | 108,0 | 106,7 | 106,3 | 108,6 | 108,1 | 109,3 | 109,1 | 108,3 | 106,5 | 104,5 |
| Austria | 120,7 | 119,8 | 120,6 | 115,2 | 117,1 | 118,1 | 117,5 | 115,0 | 115,9 | 114,2 | 114,1 | 111,5 |
| Belgika | 134,1 | 133,9 | 136,6 | 133,5 | 136,2 | 134,5 | 131,7 | 129,7 | 128,3 | 126,6 | 125,9 | 124,9 |
| Bulgaria | 27,2 | 28,6 | 30,4 | 31,4 | 33,0 | 33,4 | 33,7 | 33,5 | 34,5 | 35,0 | 37,2 | 37,2 |
| Zipre | 82,3 | 83,1 | 85,0 | 86,7 | 84,5 | 82,4 | 82,8 | 82,8 | 83,7 | 86,0 | 87,3 | 88,7 |
| Danimarka | 109,2 | 108,6 | 110,5 | 107,5 | 108,4 | 106,1 | 108,6 | 106,7 | 106,4 | 102,6 | 101,1 | 100,6 |
| Eslovakia | 56,3 | 56,6 | 58,0 | 60,5 | 62,4 | 63,3 | 65,4 | 68,5 | 71,4 | 75,6 | 79,3 | 78,9 |
| Eslovenia | 75,2 | 76,7 | 76,2 | 76,3 | 77,8 | 79,2 | 82,0 | 83,8 | 83,9 | 83,8 | 84,8 | 82,0 |
| Espainia | 107,8 | 105,5 | 103,7 | 103,1 | 104,8 | 103,7 | 102,0 | 101,2 | 102,6 | 103,1 | 103,4 | 110,8 |
| Estonia | 41,4 | 43,3 | 46,9 | 48,1 | 50,9 | 54,6 | 57,4 | 60,5 | 62,1 | 65,8 | 64,0 | 64,4 |
| Finlandia | 113,7 | 112,9 | 114,8 | 112,3 | 111,4 | 109,3 | 112,9 | 110,5 | 110,0 | 113,2 | 112,0 | 107,1 |
| Frantzia | 126,4 | 125,2 | 125,0 | 124,9 | 125,4 | 121,5 | 120,6 | 122,1 | 121,1 | 121,2 | 121,4 | 120,5 |
| Grezia | 90,9 | 91,1 | 93,6 | 97,2 | 99,5 | 101,3 | 101,1 | 98,7 | 99,6 | 99,6 | 102,3 | 102,0 |
| Herbehereak | 110,9 | 111,7 | 114,4 | 113,2 | 113,2 | 110,7 | 112,2 | 113,9 | 113,8 | 114,0 | 114,7 | 110,9 |
| Hungaria | 58,1 | 57,0 | 57,7 | 62,0 | 64,8 | 65,8 | 67,4 | 67,5 | 67,9 | 68,1 | 71,3 | 70,2 |
| Irlanda | 125,4 | 124,7 | 127,4 | 127,8 | 133,5 | 135,9 | 135,2 | 134,2 | 134,7 | 137,1 | 130,3 | 135,2 |
| Italia | 130,2 | 127,5 | 126,0 | 125,4 | 117,6 | 115,4 | 112,1 | 110,9 | 109,9 | 110,0 | 109,5 | 109,7 |
| Letonia | 36,8 | 37,9 | 40,2 | 41,8 | 43,0 | 44,0 | 45,7 | 47,9 | 48,8 | 51,1 | 52,0 | 49,9 |
| Lituania | 40,9 | 40,4 | 42,7 | 46,9 | 48,0 | 52,0 | 53,3 | 54,4 | 56,2 | 59,0 | 62,2 | 55,8 |
| Luxemburgo | 165,6 | 176,0 | 175,9 | 162,3 | 163,2 | 167,1 | 169,6 | 169,4 | 179,7 | 178,8 | 175,9 | 167,9 |
| Malta | : | : | 96,7 | 89,8 | 92,0 | 90,2 | 90,2 | 90,9 | 90,6 | 89,0 | 88,0 | 88,0 |
| Polonia | 50,6 | 54,0 | 55,2 | 56,0 | 58,7 | 60,0 | 61,5 | 61,3 | 60,7 | 61,7 | 62,0 | 65,2 |
| Portugal | 70,1 | 71,8 | 71,5 | 70,4 | 70,2 | 70,5 | 69,3 | 72,3 | 72,5 | 73,0 | 73,6 | 73,9 |
| Erresuma Batua | 109,1 | 109,1 | 110,7 | 111,7 | 112,1 | 112,5 | 113,8 | 112,4 | 112,0 | 110,2 | 109,9 | 110,1 |
| Txekiar Errepublika | 60,2 | 61,9 | 61,8 | 63,2 | 63,0 | 66,5 | 68,0 | 68,5 | 69,2 | 71,3 | 72,0 | 71,8 |
| Errumania | : | 23,3 | 23,6 | 25,6 | 29,3 | 31,1 | 34,4 | 35,9 | 39,5 | 43,2 | 50,2 | 47,1 |
| Suedia | 112,8 | 114,1 | 114,3 | 108,5 | 108,6 | 111,3 | 114,9 | 111,4 | 112,5 | 114,0 | 112,4 | 111,5 |
| **Euskal AE** | **135,9** | **133,9** | **132,2** | **128,4** | **128,4** | **126,9** | **126,7** | **127,3** | **130,6** | **132,1** | **130,3** | **132,4** |
| Estatu Batuak | 141,0 | 143,4 | 141,9 | 140,2 | 140,1 | 141,8 | 142,8 | 144,0 | 140,2 | 139,4 | 137,7 | 140,8 |
| Japonia | 97,7 | 97,4 | 98,7 | 97,6 | 97,9 | 98,5 | 99,3 | 99,4 | 97,3 | 97,7 | 95,1 | 92,9 |

*(:) Ez dugu daturik eskuartean.*
*Data 2010ko Irailaren 16a*

Euskal Autonomia Erkidegoko adierazleen datuak ez dira txarrak, ezta gutxiago ere, baina ez dituzte, inola ere, egungo eta etorkizuneko erronkak ezkutatu behar.

Prestakuntzara zuzendutako baliabideak inbertsioa dira, baina, nola egiten den aintzat hartuta, gastu arrunt izan daitezke

http://www.eustat.es/documentos/datos/PI_metod/INDES_EB060_11_c.asp

# 4.3. Finantza publikoen eta pentsio-sistemaren bideragarritasuna

*16. grafikoa.* **Aktibo egon daitekeen biztanleria**

| Urte | Guztira | Gizon. | Emak. |
|---|---|---|---|
| 2006 | 1.382,7 | 695,6 | 687,1 |
| 2007 | 1.390,9 | 699,7 | 691,2 |
| 2008 | 1.394,0 | 701,5 | 692,5 |
| 2009 | 1.394,1 | 701,8 | 692,3 |
| 2010 | 1.390,4 | 700,3 | 690,1 |
| 2011 | 1.386,2 | 698,2 | 688,0 |
| 2012 | 1.381,0 | 695,7 | 685,3 |
| 2013 | 1.372,9 | 691,7 | 681,2 |
| 2014 | 1.364,9 | 687,7 | 677,2 |
| 2015 | 1.357,9 | 684,4 | 673,5 |
| 2016 | 1.351,1 | 681,0 | 670,1 |
| 2017 | 1.343,6 | 677,4 | 666,2 |
| 2018 | 1.336,0 | 673,6 | 662,4 |
| 2019 | 1.329,9 | 670,7 | 659,1 |
| 2020 | 1.323,3 | 667,7 | 655,6 |




**Okupazio-tasa, Lanaren Nazioarteko Erakundea**

Talde baten okupazio-tasa deritza adin-tarte horretako guztizko biztanleriari dagokionez lanean ari diren pertsonen proportzioari. Ehunekoetan adierazi ohi da. Biztanleria jardunaren arabera aintzat hartuta, bi adin-tarteetarako kalkulatzen da tasa hori.Lehenik, Web orriko tauletan 16 eta 64 urte arteko (adin horiek beteta) biztanleriarentzat kalkulatutako okupazio-tasa eskaintzen du. Hortaz, Eurostat-ek erabilitako definizioarekin aldera daiteke.

2010eko hirugarren hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoko okupazio-tasa % 65,9koa izan zen.

Abenduaren 31n duten adinaren arabera, lan-merkatuko parte izateko aukera duten pertsonek osatzen dute **aktibo egon daitekeen biztanleria**. Egoera horretan sartu dira 20 eta 64 urte arteko adin-tartean dauden gizabanakoak.

EUSTATen proiekzioetan aktibo egon daitekeen biztanleria murrizteko joera nagusitzen dela hauteman da.

$$\text{Okupazio-tasa} = \frac{\sum \text{Landunak}}{\sum \text{Biztanleria 16 - 64 urte}} \times 100$$




Lehia handiko panorama batean, eta jakintzaren gizartea eratzeko helburuarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko demografiaren analisia plantearazten du finantza publikoak finkatzeko –zehazki, pentsioen sistema publikoa bideragarri egiteko– eta hiritarren bizi-kalitatea hobetzeko. Horretarako, desiragarria litzateke **aktibo egon daitekeen biztanleriaren datuak ahalik eta antzik handiena izatea biztanleria landunaren datuekin** eta biztanleria landunak kualifikazio-maila handia edukitzea. Orduan, ahalik eta gehien murriztu beharko da langabeen kopurua eta, era berean, pertsona ez aktiboen kopurua.

Horretarako, zenbait neurri hartu beharko da: jarduera sustatzea, formula malguak barnean hartuz (lanaldi partziala, telelana,...); prestakuntza-eskaintzak kualifikazio-katalogoan oinarrituta eskariari erantzuten diola ziurtatzea; egiazta daitekeen prestakuntzari, azterketa- eta lan-programei, eta abar lehentasuna ematea.

**Aktibo egon daitekeen biztanleria ≈ Biztanleria landuna**

Pertsona interesdunak, bizitzako hainbat etapatan biziko dituen egoeren arabera, askotariko lanaldi-murrizketez balia daitezke, edo ordutegi malguko lanaldi osoez, edo urrutitik lan egiteko hainbat formulez... Era berean, etxeko lanak bateragarri izan daitezkeen errazteko zerbitzuak eskaini beharko dira.

Helburua da aktibo egon daitekeen biztanleria gehienak lan egokia egitea (lan informalak ez du kotizatzen) eta bizialdi osoko ikaskuntzako dinamiketan parte hartu ahal izatea.

Oharra: biztanleria irudikatzen duten irudien proportzioa bat dator EUSTATen 2010eko datuekin.

Aktibo ez dagoen pertsona oro da pertsona ez aktiboa.

Honako kolektibo hauek sailkatu dira:

- Ordainsaririk gabeko zereginak soilik egiten dituzten pertsonak (etxean, familiakoen zaintzan,...).
- Ikasten ari direnak.
- Erretiratuta daudenak.
- Pentsiodunak.
- Errentadunak.
- Ezinduak.



Krisialdi ekonomikoak eta finantzarioak agerian utzi dute, besteak beste, pentsioen sistema publikoa finkatu beharko dela eskubide horren funtsezko bermatzaile gisa. Modu adimentsuan kudeatutako pentsio-sistema iraunkorra edukiko bada, behar-beharrezkoa izango da behar besteko sarrerak ziurtatzea, betiere kontribuzioen oreka, kopurua eta kalitatea gehituz.

**Lan egokia** kontzeptua eraikitzen ari bada ere, Lanaren Nazioarteko Erakundearen barruan honako ezaugarri hauek atxiki zaizkio:

- Lan emankorra eta segurua.
- Laneko eskubideak errespetatuko dituena.
- Diru-sarrera egokiak izango dituena.
- Gizarte-babesa emango duena.
- Elkarrizketa soziala, sindikatzeko askatasuna, negoziazio kolektiboa eta parte-hartzea onartuko duena.

III. Lanbide Heziketako Euskal Plana

*LH berria, herri-marka*

# II. multzoa


II. multzoa

1. Arauzko esparrua .................................... 52
2. LH berriaren panorama ............................ 54

# 1. LHren arauzko esparrua

## LHren gizarte-ikuspegia eta araudia

Gaur egungo LHko sistema konfiguratu duten arau nagusiak

| | |
|---|---|
| **LOGSE 1/1990** Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea | • Hezkuntza-sistema berrantolatzea.<br>• Lanbide Heziketa guztiz berritzea.<br>• LH sustatzea eta prestigio soziala ematea. |
| **5/2002 Lege Organikoa,** Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoa | • Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionala sortzea.<br>• Lanbide Kualifikazioaren kontzeptua<br>• LHren integraziorako oinarriak finkatzea. |
| **56/2003 Legea** Enplegu-legea. | • Lan-merkatuaren funtzionamenduaren eragimena gehitzea eta lan-merkaturatzeko aukerak hobetzea, erabateko enpleguaren helburuarekin. |
| **LOE 2/2006** Hezkuntzako Lege Organikoa | • Lanbide Kualifikazioen Katalogoan oinarritutako Hasierako Lanbide Prestakuntza arautzea.<br>• Goi-mailako LH goi-mailako heziketa dela zehaztea.<br>• Europako hezkuntzako eta prestakuntzako sistemak bat egiteko aukera ematea.<br>• Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak arautzea. |
| **1538/2006 ED** LHren antolamendu orokorra | • Hezkuntza-sistemako LHren egitura ezartzea. |
| **395/2007 ED** Enplegurako lanbide-prestakuntzaren azpisistema arautzen duena | • Azpisistema bakarrean barnean hartzea etengabeko prestakuntza eta lanerako prestakuntza.<br>• Enplegurako prestakuntzaren funtzionamendua arautzea. |
| **1224/2009 ED** Lan-esperientzia bidez eskuratutako lanbide-konpetentziak onartzen dituena | • Onarpenak Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala izatea erreferente.<br>• Konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura bakarra finkatzea. |

Eta, jakina,

- **2/2011 Legea, ekonomia iraunkorrari buruzkoa.**
- **4/2011 Lege Organiko,** Ekonomia iraunkorrari buruzko legea **osatzen duena.**

!

Aldaketa horiek ezezagunak diren bitartean, zailagoa izango da ahalmen osoa garatzea.

**Aurrekoekin lotzen diren eta garrantzi handikoak diren askotariko beste arau eta akordio batzuk daude, hala nola:**

- **1128/2003 Errege Dekretua**, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalari buruzkoa.
  **1416/2005 Errege Dekretua**, ondoren horren artikulu batzuk aldatzen dituena.
- Etengabeko prestakuntzaren akordioa.
- **1558/2005 Errege Dekretua**, Lanbide Heziketako ikastetxe integratuen oinarrizko baldintzak arautzen dituena.
- LHko tituluen (LOE) eta profesionaltasun-ziurtagirien Errege Dekretuak eta Dekretuak.

Oharra: III. Lanbide Heziketako Euskal Planaren indarraldian, osatu egingo dira LH berria itxuratuko duten arauak, eta haren gaineko ikuspegi argia eduki ahal izango da euskal LHren etorkizuneko atarian.









# 2. LH berriaren panorama

## 2.1. Abiapuntuko egoera

Euskal Autonomia Erkidegoko gaur egungo lanbide -heziketa eta haren testuingurua aztertzen denean, egiazta daiteke III. Lanbide Heziketako Euskal Plana abiapuntuko egoera onean dagoela.

Euskal Autonomia Erkidegoko produkzio-ehunak ibilbide luzea egin du, eta ibilbide horretan egitura batzuk osatu ditu, lan egiteko modu jakin batzuk eta erlazio jakin batzuk finkatu ditu. Horietan guztietan oinarrituta, aditzera eman dezakegu gaur egun, oro har, ehun modernoa dugula, eskakizun handiko merkatuetan lehiatzen ohituta dagoena eta aurre egin beharreko erronkei berme jakin batzuekin erantzun ahal izateko profesional kualifikatuak behar dituena. Lanbide-heziketa on bat izatea, beraz, premiazkoa izan da.

Datuen ikuspuntu objektibotik begiratuta zein euskal lanbide-heziketak gainerako autonomia-erkidegoetan duen onarpen zabala edo ondasunen eta zerbitzuen produkzio-munduaren asetasun-maila kontuan izanik, ondorio bera aterako dugu: lanbide-heziketa ona dugu. Nolanahi ere, irmotasun berarekin eman behar da aditzera hori ez dela nahikoa. Izan ere, ez da komeni geure buruarekin atsegin hartzea, eta, gainera, bi funtsezko arrazoi daude batetik, lanbide-heziketaren norabidea zuzentzeko eta, bestetik, lanbide-heziketari beste bultzada handi bat emateko.

### Zuzenketaren bat

Orain abian jarri den zuzenketak hobetu nahi diren hiru alderdirekin du lotura. Batetik, bere garaian Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak egin zuen II. Lanbide Heziketako Euskal Planaren balantzeak planaren edukia benetan betetzeko konpromisoa hartzea ezarri zuen. Bigarren,

Krisialdi ekonomikoak ez du eragotziko enpleguak berriro gora egitea hemendik 2020. urtera bitartean, baina egiturazko langabezia-maila handiak uzteko mehatxua dago, batik bat hezkuntza-maila txikiko gazteen eta denbora luzez langabezian dauden langabeen artean. Karbono-emisio txikiko ekonomia sortuko bada, funtsezko konpetentzien oinarri sendoa sortu beharko da, eta

egungo lanbide-konpetentziak egokitu beharko dira. Eskulanaren kualifikazio-maila eskariarekin bat etortzea aurreikusten den arren, oso posible da **konpetentziak bat ez etortzea**. Europako gaur egungo eskulana maila guztietan gero eta zorrotzagoa den lan-merkatuari erantzuteko gauza izan beharko du, eta, horretarako, behar-beharrezkoa da jakintzak, kualifikazioak eta konpetentziak eguneratzea, hobetzea eta zabaltzea, eta, hala, funtzioak behar bezala bete ahal izatea.

Europak % 75eko enplegu-tasa lortzeko –2020rako finkatu den helburua–, egiturazko langabeziari egin beharko dio aurre eta pertsona gehiagok lana aurki dezaten lagundu beharko du, batez ere emakumezkoek eta hezkuntza-maila txikiko pertsonek.


01
Kualifikazio-sistemak erabiltzea
02
Lanbide Heziketaren irudia eta erakargarritasuna hobetzea
Lanbide-heziketa modernizatzeko elementu garrantzitsuak ezagutzen dira
03
Irakasleen eta hezitzaileen profesionalizazio handiagoa lortzea
04
Informazio, aholkularitza eta orientazioko sistemak modernizatzea

## 1.1. Kualifikazio-sistemak erabiltzea

Europako hezkuntza-politikaren azken urteetako kezka nagusietako bat da Europar Batasuneko kide diren estatuen artean kualifikazioak alderatzea eta horien transferentzia egitea, betiere pertsona langileen zirkulazio librea sustatzearren –Europar Batasunaren funtsezko printzipioetako bat–.

**Kualifikazioen esparruek irakaskuntza eta prestakuntzako azpisistemak** (hasierako lanbide-prestakuntza, enplegurako lanbide-prestakuntza esate baterako) **barnean hartuko dituzten egiturak garatzeko interesari erantzuten diote**, eta, aldi berean, ikaskuntza ez formala onartzeko oinarria ematen dute. Esparru horiek erakusten dute nola lotzen diren kualifikazioak eta deskribatzen dituzte kualifikazio bakoitzari lotzen zaion ikaskuntzaren emaitzak.

Alde interesdun guztiek gaur egun dauden eta sortzen ari diren kualifikazioen balioa onartzeko modua berritu dute. Gainera, informazioaren, aholkularitzaren eta orientazioaren garapenean laguntzen dute, eta pertsona erabiltzaileei kualifikazio-sisteman haien bidea aurkitzeko aukera ematen diete, baita haien konpetentzien onarpena lortzeko aukera eta aurrera egiteko eskaintzen zaizkien abaguneak aintzat hartzeko aukera ere. Bestalde, irakaskuntzaren eta prestakuntzaren zereginetan ager daitezkeen urritasunak identifikatzeko aukera emango dute, eta, hortaz, gobernantzarako, mugikortasunerako eta gardentasunerako baliabideak izango dira.



Fenomeno global baten aurrean gaude, haien kualifikazio-esparruak berrantolatzeko egitekoetan murgilduta dauden herrialde kopurua kontuan izanik. Kualifikazio-esparrua osorik garatzeak honako egiteko hauek eskatuko ditu: kualifikazio guztiak deskribatzea ikaskuntzaren emaitzen ildotik; kualifikazio guztiak ikaskuntza-mailak deskribatuko dituen sekuentzia eta hierarkia baten arabera aurkeztea; kualifikazio bakoitza baloratzea, betiere eskuratzeko modua, ikasketa-planak, metodologia eta irakaskuntza edozein izanik ere; kualifikazio guztiak maila desberdinei eslei dakizkiekeen unitateetan banatzea, deskribatzaile berei jarraituz; eta erreferentziako elementuak erabiltzea orotariko prestakuntza baloratzeko eta egiaztatzeko.

Ikaskuntzaren emaitzetan oinarritutako ikuspegia, beraz, lantokiko ikaskuntza edo "aldaketara egokitzeko prestakuntza" gisako kontzeptuen arrakastarekin lotuta dago, baita bide ez formalen bitartez eskuratutako ikaskuntzaren onarpenarekin ere.

Kualifikazioen sistema ezartzearekin, honakoen gisako **abantailak** bilatzen dira:

- Lanbide-heziketako irakaskuntza-sistema eta lanbide-heziketako eskaintza orokorra garatzea, koherentzia erraztea, gardentasuna areagotzea, lanbide-aholkularitza eta -orientazioa sustatzea, eta laneko mugikortasuna bultzatzea, betiere kualifikazioen, gaitasunen eta konpetentzien eskaintza lan-merkatura hobe egokituz.
- Nazioarteko eta nazioez gaindiko esparruan mugikortasuna, elkarlana eta trukea sustatzea, prestakuntza-organismoen, irakasleen, hezitzaileen eta ikasleen elkarrekiko onarpenaren bidez.
- Kualifikazioei buruzko lengoaia komuna garatzea.
- Irakaskuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea erregulatzea eta kontrolatzea.
- Etengabeko prestakuntza sustatzea, eta jakintzen, konpetentzien eta gaitasunen transferentzia ziurtatzea hainbat testuingurutan.

Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan abian jarri diren ildo bereko politikekin bat eginik, modernizatzeko eta hobetzeko joera horretan sartzen da 5/2002 Lege Organikoa. Izatez, lege horren xedea da Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionala sortzea, autonomia-erkidegoen lankidetzarekin; edonola ere, errealitate horren plangintzari, antolamenduari eta administrazioari batasuna, koherentzia eta eragimena emango dion Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionala izan beharko da, lanbide-kualifikazioak eta konpetentziak egiaztatzeko eta frogatzeko moduen integrazioa errazteko.



**Euskadik parte hartze aktiboa du, gainerako autonomia-erkidegoekin batera, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionala konfiguratzeko egitekoan.**

**Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionala Europako Esparrura egokitu beharko da Estatuaren mailan, eta, ildo horretan, Kualifikazioen Sistema Nazionalaren osagaien arteko lotura berriro definitu beharko da, esate baterako Lanbide Heziketa eta goi-mailako irakaskuntza elkarrekin lotu beharko dira datozen urteetan, ondoren Europako Esparruarekin lotzeko.**

**Aldi berean, Kualifikazioen eta Lanbide Kualifikazioen Euskal Sistema ari da eraikitzen. Euskal Autonomia Erkidegoaren testuingurua abiapuntu izanik, lanbide-heziketako tituluen curriculum-diseinua egiten du eta beste kualifikazio batzuk proposatu ahal izango ditu.**

## Europako tresna komunak

| | |
|---|---|
| **Kualifikazioen Europako Esparrua (KEE)** | Europa osoko kualifikazioak alderatzea errazten du eta, hala, etengabeko ikaskuntza laguntzen du, baita hezkuntzaren eta lanaren arloko mugikortasuna ere. |
| **Lanbide-heziketarako eta prestakuntzarako Kredituen Europako Sistema (LHPKES)** | Beste herrialde bateko egonaldian edo beste testuinguru batzuetan eskuratutako lanbide-konpetentziak eta -jakintzak balidatzea, onartzea eta metatzea ahalbidetzen du; horrela, esperientzia horiek lagungarriak dira lanbide-kualifikazioetarako. |



## 1.2. Lanbide Heziketaren irudia eta erakargarritasuna hobetzea

Kopenhageko prozesuaren esparruan, Maastricht, Helsinki eta Bordeleko idatziek (Europako Batzordea, 2004; 2006; 2008) aditzera eman dute lanbide-heziketako parte-hartzea gehitzeko giltzarria lanbide-heziketaren erakargarritasuna sustatzean datzala. Lanbide-heziketak lan-merkatuan beharrezkoak diren kualifikazio teknikoak eta profesionalak eskaintzen ditu, eta, horrez gain, oso lagungarriak dira Lisboako helburuak gauzatzeko. Izan ere, nahitaezko eskola-adina gainditu ondoren, beste modu batean inolako irakaskuntzarik edo prestakuntzarik jasoko ez zuten pertsonei kualifikazioak eskaintzen dizkie.

Hezkuntza-ibilbideen erakargarritasuna zehazten duten hiru faktore multzo nabarmendu dituzte hainbat azterlanek:

**(a)** Azterlanen edukia eta testuingurua: ibilbideen hautagarritasuna (ibilbiderik hautakorrenek gaitasun handiko ikasleak erakartzen dituzte); erakundeen, ibilbideen edo programen ospea; erakunde-kontrola (publikoa edo pribatua); ikasleen gizarte-jatorria, klasea eta sexua; eta gobernantzaren elementuak (kalitate-kontrola eta gardentasuna).

**(b)** LIkasleen hezkuntzako eta laneko iguripenak: azterlan osagarrietarako sarbidea, batez ere hirugarren mailan; laneko iguripenak (ibilbide bateko graduatuen arteko langabezia-tasa txikia, diru-sarrerak, lanpostuko gogobetetasuna eta jasotako irakaskuntzaren eta lortutako enpleguaren arteko korrespondentzia egokia).

**(c)** Faktore ekonomikoak: laguntza ekonomikoak edo pizgarri fiskalak edo, aitzitik, irakaskuntzaren prezioa.

Kopenhageko prozesuak **aukera-aniztasuna** zabaltzearen alde egiten du; izatez, lanbide-heziketako ibilbideak osatzen ditu, bai beste prestakuntza-aukera batzuetan sartzeko (goi-mailako irakaskuntza edo lantokiko prestakuntza), bai beste enplegu-aukera batzuk izateko (laneko aukerak eta lanbide-karreraren garapena).

Helsinkiko idazkiaren arabera, lanbide-heziketari aplikatutako **gobernantza modernoak** lanbide-heziketaren erakargarritasuna hobetzen lagundu beharko du. Horrek lanbide-heziketako erakundeen eta beste alde interesdunen arteko elkarlana dakar, bai beharrezko konpententziei eta kualifikazioei hobeto aurrea hartzeko, bai lanbide-heziketak lan-merkatuko beharrei kantitatean eta kalitatean erantzuteko. Kalitate-kontrola ere gobernantza politikoaren tresna bat da. Nahitaezkoa da lanbide -heziketa bikaintasunarekin lotuta egotea, haren irudia eta balorazioa hobetzeko. Helsinkiko idatziak aditzera ematen duenez, lanbide-heziketak goi-mailako nazioarteko arauak aplikatu beharko ditu, eta haien kalitatea gaitasunen lehian frogatu beharko da. Azkenik, aurreko atalean garatu den bezalaxe, kualifikazioen esparru nazionala ezartzeak baliagarria izan beharko du lanbide -heziketako sistemaren gardentasuna osatzeko.

**III. Lanbide Heziketako Euskal Plan honen ibilbide-orrian finkatzen dira aukerak bakantzeko eta zabaltzeko eta lanbide-heziketaren irudia eta gobernantza hobetzeko jardun-ildo adierazgarriak**

Ibilbide alternatiboak ezartzeko Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programen birdefinizioak, zati batean bertaratzea eskatzen duen eskaintzak eta moduluen katalogo berriak erraztu egiten dute pertsonek haien erritmoan aurrera egin ahal izatea eta kualifikazioak arian-arian osatu ahal izatea.

**Euskal lanbide-heziketak esperientzia handi du kalitate-kudeaketako sistemekin lan egiten, III. Lanbide Heziketako Euskal Planaren helburua da sistema horiek indartzea eta prozesuen araberako kudeaketa-ereduak arian-arian sendotzea. Prozesu horietan ingurumen-printzipioak, laneko segurtasuneta osasun-printzipioak eta energia-eragimeneko printzipioak hartuko dira barnean.**

**Kudeaketa-sistemak autoebaluazioko eta hobekuntzako ereduekin indartuko dira, eta, hala kalitatea bermatzeko Europako Esparruratz egingo da.**



***Oriol Homs***

*Oriol Homs-i eskerrak eman nahi dizkiogu 2011ko apirilaren 15eko ekitaldian parte hartzeagatik, eskainitako hitz zuhurrengatik eta hasitako lanean jarraitzeko emandako adoreagatik.*

## 1.3. Lanbide-heziketako informazio, aholkularitza eta orientazioko sistema integratua

Informazio, aholkularitza eta orientazioko zerbitzuek babesa eskaintzen diete egungo edo etorkizuneko lan-bizitzarekin lotzen diren hezkuntzaren eta lanaren arloko erabakiak hartu behar dituztenei. Lagungarriak zaizkie interesak argiago definitzeko, haien gaitasunak zehazteko eta haien esperientziari buruz gogoeta egiteko, betiere planak egiteari, lanbide-promozioko erabakiak hartzeari eta horren arabera jarduteari dagokionez.

Informazio, aholkularitza eta orientazioko zerbitzu orokorrei esker, bizialdi osoko lanbide-karrerari buruzko erabakiak eraginkorragoak izango dira. Egindako ikerketen arabera, informazio, aholkularitza eta orientazioko zerbitzuak **funtzio bikoitza** betetzen du hezkuntzako eta lan-merkatuko hasierako sarbidearen mailan: **lagungarria da hezkuntza-lorpenak hobetzeko zein lanbide-karrerari buruzko erabakien eragimena hobetzeko**. Etorkizunean zer ikasketa edo karrera egingo duten ez dakiten ikasleek gutxiago ikasteko joera dutenez gero, informazio, aholkularitza eta orientazioko zerbitzuek hezkuntzaren eta prestakuntzaren aldeko interesa susta dezakete horiengan. Konpetentziak eskuratzeak, halaber, beste konpetentzia batzuk eragiten ditu. Lanbide-karrerari dagokionez, informazio, aholkularitza eta orientazioko zerbitzuei esker, murriztu egin da hasiera batean hartutako erabakien inguruko gogogabetasuna. Horrenbestez, mugatu egiten da lanbide-birmoldaketa, baita ondoriozko zuzeneko eta zeharkako kostuak ere. Informazio, aholkularitza eta orientazioko zerbitzuek ezinbesteko egitekoa betetzen dute Lisboako helburuak betetzeari dagokionez. Bizialdi osoko lanbide-karrerarekin lotzen diren erabakietan eragimen handia lortzen laguntzen dute. Hortaz, informazio, aholkularitza eta orientazioko zerbitzuen hobekuntzak Lisboako prozesuan definitutako helburu ekonomikoak eta sozialak betetzearekin lotzen da. Egindako ikerketei jarraituz, informazioa, aholkularitza eta orientazioko zerbitzuak modernizatzeko eta ahalik eta emaitzarik onenak lortzeko hainbat modu daude: erabiltzaileen gaur egungo iguripenei modu integratuan erantzuteko orientazio- eta aholkularitza-prozesuari ekitea; informazio, aholkularitza eta orientazioaren jardunean teknologia berrien aplikazioa sustatzea eta, zehazki, informazioaren eta komunikazioren teknologiak profesionalen tresnen artean barnean hartuko dituzten ondo landutako estrategiak diseinatzea; orientazioko profesionalen ikasketa-planak hobetzea, orientazioaren oinarriak sendotuz eta honako funtsezko alderdi hauen gisako alderdiak garatuz: lan-merkatuaren analisia, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera, kalitatea, eragimena eta kultura- aniztasunaren gisako alderdien ezagupena.

**Lanbide-heziketako informazio, aholkularitza eta orientazioko sistema integratu baterantz aurrera egiteko arriskuak aintzat hartuta, eta horren ondoriozko abantailen jakitun izanik, Euskadi mailako mahai teknikoa eratzea proposatu da. Mahai hori Jaurlaritzak koordinatuko luke, gizarte-eragileekin, patronalekin eta lanbide-heziketako ikastetxeekin elkarlanean.**

Informazio, aholkularitza eta orientazioko zerbitzuak modernizatzeko hiru estrategia nabarmenduko ditugu: informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera, ikuspegi integratuen garapena eta informazio, aholkularitza eta orientazioko profesionalen prestakuntza.

**Informazio, aholkularitza eta orientazioko gaur egungo zerbitzuen zatikatzea nabarmendu behar da. Izan ere, askotariko ikuspegi teorikoak eta metodologikoak, praktikak, talde hartzaileak eta helburuak daude, eta informazio, aholkularitza eta orientazioko profesionalek askotariko jarduerak egin dituzte; horrez gain, informazio, aholkularitza eta orientazioaren hainbat ikuspegi dago hezkuntzaren, lanaren eta enplegu-zerbitzuen testuinguruan. Azkenik, zatikatze handiago horren ondorioz, orientazio-politikaren kontzeptua bera fikzio bihur daiteke —hezkuntzaren eta enpleguaren sektoreei zeharka aplikatzeko ekintzak, helburuak eta bitartekoak aintzat hartzen dituen orientazio-politika–. Ikusteko dago orientazioa hezkuntzaren, lanaren eta gizarte-gaien arloko politikak zuzenduko dituen tresna bihur daitekeen.**



## 1.4. Irakasleen eta hezitzaileen profesionalizazio handiagoa

Irakaskuntzaren lanbidea gero eta konplexuagoa da. Irakasleei gero eta eskakizun gehiago egiten zaizkie. Lan egiten duten inguruneetan gero eta erronka gehiago planteatzen dira. Irakaskuntzaren kalitatea funtsezkoa da Europar Batasunak mundu globalizatu batean bere lehiakortasuna gehitu ahal izateko.

**Irakasleak prestatzeko politika zuzenean dago Europako beste funtsezko politika batzuekin lotuta, batik bat honako politika hauekin:**

– Gizarte-politikarekin, pobreziatik irteteko modu gisa eta gizarteratzearen giltzarri gisa hezkuntzak eta prestakuntzak betetzen duten egitekoa nabarmenduko duena.
– Berrikuntzako politikarekin, irakasleek gazteen artean enpresa eta berrikuntzako izpiritua pizten laguntzea bermatuko duena.
– Ikerketa-politikarekin, Europar Batasuneko hezkuntza-maila guztietan zientzien irakaskuntza hobetzea nabarmenduko duena.
– Enpresa-politikarekin, agintari publikoek ikastetxeetako zuzendarien eta irakasleen artean enpresa-izpiriturako hezkuntza sustatzeko beharra kontuan hartuko duena, hasierako eta etengabeko prestakuntzaren bitartez.
– Eleaniztasunerako esparru-estrategia, erronka nagusitzat hizkuntzak ikastearen balioa sustatuko duena, hizkuntzen irakaskuntzaren kalitatea adieraziko duena, eta hizkuntzetako irakasleen prestakuntza hobea sustatuko duena.
– 2005/36/EE Arteztaraua, lanbide kualifikazioen onarpenari buruzkoa, irakasleen mugikortasunerako esparru juridikoa ezartzen duena.

Lanbide-heziketako profesionalen konpetentziak garatzearen arloko **kezka komunen** artean honako kezka hauek nabarmendu behar dira:

- Ikasleengan oinarritutako ikuspegia.
- Lan-merkaturako prestakuntzaren munta (bai gaitasun teknikoei dagokienez, bai enpleagarritasunari dagokionez).
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta irakaskuntza-metodo malguak.
- Bezeroen eta interesdun nagusien beharrei erantzuten dieten ikuspegiak, elkarlana sustatuz eta prestakuntza tokiko erkidegoen eta industriaren eskakizunetara egokituz.
- Ikaskuntzaren emaitzen jarraipena eta ebaluazioa.
- Prestakuntza-sistemari buruzko ezagutza teknikoak (kalitate-kontrola, kualifikazio-esparruak, konpetentzietan oinarritutako ebaluazioa, aurretiazko ikaskuntzaren balorazioa eta onarpena).
- Zeharkako gaitasunen eta konpetentzien garapena, hala nola orientazioa, kudeaketa eta administrazioa.

**Irakasleen eta hezitzaileen konpetentzia eta eraginkortasuna lanbide-heziketaren modernizazioan funtsezko giltzarriak direnez gero, Eusko Jaurlaritzak lanbide-heziketa berriaren funtsezko eragile gisa onartzen ditu irakasleak.**

Euskadiko lanbide-heziketako irakasleak lanbide-heziketaren erreforman ari dira parte hartzen; izatez, HAEErekin elkarlanean dihardute kualifikazioak alderatzen, tituluak diseinatzen, eta ebidentzien gidak lantzen, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan parte hartuta

**III. Planak lanbide-arloen arteko topaketak egitea hartzen du aintzat. Topaketa horietan irakasleek produkzio-sektoreetan gertatzen diren aldaketak hautemateko parte-hartze aktiboa izan dezaten, aldaketa horiek curriculumetan txerta ditzaten eta ikastetxeetako aktiboen eta bitartekoen modernizazioan lagun dezaten lortu nahi da.**

**III. Lanbide Heziketako Euskal Planaren esparruan lanbide-heziketako irakasleentzako plan espezifiko bat landuko da. Plan espezifiko horretan, lehentasuna emango zaio "enpresetako egonaldietako" prestakuntza modalitateari eta indartu egingo dira gobernantza, hizkuntza eta ekintzailetzaren arloko ereduen gaineko prestakuntza-ildoak.**



# 2. III. LHko Euskal Planaren esparru estrategikoa

Hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko Europako lankidetzarako esparru estrategiko berriak Europar Batasunaren eskalako esparru irmoa ezarri du hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko elkarlanerako. Elkarlanerako esparru hori helburu komunetan oinarritzen da, eta kalitatea eta gardentasuna sustatzera zuzendutako tresna osagarriak sortzen ditu (ET 2020).

2020. urtera arte, honako alderdi hauek lortzera zuzenduko da prestakuntza-sistemen helburua:

2020

**1)** Hiritar guztien errealizazio pertsonala, soziala eta profesionala.

**2)** Oparotasun ekonomiko iraunkorra eta enpleagarritasuna, betiere balio demokratikoak, gizarte-kohesioa, hiritar aktiboak eta kultura arteko elkarrizketa sustatuta.

Esparru estrategikoaren barruan, finkatutako helburuak lortzeko 2020ra arte ezarritako printzipioen baliagarritasuna ere onartu da. Europar Batasuneko kide gisa gure gain hartzen dugun konpromiso politikoaren mende eta itundu diren lan egiteko metodo komunen eragimenaren mende dago hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan zabaldutako koordinazio-metodoaren arrakasta.

Horrenbestez, lehentxeago aditzera emandakoarekin bat eginik, III. LHko Euskal Planaren egiturak hezkuntzarako eta lanbide-heziketarako Europako ET 2020 estrategiak proposatzen dituen **lau helburu edo esparru estrategikoak** hartzen ditu erreferentziatzat, baita adostutako elkarlanerako lan-metodoa ere.

Bigarren maila batean, berezko jardun-ildo adierazgarri batzuk geratuko dira artikulatuta proposatzen diren lau esparru estrategiko horietako bakoitzerako. Guztira, lanbide-heziketako euskal estrategia zehaztuko duten **hamabost jardun-ildo adierazgarri** jarriko dira martxan. Jardun-ildo adierazgarriak definitzean, arreta berezia jarri zaie Europako elkarlanerako metodoan adostutako epe laburrerako lehentasuneko erronkei.

III. Plan honetan, jardun-ildo adierazgarriak garatzeko **hemeretzi neurri** hartu dira aintzat. Neurri bakoitzak helburu estrategiko bat baino gehiago lortzen laguntzen duela jakinik, eta jardun adierazgarri bakoitza garatu ahal izateko hainbat neurriren konbinazioa behar dela jakinik, ez da helburu estrategiko komunen eta berezko jardun-ildoen eta neurrien arteko adiera bakarreko loturarik egin. Hori dela eta, burutzako eskema grafikoko neurrien atalean ikus daitekeen bezalaxe, horietako bakoitza dagozkion jardun-ildo adierazgarriekin eta esparru estrategikoekin lotuta dago. Horrela, III. Lanbide Heziketako Euskal Plan honetan epe laburrerako agenda finkatzeko hartutako neurrietako bakoitzerako trazagarritasuna islatuta dago, betiere Euskadiko eta Europar Batasunaren osotasuneko ibilbide-orriaren oraingo eta etorkizuneko erronka handiei dagokienez.

**LHan benetan lortzea etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna**

Prestakuntza-maila guztietara sartzeko aukera maximizatu behar da, eta horrek aldaketa sakonak eragin ditzake lanbide-heziketaren eta -prestakuntzaren gaur egungo horniduran. Malgutasun handiagoa beharko da ikaskuntzaren emaitzak eskuratzeko, ebaluatzeko eta kualifikazioetara nola eramaten duten ikusteko moduari dagokionez. Hori dela eta, lanbide-heziketako eta -prestakuntzako etengabeko hornidura hobetu beharko dute enpleagatzaileek, hasierako prestakuntzako hornitzaile tradizionalek eta goi-mailako irakaskuntzako ikastetxeek. Lanbide-kualifikazioei dagokienez, emaitzetan oinarritutako ikuspegia –betiere Kualifikazioen Europako Esparruaren **(KEE)** eta Lanbide-heziketarako eta -prestakuntzarako Kredituen Europako Sistemaren **(LHPKES)** arabera– oso lagungarria izan daiteke prestakuntza eta hezkuntza formalaz kanpo eskuratutako gaitasunak balidatzeko. Aldi berean, lanbide-heziketaren eta -prestakuntzaren eta goi-mailako irakaskuntzaren arteko bideek bide irekiak izan beharko dute, eta hirugarren mailako lanbide-heziketako eta -prestakuntzako programak garatu beharko dira. Halaber, prestakuntzaren eta enpleguaren arteko trantsizioa erraztu beharko da, baita enpleguen artekoa ere. Eginkizun horretarako, orientazio eta aholkularitzako zerbitzuak egin beharko dira.

Mugikortasunak izan beharko du lanbide-heziketaren eta -prestakuntzaren araua, batez ere hasierako lanbide-heziketarena eta -prestakuntzarena, bai ikasleentzat, bai hezitzaileentzat. Horrez gain, garrantzi handikoa da mugikortasuneko aldiak ere onartzea lanbide-heziketarako eta -prestakuntzarako Kredituen Europako Sisteman. Praktikaldiak egiteko, egitura egokiak sortu beharko lirateke, eta mugikortasun birtuala (e-Learning bidezkoa) erabili beharko litzateke mugikortasun fisikoa osatzeko.

**Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eragimena hobetzea**

Lanbide-heziketaren eta -prestakuntzaren kalitatea eta eragimena, irakasleen eta hezitzaileen maila handia, lanbide-heziketaren eta -prestakuntzaren eskaintza lan-merkatuko beharretara egokitzea eta lanbide-heziketak eta -prestakuntzak ikaskuntza osagarriari zabaltzen dizkion bideak oso lagungarriak dira erakargarritasuna areagotzeko. Lanbide-heziketaren eta -prestakuntzaren kalitatea eta eragimena hobetzeko honako jardunak egin beharko dira: lanbide-heziketa eta -prestakuntzarako kalitatea bermatzeko Europako erreferentzia-esparruan oinarrituta, kalitatea bermatzeko sistemak ezarriko dira Estatu mailan; irakasleen eta hezitzaileen kualifikazioen eta konpetentziaren etengabeko garapena berraztertuko da, haien zeregin berrien arabera; funtsezko konpetentzien etengabeko garapena bermatuko da, betiere lan-merkatuko beharrak asetzeko lanbide-kualifikazioekin batera –zehazki, laneko ikaskuntzako zenbait moduren bitartez–; aurrea hartzeko tresnak garatuko dira gaitasunak lanekin bat etor daitezen; eta parte-hartzaile garrantzitsuekin elkarteak sortuko dira lan-merkatuaren munta indartzeko.

**Berdintasuna, gizarte-kohesioa eta hiritar aktiboak sustatzea**

Lanbide-heziketako eta –prestakuntzako sistemek garrantzi handiko egitekoa betetzen dute gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan eta hazkunde barne hartzailearen sustapenean. Egoera kaltetuenean dauden ikasleek ikasgelaz kanpoko ikaskuntza baliatu ahal izango dute, lanean, tokiko lan-merkatuarekin lotuta.

Lanbide-heziketan eta -prestakuntza orokorrean integratutako prestakuntzak malgua izan beharko luke eta moduluen araberakoa, ibilbide indibidualizatuak egiteko aukera emanez. Gizarte-iguripenen hobekuntza sendotu ahal izango da, baldin eta lanbide-heziketa eta -prestakuntzaren eta goi-mailako prestakuntzaren arteko trantsizioa errazten bada. Aldi berean, orientazio-zerbitzu eskuragarriak eta berariazkoak egin beharko dira. Horrez gain, etengabe kontrolatu beharko dira lanbide-heziketa eta -prestakuntzako ikasleen enplegu-indizeak, batez ere egoera kaltetuenetako taldekoetako ikasleenak.

**Sormena, berrikuntza eta izpiritu ekintzailea hobetzea**

Lanbide-heziketa eta -prestakuntza garatzen duen esparruak sormena eta berrikuntza estimulatu beharko luke, arriskuak hartzea eta esperimentazioa sustatuz. Prestakuntza eskuragarria eta malgua emateko, esperientzian oinarritutako ikaskuntza eta ikaskuntza aktiboa sustatu beharko da, eLearning barnean dela. Izpiritu ekintzailerako heziketa sustatu beharko litzateke, ekimen- eta sormen-sena pizteko eta ideiak zehazteko gaitasuna lantzeko. Izpiritu ekintzaileak ere lanbide-heziketako eta -prestakuntzako irakasleen eta hezitzaileen esparruaren parte izan beharko luke.



*15. taula.*

Hauekin batera eta hauekin lotuta

**Esparru estrategikoak 4 helburu edo esparru estrategiko hartzen ditu aintzat**

1) Benetan lortzea etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna
2) Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea.
3) Berdintasuna, gizarte-kohesioa eta hiritar aktiboak sustatzea
4) Sormena eta berrikuntza gehitzea, enpresa-izpiritua barne, hezkuntzaren eta prestakuntzaren maila guztietan.

# LHko estrategia (ET2020)

2020

**Adierazle komunak eta erreferentziako markak (Europako emaitzen batez bestekoei dagozkienak)**

- Helduen parte-hartzea etengabeko ikaskuntzan
- Eskola garaia baino lehen uztea
- Graduazio-tasak
- Mugikortasuna
- Enpleagarritasuna

Printzipio batzuk jarraituz

**Europako elkarlanak honako jardun hauek garatu beharko ditu:**

Ikaskuntzaren ikuspegi integratua aplikatzea

Emaitza argiak ematea, ikus daitezkeenak eta ebaluadaitezkeenak

Sektore artekoa izatea (enplegua, enpresa, gizartepolitika...)

Europako eskalako laneko metodoez zuzkituta

**Koordinazioko metodo irekiak honako alderdi hauetan oinarritu beharko du:**

Lan-zikloak (3 ziklo 2020ra arte)

Ziklo bakoitzerako lehentasuna duten arloak edo gaiak

Elkarrekiko ikaskuntza

Emaitzen hedapena.

Aurrerapenen informazioa.

Prozesuaren jarraipena.

Esparru estrategiko bakoitzak lehentasuna duten gai batzuk adierazten ditu 3 zikloetako bakoitzerako eta 2020ra arte

## Lehentasuna duten gaiak

**1. esparru estrategikoa: benetan lortzea etengabeko ikaskuntza eta hezigaien mugikortasuna**

- Etengabeko ikaskuntzako estrategiekin lotzen den lanari jarraipena ematea
- Kualifikazioen Europako Esparruarekin lotzen den lanari jarraipena ematea
- Ikaskuntzaren mugikortasuna zabaltzearekin lotzen den elkarlana garatzea

**2. esparru estrategikoa: prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea**

- Hizkuntzen ikasketarekin lotzen den lanari jarraipena ematea
- Irakasleen eta hezitzaileen lanbide-garapenarekin lotzen den lanari jarraipena ematea
- Gobernantza eta finantzaketarekin lotzen den lanari jarraipena ematea
- Oinarrizko gaitasunekin lotzen den elkarlana garatzea
- Beste enplegu batzuetarako beste kualifikazio batzuekin lotzen den elkarlana garatzea

**3. esparru estrategikoa: berdintasuna, gizarte-kohesioa eta hiritar aktiboak sustatzea**

- Hezkuntza eta prestakuntza garaia baino lehen uztearekin lotzen den lanari jarraipena ematea
- Migratzaileekin lotzen den elkarlana garatzea
- Premia bereziak dituzten hezigaiekin lotzen den elkarlana garatzea

**4. esparru estrategikoa: sormena eta berrikuntza gehitzea, enpresa-izpiritua barne, hezkuntzaren eta prestakuntzaren maila guztietan.**

- Funtsezko zeharkako konpetentziekin lotzen den lanari jarraipena ematea
- Berrikuntza erraztuko duten erakundeekin lotzen den elkarlana garatzea
- Elkarteekin lotzen den elkarlana garatzea

**Esparru estrategiko bakoitzean eta lehentasuna duten gai horietarako jardun-ildo adierazgarriak garatu beharko dira.**

# 3. Jardun-ildo adierazgarri propioak

*16. taula*

**Europar Batasuna**

ET(2020) estrategiak Europar Batasunaren osotasunerako 4 helburu edo esparru estrategikoak finkatzen ditu

**Euskal Autonomia Erkidegoa**

| 1. esparru estrategikoa | 2. esparru estrategikoa | 3. esparru estrategikoa | 4. esparru estrategikoa |
|---|---|---|---|
| Benetan lortzea etengabeko ikaskuntza eta hezigaien mugikortasuna | LHko prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea | Berdintasuna, gizarte-kohesioa eta hiritar aktiboak sustatzea LHtik | Sormena eta berrikuntza gehitzea, enpresa-izpiritua barne, lanbide-heziketan |

**Euskal Autonomia Erkidegoa**

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan III. Lanbide Heziketako Euskal Planak definitu ditu
**berezko 15 jardun-ildo adierazgarriak**
Europar Batasunaren 4 helburu edo esparru estrategikoen arabera taldekatuta

**Euskal Autonomia Erkidegoa**

**Berezko 15 jardun-ildo adierazgarriak**

| 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|
| 1a, 1b, 1c, 1d, 1e | 2a, 2b, 2c, 2d, 2e, 2f | 3a, 3b | 4a, 4b |

Berezko jardun-ildo adierazgarriak garatzen dituzten 19 neurri
Neurri bakoitzak jardun-ildo adierazgarri bat baino gehiago garatzen du

# III. LHko Euskal Planaren jardun-ildo adierazgarri propioak

## ET(2020)-ko 4 helburuen edo esparru estrategikoen arabera sailkatuta

*17. taula.*

### 1. esparru estrategikoa, LHn benetan lortzea etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna

LEHENTASUNA DUTEN GAIAK

**Etengabeko ikaskuntzako estrategiekin lotzen den lanari jarraipena ematea.**
**Kualifikazioen Europako esparruarekin lotzen den lanari jarraipena ematea.**
**Ikaskuntzaren mugikortasuna zabaltzearekin lotzen den elkarlana garatzea.**

JARDUN-ILDO ADIERAZGARRI PROPIOAK

**1a**

**Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema** osatzea, Kualifikazioen Europako Esparruari lotzeko.

**1b**

**Mugikortasun-programak** sustatzea, Europan zein munduaren gainerakoan, araua izan daitezen eta ez salbuespena, betiere "Kalitatearen eta Mugikortasunaren Europako Gutunean" ezarritako printzipioak aplikatuz.

**1c**

Irakaskuntza iristerrazak diseinatzea eta ezartzea, **zati batean soilik bertaratzea** eskatuko duen eta ikasketak lanarekin eta beste erantzukizun batzuekin uztartzeko aukera emango duen **on line heziketasistema** artikulatuz.

**1d**

Enplegu Sailarekin batera eta Estatuaren gainerakoarekin elkarlanean, lanesperientziaren eta prestakuntza ezformalaren bidez eskuratutako lanbidekonpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura aktibatzea **-Gaitasuna Egiaztatzeko Egitura-**, 1224/2009 Errege Dekretuan agindutakoari jarraituz.

**1e**

**Informazio, Aholkularitza eta Orientazio Zerbitzua** garatzea, Enplegu Sailarekin harmonizatuta, hiritarrentzako arretarako (ez soilik ikasleentzako arretarako). Heziketaren arrakasta hobetzen eta helduentzako prestakuntzaren plangintza hobetzen lagunduko du, eta pertsonak lan-mundura daitezen erraztuko du.

*18. taula.*

## 2. esparru estrategikoa, LHko prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea

LEHENTASUNA DUTEN GAIAK

**Hizkuntzen ikasketarekin lotzen den lanari jarraipena ematea.**
**Irakasleen eta hezitzaileen lanbide-garapenarekin lotzen den lanari jarraipena ematea.**
**Gobernantza eta finantzaketarekin lotzen den lanari jarraipena ematea.**
**Oinarrizko gaitasunekin lotzen den elkarlana garatzea.**
**“Beste enplegu batzuetarako beste kualifikazio batzuekin” lotzen den elkarlana garatzea.**

### JARDUN-ILDO ADIERAZGARRI PROPIOAK

**2a**

Lanbide Heziketako eta helduentzako heziketako irakaskuntzetan **hizkuntzen ikasketa** sustatzea.

**2b**

LOEko titulu berriei eta Berrikuntzarekin, lanbide -ekimenarekin eta gobernantzarekin lotzen diren arloei lehentasuna emango dien **LHko irakasleen Prestakuntza Plana** diseinatzea eta onartzea.

**2c**

LHko ikastetxeetan **gobernantza-ereduak** sustatzea, datu errealetan oinarrituta eta aurrezpenaren, eragimen energetikoaren eta energia berriztagarriko iturrien erabileraren printzipioak txertatuta. Baliabideen erabilera eraginkorra hobetzea eta negutegi-efektuko gasak murriztea. Prestakuntza-prozesuetan parte hartzen duten eragile guztiek **baliabideak eta energia eragimenez erabiltzeko plana** lantzea.

**2d**

LHko ikastetxe guztietan zabaltzea eta finkatzea kalitate estandarretan lotzen diren **kudeaketa-ereduak**, LHko sistemen bikaintasun-maila handiak bermatzeko balioko dutenak, betiere “kalitatea bermatzeko Europako erreferentzia -esparrua” erreferentziatzat hartuta, eta datu fidagarrietan oinarritutako erabakiak, hartzen lagunduko dutenak.

**2e**

Beste erakunde batzuekin elkarlanean prospekzio-mekanismoak ezartzea, **merkatuaren beharrak zehazteko** (eskaintza/ eskaria egokitzeko) eta kualifikazioetako etorkizuneko defizitak finkatzeko.

**2f**

**Oinarrizko gaitasunak eskuratzeko** ekintzaplanei lehentasuna ematea, helduentzako arretaren esparruan.

*19. taula.*

## 3. esparru estrategikoa, LHtik berdintasuna, gizarte-kohesioa eta hiritartasun aktiboa sustatzea

LEHENTASUNA DUTEN GAIAK

**Hezkuntza eta prestakuntza garaia baino lehen uztearekin lotzen den lanari jarraipena ematea.**
**Migratzaileekin lotzen den elkarlana garatzea.**
**Premia bereziak dituzten hezigaiekin lotzen den elkarlana garatzea.**

### JARDUN-ILDO ADIERAZGARRI PROPIOAK

**3a**

**Hasierako lanbide-kualifikazioko programak berriro diseinatzea eta ezartzea,** ikasketak uztea erabakitzen duten ikasleei edo kualifikaziorik ez duten ikasleei hezkuntzaren/lanbidearen arloko irtenbide bat emateko, betiere funtsezko helburua heziketa osatzea dela kontuan izanik (INSN 2).

**3b**

**Pertsona kalteberenen kolektiboetarako,** (desgaituentzako, migratzaileentzako,emakumeentzako,...) **neurri bereziak** hartzea, kolektibo horiek ikasketak osatu ahal izan ditzaten eta gizartean eta lan -merkatuan guztiz parte hartu ahal izan dezaten, lana aurkitzeko aukerak gehituz eta aukera berdintasuna bermatuz.

*20. taula.*

## 4. esparru estrategikoa, LHn sormena eta berrikuntza gehitzea, enpresa-espiritua barne

LEHENTASUNA DUTEN GAIAK

Funtsezko zeharkako konpetentziekin lotzen den lanari jarraipena ematea.
Berrikuntza erraztuko duten erakundeekin lotzen den elkarlana garatzea.
Elkarteekin lotzen den elkarlana garatzea.

### JARDUN-ILDO ADIERAZGARRI PROPIOAK

**4a**

Ondasunen eta zerbitzuen produkzio-prozesuetako zein antolamendu eta kudeaketako prozesuetako **berrikuntzan** eta produkzio-ereduan gertatutako aldaketa handiak heziketa-prozesuan txertatzea eta bere egitea.

**4b**

Inbertsio pribatuan eta publikoan oinarritutako **lankidetzahitzarmen orekatuak** sustatzea, ikastetxeen eta balio erantsi egiaztatua gaineratuko duten beste alde interesdunen (batik bat, enpresak) artean.

# 4. Neurriak

*21. taula.*

1

1. esparru estrategikoa: 1a, 1b, 1c, 1d, 1e
2. esparru estrategikoa: 2a, 2b, 2c, 2d, 2e, 2f
3. esparru estrategikoa: 3a, 3b
4. esparru estrategikoa: 4a, 4b

| | |
|---|---|
| **1. NEURRIA** | **Hasierako Prestakuntza - LOE heziketa-zikloak lantzea eta ezartzea (Lanbide Heziketako Sistema Integratua)** |
| **DESKRIBAPENA** | Erdi-mailako zein goi-mailako LOE heziketa-zikloak lantzea eta ezartzea, Autonomia Erkidegoko hizkuntzetan, ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionala osatzeko.<br><br>**ERDI MAILAKOAK**<br>Hozteko eta girotzeko instalazioak Beroa sortzeko instalazioak<br>Arotzeria eta altzarigintza<br>Osasun-larrialdiak<br>Ibilgailu automobilen elektromekanika<br>Administrazio-kudeaketa<br>Estetika eta edergintza<br>Nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioa<br><br>**GOI MAILAKOAK**<br>Administrazioa eta finantzak<br>Eraikuntza-proiektuak<br>Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak<br>Telekomunikazio- eta informatika-sistemak<br>Jatetxe arloko zerbitzuetako zuzendaritza<br>Sukaldeko zuzendaritza<br>Plataforma anitzeko aplikazioen garapena<br>Web aplikazioen garapena<br>Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea<br>Gizarteratzea |
| **DATA** | **Ikasturtea: 2011-2012** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila** |

*22. taula.*

| | |
|---|---|
| **2** | 1. esparru estrategikoa: 1a, 1b, 1c, 1d, 1e<br>2. esparru estrategikoa: 2a, 2b, 2c, 2d, 2e, 2f<br>3. esparru estrategikoa: 3a, 3b<br>4. esparru estrategikoa: 4a, 4b |
| **2. NEURRIA** | **Enplegurako Prestakuntza - Profesionaltasun-ziurtagiriak ezartzea - Moduluen katalogoa (Lanbide Heziketako Sistema Integratua)** |
| **DESKRIBAPENA** | Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema garatzea, profesionaltasun-ziurtagirien katalogoa eta moduluen katalogo berria sortuta, aipatutako ziurtagirietako prestakuntza-unitateen sortaren emaitza gisa; Autonomia Erkidegoko hizkuntzetan Enplegurako Prestakuntza eskaini ahal izateko. Lehen urrats gisa, 2011n zehar, euskal produkzio-sistemak gehien eskatzen dituen profesionaltasunziurtagiriak, adierazitako lanbide-arloetakoak, ezarriko dira. Lehentasuna emango zaio Gaitasuna Egiaztatzeko Egituran parte hartzen dutenek behar duten prestakuntzari, prestakuntza osatu eta titulazioa eta/edo ziurtapena lortu ahal izan dezaten. Ezartzen diren profesionaltasunziurtagirietatik, 10 1. mailakoak izango dira, langabezian dauden eta/edo kualifikaziorik gabeko gizarteegoera ahuleko kolektiboei zuzenduta.<br><br>Fabrikazio mekanikoa<br>Elektrizitatea eta elektronika<br>Arte grafikoak<br>Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak<br>Segurtasuna eta ingurumena<br>Merkataritza eta marketina<br>Ostalaritza eta turismoa<br>Nekazaritza<br>……………….. |
| **DATA** | **Ikasturtea: 2011-2012** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, eta Hezkuntza Saila** |

*23. taula.*

| | |
|---|---|
| 3 | 1. esparru estrategikoa: 1a, 1b, 1c, 1d, 1e<br>2. esparru estrategikoa: 2a, 2b, 2c, 2d, 2e, 2f<br>3. esparru estrategikoa: 3a, 3b<br>4. esparru estrategikoa: 4a, 4b |
| **3. NEURRIA** | **Urrutiko Lanbide Heziketa** |
| **DESKRIBAPENA** | Esperimentazio-prozesua ebaluatu ostean, 2011-2012 ikasturterako **Urrutiko LHko ikastetxe bat** abian jartzea eta **ikastetxe laguntzaileen sare bat** planifikatzea (ikastetxe publikoekin eta pribatuekin), prestakuntza modalitate horren erabiltzaileak bertaratu behar diren jarduerak hurbilago egin ahal izan ditzan. Prestakuntza-metodo horiek gure autonomia-erkidegoko ikastetxeetan hedatzea.<br>**2011-2012** ikasturtean, Autonomia Erkidegoko hizkuntzetan eskaintzea Haur Hezkuntzako, Sareko Informatika Sistemen Administrazioko, Telekomunikazio Instalazioetako eta Fabrikazio Mekanikoko Produkzioa Programatzeko ikasketak, eta datozen ikasturteetan arian-arian zabaltzea modalitate horretako eskaintza.<br>Zenbait kurtsotan **hiru hizkuntzako** urrutiko **eskaintza** arian-arian definitzea eta ezartzea. Berariazko programen bitartez, irakaskuntza modalitate horretarako material egokiak lantzea eta eskuratzea, beste autonomia-erkidego batzuekin elkarlanean. |
| **DATA** | **2011** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila** |

*24. taula.*

| 4 | 1. esparru estrategikoa: 1a, 1b, 1c, 1d, 1e — 2. esparru estrategikoa: 2a, 2b, 2c, 2d, 2e, 2f — 3. esparru estrategikoa: 3a, 3b — 4. esparru estrategikoa: 4a, 4b |
|---|---|
| **4. NEURRIA** | **Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak – Eskola garaia baino lehen utz dadin eragoztea** (1a, 2a, 3a) |
| **DESKRIBAPENA** | • **Hasierako lanbide-kualifikazioko programak** berriro diseinatzea eta ezartzea, 1. kualifikaziomaila lortzea eta hezkuntza-sistema orokorreko ikasketetako jarraitasuna ahalbidetzeko, **bi urteko** iraupeneko eredua finkatuz.<br>• Eskola uzteko egoeran edo eskola-porroteko egoeran dauden ikasleei erantzuteko eskaintza planifikatzea.<br>• Ikasleei orientazio- eta tutoretza-zerbitzua eskaintzea, ikasketa horiek arrakastaz amaitzen saiatzeko eta ikasketen eta lanbidearen arloko erabakiak hartzea errazteko laguntza gisa. |
| **DATA** | **2011-2013** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila** |

*25. taula.*

| | |
|---|---|
| **5** | 1. esparru estrategikoa: 1a 1b 1c 1d 1e · 2. esparru estrategikoa: 2a 2b 2c 2d 2e 2f · 3. esparru estrategikoa: 3a 3b · 4. esparru estrategikoa: 4a 4b |
| **5. NEURRIA** | **Internazionalizazioa. Mugikortasuna** |
| **DESKRIBAPENA** | Gure enpresen internazionalizazioa sustatzea, pertsona kualifikatuak lan-merkaturatuz, bai sektoreko berezko konpetentzietan zein hizkuntzen ezagutzan, betiere Euskadik mundu-mailako agertoki ekonomikoan lehiatu ahal izan dezan (gazteria mugimenduan):<br>• Batez ere erdi-mailako heziketa-zikloetako ikasleei zuzenduta, **hizkuntza-konpetentzia sendotzeko programak** aktibatzea, ordutegi osagarrian, Lantokiko prestakuntza atzerrian bete ahal izan dezaten.<br>• **Hiru hizkuntzako** Lanbide Heziketako ikasketa-eskaintza finkatzea eta 10-15 ikastetxetara hedatzea, eta modalitate horretarako egokiak diren materialak gehitzea. |
| **DATA** | **2011-2013** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila** |

*26. taula.*

| | |
|---|---|
| 6 | 1. esparru estrategikoa: 1a, 1b, 1c, 1d, 1e — 2. esparru estrategikoa: 2a, 2b, 2c, 2d, 2e, 2f — 3. esparru estrategikoa: 3a, 3b — 4. esparru estrategikoa: 4a, 4b |
| **6. NEURRIA** | **Lan-esperientzia egiaztatzea (Lanbide Heziketako Sistema Integratua)** |
| **DESKRIBAPENA** | Neurri honen helburua da herritarren kualifikazioa areagotzea, lan-esperientziaren eta ikaskuntza ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-konpetentziak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedura aplikatuta. Ondoko hauekin lotutako jardunei emango zaie lehentasuna:<br>hazten ari diren sektoreak, lanbide-kualifikaziorik gabeko pertsonak, langileak ziurtapen formal bat edukitzera behartuko dituen erregulazioren bat duten sektoreak.<br>**2011. urtean** egin beharreko ekintzak:<br>• Lanbide-konpetentzia ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura legez arautzea, Enplegu Sailaren eta Hezkuntza Sailaren baterako dekretu bat onartuta.<br>• Bizitzan zeharreko ikaskuntzako legearen esparruan, **lanbide-konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko sailen arteko batzorde** bat sortzea, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak batera.<br>• Ikastetxe laguntzaileen (publikoen eta pribatuen), orientatzaileen eta ebaluatzaileen sarea antolatzea.<br>• Gutxienez, Haur Hezkuntzako, Hezkuntza Soziosanitarioko, Osasun Larrialdietako, eta Nekazaritzako eta Arrantzako deialdiak antolatzea.<br>• Gizarte-bazterketako arriskuan dagoen edo premia bereziak dituen populaziorako 1. kualifikaziomailako deialdia antolatzea. |
| **DATA** | **2011** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, eta Hezkuntza Saila** |

(Neurria 1d eta 3b arteko eremuei lotuta.)

*27. taula.*

| 7 | 1. esparru estrategikoa: 1a, 1b, 1c, 1d, 1e · 2. esparru estrategikoa: 2a, 2b, 2c, 2d, 2e, 2f · 3. esparru estrategikoa: 3a, 3b · 4. esparru estrategikoa: 4a, 4b |
|---|---|
| **7. NEURRIA** | **Etengabeko orientazioa eta aholkularitza (Lanbide Heziketako Sistema Integratua)** (1e, 3a, 3b) |
| **DESKRIBAPENA** | Lanbide Heziketaren esparruan **informazio, aholkularitza eta orientazioko sistema integratua** egituratzea, esparru horretan zerbitzu egiten duten erakundeetatik garatzen ari diren ekintzak koordinatuta. Lanbide Heziketako eskaintza integratua duten ikastetxeek hartuko dute parte bertan.<br>Hezkuntza Sailak eta Enplegu Sailak sustatutako mahai teknikoa sortzea. Erakundeek eta eragile ekonomikoek eta sozialek parte hartuko dute mahai tekniko horretan, eta honako helburu hauek izango ditu:<br>• Hiritar guztiei erraztea orientazio-zerbitzuetarako sarrera.<br>• Orientazio-zerbitzuetan kalitate-bermea garatzea.<br>• Protagonisten (erakundeen, eta eragile ekonomikoen eta sozialen) koordinazioa eta elkarlana sustatzea.<br>• Informazio, aholkularitza eta orientazioko sare presentzial bat, eta plataforma telematiko bat finkatzea.<br>Estatuaren esparruan sortutako mahai teknikoetan bete-betean parte hartzea. |
| **DATA** | **2011ko 2. hiruhilekoa** |
| **ARDURADUNA** | **Enplegu Saila eta Hezkuntza Saila** |

*28. taula.*

| | |
|---|---|
| **8** | 1. esparru estrategikoa: 1a, 1b, 1c, 1d, 1e — 2. esparru estrategikoa: 2a, 2b, 2c, 2d, 2e, 2f — 3. esparru estrategikoa: 3a, 3b — 4. esparru estrategikoa: 4a, 4b |
| **8. NEURRIA** | **Ikastetxe integratuak. Erreferentzia nazionaleko ikastetxeak. Ikastetxeen sarea** |
| **DESKRIBAPENA** | **Lanbide Heziketako ikastetxe integratuei buruzko araudia argitaratzea.** Hezkuntza Sailak, Enplegu Sailarekin batera, 2011ko lehen seihilekoan prestatuko du Euskadiko LHko titulartasun publikoko eta itunpeko ikastetxe integratuen sarea arautuko duen dekretua. Sare horrek pertsonen bizitzan zeharreko heziketarako eskubidea erraztuko du.<br>Lanbide Heziketako ikastetxe integratuak publikoak eta pribatuak izan daitezke.<br>Sare horren oinarrizko funtzioa izango da baimendutako lanbide-arloetako Lanbide Heziketako profesionaltasun-ziurtagiriak eta tituluak lortzeko prestakuntza-eskaintzak ematea, baita pertsonen eta produkzio-ingurunearen eskariei erantzungo dieten beste prestakuntza-eskaintza batzuk ematea ere. Lanbide-konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduran lagunduko dute. Alderdi hauei buruzko berariazko arauetara moldatuko dira:<br>• Autonomia izatea giza baliabideak eta baliabide materialak antolatzeko eta kudeatzeko.<br>• Enplegurako prestakuntzara zuzendutako aurrekontu-baliabideetarako sarbidea edukitzea.<br>• Jardunak finkatutako kalitate-ebaluazioen mende jartzea.<br>Euskal Autonomia Erkidegoko **hiru ikastetxe erreferentzia nazionaleko ikastetxe** izateko baldintzak sustatzea.<br>Bizitzan Zeharreko Ikaskuntzari buruzko Legearen esparruan, Lanbide Heziketako **eskaintza integratua** eskainiko duten **ikastetxeen sare zabala** ezartzea. |
| **DATA** | **2011aren amaiera aldean** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila eta Enplegu Saila** |

*29. taula.*

# 9

1. esparru estrategikoa | 2. esparru estrategikoa | 3. esparru estrategikoa | 4. esparru estrategikoa

1a 1b 1c 1d 1e | 2a 2b 2c 2d 2e 2f | 3a 3b | 4a 4b

| | |
|---|---|
| **9. NEURRIA** | **Azpiegitura berrien plana** |
| **DESKRIBAPENA** | **Azpiegitura berrien plana** garatzea, **hezkuntza-plangintzako** irizpideei jarraituz.<br>• Garraioa eta ibilgailuak mantentzeko lanbide-arloa Bilbo Handiko eremuan berrantolatzea eta beharrezko azpiegiturak antolatzea.<br>• Osasungintzako lanbide-arloaren barruan, Osasun-larrialdietako erdi-mailako zikloa ezartzea lurralde historiko bakoitzean.<br>• Akuikulturaren sektoreko eskariei erantzuteko instalazioak birmoldatzea eta zabaltzea (Itsasoko eta arrantzako lanbide-arloa).<br>• Eraikinak eta instalazioak egokitzea Vitoria-Gasteizen erantzuteko Osasungintzako, Gizarteeta kultura-zerbitzuetako eta Turismoko lanbide-arloetako eskariei.<br>• Bergaran beste eraikin bat eraikitzea Elektrizitate eta elektronikako, Fabrikazio mekanikoko, eta Administrazio eta kudeaketako lanbide-arloak kokatzeko.<br>• Gernikan beste eraikin bat eraikitzea Energia eta ureko lanbide-arloaren gero eta eskari handiagoari erantzuteko.<br>• Zarauzko osasun-etxe zaharra birmoldatzea eta beste solairu bat eraikitzea Monte Albertia BHIaren eskariari erantzuteko.<br>• Bilbon beste ikastetxe bat eraikitzea lanbide-arlo hauek emateko: Gizarte- eta kulturazerbitzuak; Osasungintza; Merkataritza eta marketina; Administrazioa eta kudeaketa; eta Ostalaritza eta turismoa.<br>• Fadura BHIan lanbide-arlo hauek ezartzea: Osasungintza, eta Gorputz-jarduerak eta kirolak. |
| **DATA** | **Planaren indarraldian zehar** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila** |

*42. grafikoa.* **Azpiegitura berrien plana. Plangintza**



*30. taula.*

| | |
|---|---|
| **10** | **1. esparru estrategikoa:** 1a, 1b, 1c, 1d, 1e · **2. esparru estrategikoa:** 2a, 2b, 2c, 2d, 2e, 2f · **3. esparru estrategikoa:** 3a, 3b · **4. esparru estrategikoa:** 4a, 4b |
| **10. NEURRIA** | **Ikastetxeak modernizatzea** |
| **DESKRIBAPENA** | Heziketa-ziklo berrien beharretara zuzendutako **ekipamenduetarako aparteko plana** bideratzea, LOE heziketa-ziklo berriak ezartzearen ondorioz sortutako beharrei erantzuteko.<br>**Eraikinetako, tresneriako eta instalazioetako energia-eragimeneko plana** garatzea, txosten objektiboen arabera (energia-ikuskapenak, kontsumoen monitorizazioa, tresneriaren erabileramaila...) antolatutako eta planifikatutako erabakiak orientatuko dituena. |
| **DATA** | **I. fasea, 2011ko martxoa** **II. fasea, 2011ko abendua** **III. fasea, 2012ko uztaila** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, EEEren lankidetzarekin** |

*31. taula.*

| | |
|---|---|
| **11** | 1. esparru estrategikoa: 1a 1b 1c 1d 1e — 2. esparru estrategikoa: 2a 2b 2c 2d 2e 2f — 3. esparru estrategikoa: 3a 3b — 4. esparru estrategikoa: 4a 4b |
| **11. NEURRIA** | **Kudeaketa-ereduak. Gardentasuna eta fidagarritasuna (Lanbide Heziketako Sistema Integratua)** (2c, 2d, 4a) |
| **DESKRIBAPENA** | Prozesuen araberako **kudeaketa-ereduak** finkatzea.<br>Prozesuen araberako kudeaketa-ereduak **indartzea,** ingurumen-kudeaketako, eta laneko segurtasun eta osasuneko printzipioak barnean hartuz.<br>Lanbide Heziketa irakasten duten ikastetxe guztietara **autoebaluazioko eta hobekuntzako** ereduak zabaltzea, erreferentzia hartuta FQM eta HOBBIDE autoebaluazio-esperientziak eta horien emaitzak, "Kalitatea Bermatzeko Europako Erreferentzia Esparruarekin" bat etorriz.<br>Esperimentazio-planari amaiera ematea Kudeaketa Integratuko Sistemaren sarea osatzen duten 5 ikastetxeen ziurtapenarekin (kalitatearen, ingurumenaren, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloak barnean hartzen dituena).<br>2011. urteaz geroztik, kudeaketa-sistema integratuetan energia-eragimenaren esparruko jarraibideak barnean hartzea. |
| **DATA** | **I. fasea, 2011ko ekaina** **II. fasea, 2012ko ekaina** **III. fasea, 2013ko ekaina** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila** |

32. taula.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **12** | 1. esparru estrategikoa: 1a, 1b, 1c, 1d, 1e | 2. esparru estrategikoa: 2a, 2b, 2c, 2d, 2e, 2f | 3. esparru estrategikoa: 3a, 3b | 4. esparru estrategikoa: 4a, 4b |

Lotutako helburuak: 2b, 2c, 2d, 4a

| | |
|---|---|
| **12. NEURRIA** | **Informazioaren kudeaketa eraginkorra - Informatizazioa** |
| **DESKRIBAPENA** | Administrazio-eragiketa nagusiak, eta irakatsi eta ikasteko prozesuko eragiketa nagusiak bermatuko dituzten **informatika-tresnak** ezartzea (koaderno digitala, bertaratze-hutsak, kalifikazioak, prozesuen araberako kudeaketa,...). Halaber, tresna horiek ikastetxeen eta horien interes multzoen arteko harremana ziurtatuko dute, eta kudeaketa-eredu aurreratuak erraztuko dituzte.<br>Ikastetxeei atari bat, intranet bat eta e-learning ingurune bat sortzeko plataforma integratua eskaintzea.<br>Ikastetxeetarako informatika-tresna garrantzitsuenak eta euskarri-azpiegiturak etengabe ebaluatzeko mekanismoak ezartzea, eta horien hobekuntza erraztea.<br>Irakatsi eta ikasteko metodologia egokiak sustatuko dituzten moduluen eta kurtsoen didaktikan txertatzea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. |
| **DATA** | **2011-2013** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila** |

33. taula.

| | |
|---|---|
| 13 | 1. esparru estrate gikoa: 1a 1b 1c 1d 1e; 2. esparru estrategikoa: 2a 2b 2c 2d 2e 2f; 3. esparru estrategikoa: 3a 3b; 4. esparru estrategikoa: 4a 4b |
| **13. NEURRIA** | **Berrikuntza. Ekintzailetza** (2b, 4a, 4b) |
| **DESKRIBAPENA** | Berrikuntza aurretiazko baldintza da ezagutzan oinarritutako eta karbono-isurketen maila baxuko ekonomia sortzeko. Transformazio hori ezinbestekoa da mundu globalizatu honetan lehiakor izaten jarraitzeko eta gizarte -helburu zabalenak modu iraunkorrean lortzeko, aldaketa demografikoek, baliabide-urritasunak eta segurtasun -mehatxu berriek eragindako presioren aurrean. Lanbide Heziketaren zeregina funtsezkoa da berrikuntza eta ekimen sortzailea sustatzeko.<br>**Berrikuntzari laguntzeko esparru-programa** bat landu eta ezartzea, jardunbide egokiak trukatzeko ekintzei lehentasuna emanda; helburua izanik esperientzia partekatzea, eta berrikuntzaekimenei eustea eta horiek orokortzea, hezkuntza-jardunean eta ikastetxeen kudeaketan hobekuntzak errazteko, eta eredu iraunkorrago batera bideratutako aldaketan aurrera egiten laguntzeko.<br>EuskoSkills **olinpiadak** antolatzea (14 skill), Euskadik Estatuko SpainSkills eta nazioarteko WorldSkills lehiaketetan parte hartzeko...<br>Ekintzailetza-planak **ebaluatu** eta **berraztertuko** dituen batzorde teknikoa eratzea. Batzorde tekniko horrek, era berean, **ekintza-planak proposatuko ditu ekintzailetza** Lanbide Heziketako “zeharkako” gai gisa finkatzeko, irakasleen berariazko prestakuntza-planaren parte izateko.<br>**Diseinu eraginkorrak** sustatzea, ekintzailetza-proiektuak gauzatzeko eta merkatuan **bideragarri** izatea lortzeko. |
| **DATA** | **2011-2013** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila** |

*34. taula.*

# 14

| | |
|---|---|
| | 1. esparru estrate gikoa: 1a, 1b, 1c, 1d, 1e |
| | 2. esparru estrate gikoa: 2a, 2b, 2c, 2d, 2e, 2f |
| | 3. esparru estrate gikoa: 3a, 3b |
| | 4. esparru estrate gikoa: 4a, 4b |
| **14. NEURRIA** | **Lanbide Heziketaren eta enpresen arteko harremana indartzea** |
| **DESKRIBAPENA** | Gobernantza-eredu berriek eskatzen dute LHko erakundeen eta bestelako alde interesdunen arteko lankidetza ezartzea, konpetentzien eta kualifikazioen beharrak aurretiaz antzemanda. Era berean, erantzukizun partekatua sustatzen dute, hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko inbertsio publikoak eta pribatuak bermatzeko eta, gainera, helburu komunak ezartzeko, ekintza komunak adosteko eta jardunbide egokienak partekatzeko:<br>**15 lanbide-arlotako topaketak** antolatzea. Topaketa horietan enpresek, profesionalek, hezitzaileek eta gizarte-eragileek egingo dute bat analisi-metodologiak sistematizatzeko eta lanmerkatuko eta sektoreko enpresen kualifikazio-beharrak dinamikoki zehazteko, betiere plangintza estrategikorako eta prestakuntza-eskaintzarako tresna gisa baliagarriak izan daitezen, giza baliabideen eta baliabide materialen behar berriak definituz.<br>Gobernuaren, enpresen eta ikastetxeen arteko **elkarte eraginkorrak** sustatzea, harremanak finkatzeko eta, besteak beste, helburu hauek lortzen laguntzeko: adituen trukea; azpiegiturak eta ekipamenduak partekatzea; datu eguneratuak, fidagarriak eta partekatuak eraginkortasunez erabiltzea; langileak eta irakasleak lanbidean eguneratzea.<br>Enpresak adoretzea Lanbide Heziketako ikastetxeekin haien plangintza estrategikoan lankidetza egonkorrak gaineratu ditzaten, erantzukizun sozial korporatiboko **(ESK)** ekimenen multzoan. |
| **DATA** | **2011-2013** |
| **ARDURADUNA** | **Sailak: Enplegua - Hezkuntza - Industria - Herrizaingoa - Nekazaritza eta Arrantza** |

*35. taula.*

| | |
|---|---|
| 15 | 1. esparru estrate gikoa: 1a, 1b, 1c, 1d, 1e · 2. esparru estrate gikoa: 2a, 2b, 2c, 2d, 2e, 2f · 3. esparru estrate gikoa: 3a, 3b · 4. esparru estrate gikoa: 4a, 4b |
| **15. NEURRIA** | **Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren mapa. LHaren ataria** |
| **DESKRIBAPENA** | Oraingo eta etorkizuneko kualifikazio-beharrak prestakuntza-eskaintzarekin alderatu ahal izango dituen **plataforma** abian jartzea Euskadin. Erabiltzaileei zein administrazioari, enpresei eta gizarteeragileei baliagarria izango zaie informazio hori. Planifikatzeko eta prestakuntza-eskaintza kualifikazio-beharretara egokitzeko... erabiliko dute. Azken finean, **datu fidagarrietan, eguneratuetan eta konparagarrietan** oinarritutako erabakiak hartu ahal izango dituzte.<br>INSPIRE **2007/2/EE** arteztarauaren eredu **georreferentziatuan** oinarrituko da. Arteztarau horrek espazio-datuen azpiegitura Europan finkatzeko arau orokorrak ezarriko ditu (bateragarriak diren eta elkarreragin dezaketen Estatuko, eskualdeko eta tokiko ekimenetan oinarritzen da azpiegitura hori). |
| **DATA** | **2011-2013** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila eta LHko Euskal Kontseilua** |

*36. taula.*

| | |
|---|---|
| 16 | 1. esparru estrate gikoa: 1a 1b 1c 1d 1e — 2. esparru estrate gikoa: 2a **2b** 2c 2d 2e 2f — 3. esparru estrate gikoa: 3a 3b — 4. esparru estrate gikoa: 4a 4b |
| **16. NEURRIA** | **Irakasleen Prestakuntza Plana** |
| **DESKRIBAPENA** | **Lanbide Heziketako Irakasleen Berariazko Prestakuntza Plana** diseinatu eta onartzea.<br>Lanbide Heziketaren modernizazioak irakasleen eta prestatzaileen profesionalizazio handiagoa eskatzen du, eta etengabeko garapen profesionalera behartzen du. Lanbide Heziketaren erronka berriek eginkizun berriak dakarzkiete irakasleei eta prestatzaileei, gai eta lehentasun berriak, hala nola, ikaslea ardatza harturik ezarri behar diren ikasketa metodo aktiboak, lan esparruko prestakuntzaren aldeko interesa, lan-merkatuak behar dituen konpetentzien bilakaera, industriaren eta tokian tokiko merkatuen eskariak, eta IKT eta multimedien garapena.<br>Irakasleen eta prestatzaileen konpetentzia eta eraginkortasuna dira LHaren erreformaren zutoinak.<br>Irakasleen Berariazko Prestakuntza Planak bideratu egingo du LOE titulu berrien ezarpen egokia, eta mugikortasunarekin, ekintzailetzarekin, energia eta ingurumenarekin eta gobernantzaereduekin zerikusia duten gaiei ekingo die.<br>Prestakuntza modalitateei dagokienez, hedatu egin beharko lirateke “enpresako prestakuntzaldiak” eta irakasleen mugikortasun-programak, eta Erreferentzia Nazionaleko Ikastetxe Sarea eduki beharko litzateke. |
| **DATA** | **2011-2013** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila** |

*37. taula.*

| | |
|---|---|
| 17 | 1. esparru estrate gikoa: 1a, 1b, 1c, 1d, 1e; 2. esparru estrate gikoa: 2a, 2b, 2c, 2d, 2e, 2f; 3. esparru estrate gikoa: 3a, 3b; 4. esparru estrate gikoa: 4a, 4b |
| **17. NEURRIA** | **Erreskate Plana (bigarren aukera) kualifikazio baxua duten 25 eta 29 urte artekoentzat** |
| **DESKRIBAPENA** | Ahalik eta xehetasun handienaz jakitea lanbide-kualifikaziorik ez duten 25 eta 29 urte artekoen kolektiboa zein egoera zehatzetan dagoen (29.000 bat lagun izan litezke). Helburua da zenbatetsi edo kalkulatutako datuetatik errolda-datuetara pasatzea. Datu horiek izateak aukera ematen du erreskateplanaren neurri zehatzak garatzeko, kontu publikoen bideragarritasuneko eta eraginkortasuneko irizpideez.<br>Aurreko azterlanaren datuetatik abiatuta, neurri zehatzen multzo bat prestatzea pertsona talde bakoitzari zuzenduta, bere egoeraren arabera **“bigarren aukera”** bat emateko, helduek **kualifikazio**-maila altuagoa lortzeko aukera bermatzeko, eta immigrazio- eta gizarteratze-politika egokituak abian jartzeko. Kualifikazio baxueneko pertsonei laguntzera ahaleginak bideratzea planteatzen da. “Erreskate-plan” bat abian jartzea eta herrialde -politika gisa gaineratzea. |
| **DATA** | **2011-2013** |
| **ARDURADUNA** | **Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, eta Hezkuntza Saila** |

*38. taula.*

# 18

1. esparru estrate gikoa: 1a 1b 1c 1d 1e

2. esparru estrate gikoa: 2a 2b 2c 2d 2e 2f

3. esparru estrate gikoa: 3a 3b

4. esparru estrate gikoa: 4a 4b

| | |
|---|---|
| **18. NEURRIA** | **LHaren diseinuan parte hartzea** |
| **DESKRIBAPENA** | **Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren** zeregina indartzea, Lanbide Heziketako Euskal Plana prestatu, jarraitu eta ebaluatzeko ardura duen partaidetzako erakunde gisa.<br>Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua berriro diseinatu eta antolatzea, Lanbide Heziketaren arloan partaidetza instituzional eta sozialeko organo gisa duen zeregina hobeto bete ahal izan dezan.<br>Autonomia Erkidegoan bete-betean parte hartzea:<br>• Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionala garatzen.<br>• Lanbide Heziketako Kontseilu Nagusiko lan-taldeetan.<br>• Europako esparruko entitateetan, hala nola Europar Batasuneko Eskualdeen Batzordean. |
| **DATA** | **2011-2013** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila eta Industria Saila, LHko Euskal Kontseiluarekin batera** |

*39. taula.*

# 19

1. esparru estrate gikoa | 2. esparru estrate gikoa | 3. esparru estrate gikoa | 4. esparru estrate gikoa

1a 1b 1c 1d 1e | 2a 2b 2c 2d 2e 2f | 3a 3b | 4a 4b

| | |
|---|---|
| **19.NEURRIA** | **Hedapena. Informazioa eta komunikazioa** |
| **DESKRIBAPENA** | Lanbide Heziketako ibilbide-orriarekin lotzen den komunikazio-plana diseinatzea. Lehentasuna izango du gizarteari prestakuntza-eskaintzako katalogoaren, haren esku jartzen diren programen, eta Ikerketa, Aholkularitza eta Orientazioko (IAO) zerbitzuen berri emateak.<br>Lanbide Heziketaren eredu berrian gertatzen ari diren aldaketarik adierazgarrienen berri ematea sektoreko profesionalei, Lanbide Heziketa eraginkorragoa eta erakargarriagoa egiteko.<br>Era berean, herritarrei, eta eragile ekonomiko eta sozialei informazioa ematea. |
| **DATA** | **2011-2013** |
| **ARDURADUNA** | **Hezkuntza Saila, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila eta LHko Euskal Kontseilua** |



III. Lanbide Heziketako Euskal Plana

*LH berria, herri-marka*

# IV. multzoa


IV. multzoa

1. III. LHko Euskal Planaren tresnak Diseinatzea, lantzea eta hedatzea. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko eredua ..... 136
2. Kronograma ..... 140
3. Aginte-taula ..... 144

# 1. Plana diseinatu, landu, hedatu, jarraitu eta ebaluatzeko tresnak

III. LHko Euskal Plana hainbat erakundek elkarrekin egindako lanaren emaitza da.

Plana planifikatu, diseinatu eta lantzeko hasierako zeregina amaitzen denean, eta hura onartu eta gero, plana hedatu, jarraitu eta ondoren ebaluatzeko lanak hasten dira. Bi eginkizun horiek gauzatzeko, zenbait tresna beharrezkoak dira.

Dekretu bidez sortua EHAA 1994-III-16 eta EHAA 1998-IX-22ak aldatua

Consejo Vasco de Formación Profesional
Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua

→ http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-cvfp/eu/contenidos/informacion/consejo_vasco_fp/eu_1961/hasiera.html

**Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren** eskumena da plana lantzea, eta horren jarraipena eta ebaluazioa egitea. Zeregin horretan, Euskadiren egoera zehatza ebaluatzeko urteko txostenak Europako esparruan egin beharreko baterako txostenetara egokitu behar ditu, helburuen lorpenean izandako aurrerabidearen jarraipena egiteko.

LHko Euskal Kontseiluak Lanbide Heziketarekin zerikusia duen gizarte-ehun osoa biltzen du, eta horretan garrantzi berezia dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak. Kontseiluaren bitartez koordinatzen dira ekintza guztiak, erakundeen artean gainjartzeak saihestu eta, bestalde, eskuragarri dauden baliabideak optimiza daitezen.

Dekretu bidez sortuak

EHAA 1998-VII-13

→ www.kei-ivac.com

EHAA 2005-III-9

→ www.tknika.net

EHAA 2001-IV-26

→ http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2333/eu/

Hezkuntza Saileko LHko Sailburuordetzaren mende dauden ospe handiko hiru erakunde hauek funtsezko egitekoa dute III. LHko Euskal Planaren garapenean:

a) Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua **(KEI).** Besteak beste, egiteko hau du: produkzio-prozesuen, lan-merkatuaren eta pertsonen kualifikazio-beharrak identifikatzea, eta, horretarako, konpetentzia estandarrak antzeman eta zehaztea, produkzio-sistemaren zuzeneko parte-hartzearekin.

b) LHrako eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa **(TKNIKA).** EgINkizun hau du: LHaren esparrua berritzea, LHko ikastetxeen eta enpresen arteko harremana bultzatuta, irakasleak prestatzea, eta irakatsi eta ikasteko prozesuen hobekuntzan aurrera egitea.

c) Lanbide Heziketaren Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia. Dagozkion eragin-esparruen artean, biztanleria aktiboaren lanbide-konpetentzia ebaluatzea dago.

Gainera, Lanbide Heziketa irakasten duten **ikastetxeak** daude, prestakuntzaren modalitate guztiekin zerikusia duten jarduerak garatzen esperientzia zabala dutenak.



Creado según decreto Decreto 329/2010

Lanbide

www.lanbide.net

HOBETUZ
Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua
Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa

www.hobetuz.com

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari atxikitako **LANBIDE** Euskal Enplegu Zerbitzuak funtsezko egitekoa izango du III. LHko Euskal Planaren garapenean. Lanbide, lana bultzatzeko tresna den heinean, laneratze aktiboa errazten du, eta enplegatzeko aukerak areagotu nahi dutenei eta lehiakorragoak izan nahi duten enpresei laguntzeko eginkizuna du.

LANBIDEren barruan, oso tresna garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behategia. Erakunde horrek lan-merkatuari buruzko informazioa kudeatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu eta prestakuntzako zerbitzu publikoen arloan.

III. LHko Euskal Planaren indarraldian, oso litekeena da berrikuntza edo aldaketa handiak izatea Lanbide Heziketaren inguruan euren jarduera garatzen duten erakunde batzuetan, denborak aurrera egin ahala agertzen ari diren eskakizun berriei erantzun ahal izateko. Euskal Autonomia Erkidegoko Gaitasuna Egiaztatzeko **Egitura** lankidetzako egitura operatiboa da (eta konfigurazio berrian izaten jarraituko du), biztanleria aktibo ugaria eta kualifikatua lortzeko zereginean erantzukizun handikoa.

**HOBETUZ** - Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioak langile okupatuen lanbide-prestakuntza eraginkorragoa egitea du helburu.

LHaren Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak berak birmoldaketak izan ditzake, berori egoerak eskatzen dituen zeregin berrietara egokitzeko.

Erakunde horien instituzio arteko izaera eta haien jardunen oinarri den lankidetza-printzipioa euren zeregina eraginkortasunez garatu ahal izateko osagarri aproposa dira.



III. LHko Euskal Planaren barruan denetariko hedadurako alderdiak garatzen lan egingo duten erakundeez gainera, baliabide hauez hornituko da:

- **kronograma** bat, planaren indarraldian zehar bertan jasotako neurriak hedatzeko abian jarriko diren ekintza nagusiak bildu eta denboralizatzen dituena, eta
- **aginte-panel** bat, arduradunei arlo bakoitzaren eta multzoaren ikuspegi ulergarria ematen dieten datuak eta adierazleak biltzen dituena.

Bien helburua da prozesu osoaren jarraipena, aurrerabideari buruzko informazioa eta emaitzen hedapena egituratzea. Hala, emaitzen ebaluazio kuantitatiboa errazten da, jarduera esanguratsuen jarraipen eta ebaluazio kualitatiboaz gainera. Aginte-koadroak ekartzen duen informazioak aukera ematen du erakundeak erantzukizunekin, eta baliabideak eta prozesuak diseinatutako estrategiekin lerrokatu eta horietara bideratzeko.

Horrela, ahalbidetu eta erraztu egiten da III. LHko Euskal Planaren **betetze-mailaren jarraipena**, bi alditan egingo dena, lehena 2012ko urtarrilean eta bigarrena 2013ko otsailean.



Azkenik, koordinazio instituzionaleko zereginetan eta erakunde aktiboen artekoetan arintasuna ahalbidetzeko eta planean jasotako ekintzak gartzeko, planean bildutako neurriak **hedatzeko talde** dinamizatzaile bat eratu da.

Honako hauek osatzen dute: Hezkuntza Saila, eta Lanbide, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari atxikitako erakundea.

Besteak beste, eginkizun hauek esleituta ditu:

- Planaren ekintzak koordinatuta bultzatzea
- Urteko jarraipen-txostenak prestatzea.
- Kronograma bete dadin zaintzea.

## FUNTSEZKO JARDUNEN KRONOGRAMA

*40. taula.*

| NEURRIA | NEURRIAREN IZENBURUA | 2011 | | | | 2012 | | | | 2013 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1º | 2º | 3º | 4º | 1º | 2º | 3º | 4º | 1º | 2º | 3º | 4º |
| 1 | **LH-KO SISTEMA INTEGRATUA - LOE TITULUAK LANTZEA ETA EZARTZEA** | | | | | | | | | | | | |
| | titulazioak lantzea | transformazio-prozesu osoan zehar | | | | | | | | | | | |
| | titulu berriak ezartzea | | | 18 | | | | | | | | | |
| 2 | **LH-KO SISTEMA INTEGRATUA - MODULU KATALOGOKO PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK** | | | | | | | | | | | | |
| | modulu-katalogoa lantzea | transformazio-prozesu osoan zehar | | | | | | | | | | | |
| | profesionaltasun-ziurtagiriak ezartzea | | | | | | | | | | | | |
| 3 | **URRUTIKO LANBIDE HEZIKETA** | | | | | | | | | | | | |
| | urrutiko LHko ikastetxe bat abian jartzea | | | | | | | | | | | | |
| | ikastetxe laguntzaileen sarea antolatzea | | | | | | | | | | | | |
| 4 | **HLKPak - ESKOLA GARAIA BAINO LEHEN UTZ DADIN ERAGOZTEA** | | | | | | | | | | | | |
| | eredua berriz diseinatzea | | | | | | | | | | | | |
| | eskaintzaren plangintza egitea | | | | | | | | | | | | |
| 5 | **NAZIOARTEKOTZEA - MUGIKORTASUNA** | | | | | | | | | | | | |
| | LParen araudi berria, nazioartekotzea bultzatzeko | | | | | | | | | | | | |
| | hizkuntzetako konpetentziak areagotzeko laguntza-programa | | | | | | | | | | | | |
| | LH eleanitzeko eskaintza areagotzea | | | | | | | | | | | | |
| 6 | **LH-KO SISTEMA INTEGRATUA - LAN ESPERIENTZIA AINTZAT HARTZEA** | | | | | | | | | | | | |
| | prozedura arautzea | | | | | | | | | | | | |
| | arreta soziosanitarioko deialdia argitaratzea | | | | | | | | | | | | |
| | haur-hezkuntzako deialdia argitaratzea | | | | | | | | | | | | |
| | osasun-larrialdietako deialdia argitaratzea | | | | | | | | | | | | |
| | ebaluatzeko eta egiaztatzeko erakundea sortzea | | | | | | | | | | | | |
| 7 | **LH-KO SISTEMA INTEGRATUA - ETENGABEKO AHOLKULARITZA ETA ORIENTAZIOA** | | | | | | | | | | | | |
| | mahai teknikoa sortzea | | | | | | | | | | | | |
| | orientazio-plataforma birtuala aktibatzea | | | | | | | | | | | | |
| | orientaziorako kalitate-bermearen esparrua definitzea | | | | | | | | | | | | |
| 8 | **IKASTETXE INTEGRATUAK ETA ERREFERENTZIA NAZIONALEKOAK - IKASTETXE SAREA** | | | | | | | | | | | | |
| | Ikastetxe integratuen araudia lantzea eta argitaratzea | | | | | | | | | | | | |
| | LHko ikastetxeen sarea sortzea bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko legearen esparruan | | | | | | | | | | | | |
| | erreferentzia nazionaleko ikastetxeen sarea handitzea | | | | | | | | | | | | |

## FUNTSEZKO JARDUNEN KRONOGRAMA

*41. taula.*

| NEURRIA | NEURRIAREN IZENBURUA | 2011 | | | | 2012 | | | | 2013 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1º | 2º | 3º | 4º | 1º | 2º | 3º | 4º | 1º | 2º | 3º | 4º |
| 9 | **AZPIEGITURA BERRIEN PLANA** | | | | | | | | | | | | |
| | "Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak" lanbide-arloa Bilbo Handiko eremuan berrantolatzea | | H | | | | | A | | | | | |
| | lurralde bakoitzean osasun-larrialdietako titulu bat ezartzea | | | | | | | | | | | | |
| | "Itsasoa eta arrantza" lanbide-arloko akuikulturaren sektoreko eskariei erantzuteko instalazioak birmoldatzea eta zabaltzea | H | | | | | | A | | | | | |
| | eraikinak eta instalazioak egokitzea "Osasuna", "Gizarte- eta kultura-zerbitzuak" eta "Turismoa" lanbide-arloetako eskariei erantzuteko Gasteizen | | | | | | | | | | | | |
| | Bergaran beste eraikin bat eraikitzea "Elektrizitatea eta elektronika", "Fabrikazio mekanikoa" eta "Administrazioa eta kudeaketa" lanbide-arloak kokatzeko | | H | | | | | | | | | A | |
| | Gernikan beste eraikin bat eraikitzea "Energia eta ura" lanbide-arloaren gero eta eskari handiagoari erantzuteko | | | | | | | | | | | | ? |
| | Zarauzko osasun-etxe zaharra birmoldatzea eta beste solairu bat eraikitzea Monte Albertia BHIren eskariari erantzuteko | H | | | | | | A | | | | | |
| | "Administrazioa eta finantzak", "Merkataritza eta marketina" eta "Ostalaritza eta turismoa" lanbide-arloak hartuko dituen beste eraikin bat eraikitzea Elorrieta- Errekamarin, eta besteak beste "Osasuna" eta "Gizarte-osasuna" lanbide-arloak irakatsiko dituen ikastetxe bat Bilbon | | | | | | | | | | | A | |
| | Nerbioi ibaiaren eskuinaldean "Osasuna" eta "Gorputz- eta kirol-ekintzak" lanbidearloak ezartzea | | | | | | | | | | | | |
| 10 | **IKASTETXEAK MODERNIZATZEA** | | | | | | | | | | | | |
| | ohiz kanpoko ekipamendu-plan bat hedatzea | | | | | | | | | | | | |
| | eraikinetako energia-eraginkortasuneko plan esperimentala | | | | | | | | | | | | |
| 11 | **KUDEAKETA EREDUAK. GARDENTASUNA ETA FIDAGARRITASUNA (LH-KO SISTEMA INTEGRATUA)** | | | | | | | | | | | | |
| | kudeaketa-eredu integratuen plan esperimentala | | | | | | | | | | | | |
| | energia-eraginkortasuna kudeatzeko eredu integratuen plan esperimentala | | | | | | | | | | | | |
| | kalitate-bermearen esparruaren konfigurazioan eraginkortasunez parte hartzea | estatuko mahai teknikoa funtzionatzen ari den bitartean | | | | | | | | | | | |
| | HOBBIDE autoebaluazio-eredu berria zabaltzea | | | | | | | | | | | | |
| 12 | **INFORMAZIOAREN KUDEAKETA ERAGINKORRA - INFORMATIZAZIOA** | | | | | | | | | | | | |
| | irakatsi eta ikasteko, ebaluatzeko eta ikasleen bertaratzea kontrolatzeko tresnak ezartzea | | | | | | | | | | | | |
| | irakatsi eta ikasteko tresnak ezartzea: koaderno digitala | | | | | | | | | | | | |
| | prozesuen arabera kudeatzeko informatika-tresna orokorki ezartzea | | | | | | | | | | | | |

## FUNTSEZKO JARDUNEN KRONOGRAMA

*42. taula.*

| | | 2011 | | | | 2012 | | | | 2013 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| NEURRIA | NEURRIAREN IZENBURUA | 1º | 2º | 3º | 4º | 1º | 2º | 3º | 4º | 1º | 2º | 3º | 4º |
| 13 | BERRIKUNTZA - EKINTZAILETZA | | | | | | | | | | | | |
| | “berrikuntzako jardunen esparrua” lantzea | | | | | | | | | | | | |
| | 14. EuskoSkills olinpiadak antolatzea | | | | | | | | | | | | |
| | ekintzailetzari buruzko mahai teknikoa eratzea | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | | |
| 14 | LANBIDE HEZIKETAREN ETA ENPRESEN ARTEKO HARREMANA INDARTZE | | | | | | | | | | | | |
| | lanbide-arloei buruzko topaketak: Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak | | | | | | | | | | | | |
| | lanbide-arloei buruzko topaketak: Irudi pertsonala | | | | | | | | | | | | |
| | lanbide-arloei buruzko topaketak: Elektrizitatea eta elektronika | | | | | | | | | | | | |
| | lanbide-arloei buruzko topaketak: Zurgintza, altzarigintza eta kortxoa | | | | | | | | | | | | |
| | lanbide-arloei buruzko topaketak: Itsasoa eta arrantza | | | | | | | | | | | | |
| | lanbide-arloei buruzko topaketak: Instalatze- eta mantentze-lanak | | | | | | | | | | | | |
| | lanbide-arloei buruzko topaketak: Energia eta ura | | | | | | | | | | | | |
| | lanbide-arloei buruzko topaketak: Eraikuntza eta obra zibila | | | | | | | | | | | | |
| | lanbide-arloei buruzko topaketak: Segurtasuna eta ingurumena | | | | | | | | | | | | |
| | lanbide-arloei buruzko topaketak: Osasuna | | | | | | | | | | | | |
| | lanbide-arloei buruzko topaketak: Gizarte- eta kultura-zerbitzuak | | | | | | | | | | | | |
| | lanbide-arloei buruzko topaketak: Ostalaritza eta turismoa | | | | | | | | | | | | |
| | lanbide-arloei buruzko topaketak: Fabrikazio mekanikoa | | | | | | | | | | | | |
| | lanbide-arloei buruzko topaketak: Informatika eta komunikazioak | | | | | | | | | | | | |
| | lanbide-arloei buruzko topaketak: Nekazaritza | | | | | | | | | | | | |
| | “ikastetxeen eta enpresen arteko” akordioen gida lantzea eta hedatzea | | | | | | | | | | | | |
| | “Gobernantza onerako konpromisoak” lantzea eta sinatzea | | | | | | | | | | | | |
| 15 | KUALIFIKAZIOEN MAPA. LH ATARIA | | | | | | | | | | | | |
| | proiektuaren zirriborroa aurkeztea | | | | | | | | | | | | |
| | Jaurlaritzaren “LHa Euskadin” plataforma geoerreferentziatua osatzea | | | | | | | | | | | | |
| 16 | LH-KO IRAKASLEAK PRESTATZEKO PLANA | | | | | | | | | | | | |
| | LHko irakasleak prestatzeko plan espezifikoa aurkeztea | | | | | | | | | | | | |
| 17 | ERRESKATE PLANA (BIGARREN AUKERA) | | | | | | | | | | | | |
| | 25-29 urteko biztanleriaren egoera aztertzea | | | | | | | | | | | | |
| | bana-banako neurriak diseinatzea | | | | | | | | | | | | |

## FUNTSEZKO JARDUNEN KRONOGRAMA

*43. taula.*

| | | 2011 | | | | 2012 | | | | 2013 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **NEURRIA** | **NEURRIAREN IZENBURUA** | 1º | 2º | 3º | 4º | 1º | 2º | 3º | 4º | 1º | 2º | 3º | 4º |
| **18** | **LH-AREN DISEINUAN PARTE HARTZEA** | | | | | | | | | | | | |
| | urrutiko LHko plan esperimentala LHEKri aurkeztea | | | | | | | | | | | | |
| | energia-eraginkortasuneko plan esperimentala LHEKri aurkeztea | | | | | | | | | | | | |
| | prozesuen araberako kudeaketaren informatizazioa LHEKri aurkeztea | | | | | | | | | | | | |
| | kudeaketa-sistema integratuaren esperientzia LHEKri aurkeztea | | | | | | | | | | | | |
| | "koaderno digitala" LHEKri aurkeztea | | | | | | | | | | | | |
| | "orientazioa" estatuko lan-taldean eraginkortasunez parte hartzea | mahai teknikoaren lanak dirauen bitartean | | | | | | | | | | | |
| | "kalitate-esparrua" estatuko lan-taldean eraginkortasunez parte hartzea | mahai teknikoaren lanak dirauen bitartean | | | | | | | | | | | |
| | LHEKren osaera eta funtzioak berraztertzea | | | | | | | | | | | | |
| | Planaren jarraipenaren eta ebaluazioaren txostena | | | | | | | | | | | | |
| **19** | **HEDAPENA. INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA** | | | | | | | | | | | | |
| | III. LHko Euskal Planaren hedapena | | | | | | | | | | | | |
| | LHaren funtsezko elementuei buruzko hedapena | | | | | | | | | | | | |



## DATU-ETA ADIERAZLE-PANELAREN AURRERAPENA

*44. taula.* **Egoera-adierazleak**

| ADIERAZLEAK | JOMUGAK | | |
|---|---|---|---|
| **EGOERA-ADIERAZLEAK** | **2011** | **2012** | **2013** |
| Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikasleak | | | |
| Heziketa-zikloetako 1. kurtsoko hezkuntza-eskaintza | | | |
| Heziketa-zikloetako ikasleak, EAEn eta lurralde historikoaren arabera | | | |
| Heziketa-zikloetako ikasleak, mailaren arabera (erdi-maila, goi-maila) | | | |
| Heziketa-zikloetako ikasleak, ikastetxe-tipologiaren arabera | | | |
| Lantokiko prestakuntza (LP) EAEn eta atzerrian egiten duten ikasleen bilakaera | | | |
| Sarbide-probetako parte-hartzaileen kopurua, mailaren arabera | | | |
| Eskaintza partzialeko moduluetako matrikula kopurua | | | |
| HLKPetan izena eman duten ikasleak | | | |



*45. taula.* **Adierazle komunak**

| ADIERAZLEAK | JOMUGAK | | |
|---|---|---|---|
| **ADIERAZLE KOMUNAK** | **2011** | **2012** | **2013** |
| Ikasketa mailarik altuena Bigarren Hezkuntzako lehen etapa duen eta inolako irakaskuntzarik edo prestakuntzarik jasotzen ez duen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa | | | |
| Zientzia eta teknologian hirugarren mailako titulazioa (INSN 5A, B eta 6) duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasaren (pertsonak mila biztanleko) bilakaera titulazio motaren arabera | | | |
| Prestakuntza-jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa | | | |
| Goi-mailako Lanbide Heziketan graduatutako biztanleriaren tasa gordina | | | |

*46. taula.* **Adierazle espezifikoak**

| ADIERAZLEAK | JOMUGAK | | |
|---|---|---|---|
| **ADIERAZLE ESPEZIFIKOAK** | **2011** | **2012** | **2013** |
| Erdi-mailako Lanbide Heziketan graduatutako biztanleriaren tasa gordina | | | |
| INSN 0-1-2 duen 25-29 urteko biztanleria, sexuaren arabera | | | |
| INSN 0-1 duen 25-29 urteko emakumezko biztanleria | | | |
| INSN 0-1-2 duen 25-64 urteko biztanleria landuna | | | |


2 0 0 7

III. Lanbide Heziketako Euskal Plana

*LH berria, herri-marka*

# V. multzoa

V. multzoa 1. Memoria ekonomikoa ............................ 148

# 1. Memoria ekonomikoa

*47. taula.*

| III. LH-KO EUSKAL PLANA | 2011 | | 2012 | | 2013 | | GUZTIRA | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hezkuntza Saila | Lanbide | Hezkuntza Saila | Lanbide | Hezkuntza Saila | Lanbide | Hezkuntza Saila | Lanbide | |
| 1. LOE ZIKLOAK | 453.579 | - | 453.579 | | 453.579 | - | **1.360.737** | | 1.360.737 |
| 2. ZIURTAGIRIAK - MODULU KATALOGOA | 5.000.000 | 200.000 | 5.000.000 | 200.000 | 5.000.000 | 200.000 | **15.000.000** | **600.000** | 15.600.000 |
| 3. ON LINE IRAKASKUNTZA | 1.083.513 | | 1.083.513 | | 1.083.513 | | **3.250.539** | **0** | 3.250.539 |
| 4. HLKPak | 19.000.000 | 50.000 | 19.000.000 | 80.000 | 19.000.000 | 150.000 | **57.000.000** | **280.000** | 57.280.000 |
| 5. NAZIOARTEKOTZEA | 1.793.816 | 300.000 | 1.793.816 | 300.000 | 1.793.816 | 300.000 | **5.381.448** | **900.000** | 6.281.448 |
| 6. LAN ESPERIENTZIA AINTZAT HARTZEA | 885.200 | 500.000 | 885.200 | 500.000 | 885.200 | 500.000 | **2.655.600** | **1.500.000** | 4.155.600 |
| 7. AHOLKULARITZA ETA ORIENTAZIOA | 755.200 | 200.000 | 755.200 | 200.000 | 755.200 | 200.000 | **2.265.600** | **600.000** | 2.865.600 |
| 8. IKASTETXE INTEGRATUAK | 6.019.472 | 300.000 | 6.019.472 | 300.000 | 6.019.472 | 300.000 | **18.058.416** | **900.000** | 18.958.416 |
| 9. AZPIEGITURAK | 4.900.000 | | 19.600.000 | | 24.500.000 | - | **49.000.000** | | 49.000.000 |
| 10. EKIPAMENDUAK MODERNIZATZEA | 6.576.000 | | 6.576.000 | | 6.576.000 | - | **19.728.000** | | 19.728.000 |
| 11. KUDEAKETA EREDUAK | 94.575 | 150.000 | 94.575 | 150.000 | 94.575 | 150.000 | **283.725** | **450.000** | 733.725 |
| 12. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA | 100.000 | | 100.000 | | 100.000 | | **300.000** | **0** | 300.000 |
| 13. BERRIKUNTZA - EKINTZAILETZA | 3.204.404 | 500.000 | 3.204.404 | 500.000 | 3.204.404 | 500.000 | **9.613.212** | **1.500.000** | 11.113.212 |
| 14. LH-AREN ETA ENPRESEN ARTEKO HARREMANA | 250.000 | 300.000 | 250.000 | 300.000 | 250.000 | 300.000 | **750.000** | **900.000** | 1.650.000 |
| 15. KUALIFIKAZIOEN PLATAFORMA | 100.000 | 200.000 | 100.000 | 200.000 | 100.000 | 200.000 | **300.000** | **600.000** | 900.000 |
| 16. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA | 1.077.380 | 50.000 | 1.077.380 | 50.000 | 1.077.380 | 50.000 | **3.232.140** | **150.000** | 3.382.140 |
| 17. ERRESKATE PLANA | | 400.000 | | 500.000 | | 560.000 | **0** | **1.460.000** | 1.460.000 |
| 18. LH-AREN DISEINUAN PARTE HARTZEA | 200.000 | | 200.000 | | 200.000 | | **600.000** | **0** | 600.000 |
| 19. HEDAPENA | 633.360 | 120.000 | 633.360 | 110.000 | 633.360 | 100.000 | **1.900.080** | **330.000** | 2.230.080 |
| | 52.126.499 | 3.270.000 | 66.826.499 | 3.390.000 | 71.726.499 | 3.510.000 | 190.679.497 | 10.170.000 | 200.849.497 |






*Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua*

# 1. eranskina:Prozesuan parte hartu duten pertsonak

## Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluko, Batzorde Iraunkorreko eta III. Lanbide Heziketako Euskal Planeko Batzordeko kideak

*48. taula.*

| izena | kargua | Osoko bilkura | B. Iraunkorra | Plan Orokorreko B. |
|---|---|---|---|---|
| Mª Isabel Celaá Diéguez | Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua. EJ. LHEK kontseiluko lehendakaria | ● | | |
| Javier Ruiz Fernández | Plangintza eta Enpleguko sailburuordea. EJ. LHEK kontseiluko lehendakariordea | ● | ● | |
| Carlos Crespo Velasco | Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea. EJ | ● | ● | |
| Mª José Madariaga Rola | Lanbide Heziketako zuzendaria. EJ | ● | ● | ● |
| Pedro Sánchez | Lanbideko Enplegurako Prestakuntzaren zuzendaria | ● | ● | |
| Itziar Etxebarria | Lanbideko teknikaria. Lanbideko Enplegurako Prestakuntzaren zuzendariaren ordezkoa | ● | ● | ● |
| Yolanda López | Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria EJ | ● | ● | |
| Rosa Murillas | Industria Saileko teknikaria. Yolanda Lopezen ordezkoa. EJ | ● | ● | ● |
| Juan Pablo Medrano | Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendaria. EJ | ● | ● | |
| Gorka Estebez | Azpiegitura eta Jakintzaren Kudeaketako zuzendari nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia | ● | ● | |
| Félix Elorza López | LHEK kontseiluko idazkaria | ● | ● | ● |
| José Ángel Velasco | LHEK kontseiluko teknikaria | ● | ● | ● |
| Asier Aloria | Confebask-eko Prestakuntza Saileko zuzendaria | ● | ● | ● |
| Ainhoa Rotaetxe | Confebask | ● | ● | ● |
| Francisco Javier Azpiazu | Cebek | ● | | |
| Gonzalo Salcedo | Cebek (Francisco Javier Azpiazu ordezkatzen du) | ● | | |
| Nestor Ériz | Cebek | ● | ● | ● |
| Yoana Aranbalza | Sea | ● | ● | ● |
| Mikel Sarriegi | Adegi | ● | ● | ● |
| Juan Ugarte | Sea | ● | | |
| Juan Antonio Sánchez Corchero | Sea (Juan Ugarte ordezkatzen du) | ● | | |

*49. taula.* **1. eranskina (jarraipena): Prozesuan parte hartu duten pertsonak**

| izena | kargua | Osoko bilkura | B. Iraunko-rra | Plan Orokorre-ko B. |
|---|---|---|---|---|
| Dolores García | CCOO | ● | ● | |
| Arantza Martínez | CCOO (Dolores Garcíaren ordezkoa) | ● | ● | ● |
| Rosa Turrillas | CCOO | ● | | |
| Felipe García | UGT | ● | ● | ● |
| Joseba Ander Muñoz | Felipe Garcíaren ordezkoa UGT | ● | ● | ● |
| José Ángel Ulazia * | ELA | | | |
| Juan Cruz López * | ELA | | | |
| Juan Pedro Etxebarria * | ELA | | | |
| Mª Paz García * | LAB | | | |
| Ignacio Larrrañaga | Ikastetxe Publikoen ordezkaria IEFPS M. Altuna GLHBIko zuzendaria | ● | ● | ● |
| José Miguel Santamaria | Ikastetxe Publikoen ordezkaria Leioako Ostalaritza eskolako zuzendaria | ● | | |
| Julen Elgeta | Itunpeko ikastetxeen ordezkaria HETELeko presidentea | ● | ● | ● |
| José Mª Echevarria | AICE-IZEA Itunpeko Ikastetxeen ordezkaria | ● | | |
| Eva Colín del Escobal | José Mª Echevarriaren ordezkoa AICE-IZEA | ● | | |

* * Ez du parte hartu adierazitako organoetan.

*50. taula.* **Koordinazio Orokorra, Laguntza Teknikoa eta Idazketa**

| izena | kargua |
|---|---|
| Mª José Madariaga Rola | Lanbide Heziketako zuzendaria. EJ |
| Francisco de la Peña | LHEK kontseiluko aholkularia |



# III. Lanbide Heziketako Euskal Plana

*LH berria, herri-marka*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Consejo Vasco de Formación Profesional
Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua